



EUSKARA

BALIO ETA ERAGIN

DEPARTAMENTO

EKONOMIKO

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA




AURKIBIDEA

0/ AURKEZPENA ETA EMAITZA OROKORRAK	4
SARRERA	5
0.1/ HELBURUA	5
0.2/ AZTERKETA-EREMUAREN SEKTOREAK	6
0.3/ EUSKARARI LOTURIKO JARDUERA-SEKTOREKOA IZATEKO ERABILITAKO IRIZPIDEAK	7
0.4/ ERAGIN ZUZENA, ZEHARKAKOA ETA INDUZITUA	7
0.5/ METODOLOGIA URRATSAK	8
0.6/ AZKEN EMAITZAK	12
1/ IKUSPEGI OROKORRA	16
1.1/ HIZKUNTZEN ERAGIN EKONOMIKOA	17
1.2/ EUSKARAREN BEREZITASUNAK	17
1.3/ EUSKARARI LOTU BEHARREKO SEKTOREEN DEFINIZIOA	18
1.3.1/ Kontsiderazio orokorrak	18
1.3.2/ Sektoreren sailkapenerako irizpideak	18
1.3.3/ Sektorere eta azpi-sektoreen deskribapen orokorra	19
1.3.4/ Euskara-sektoreen jarduera ekonomikoa baloratzeko zailtasunak	22
2/ EUSKARA-SEKTOREETAKO ENPLEGUA	23
2.1/ EAEKO JARDUERA EKONOMIKOEN GIDAZERRENDA (EUSTAT, 2014)	24
2.2/ AZTERLANERAKO UNIBERTSOAREN ZEHAZTAPENA: ENPRESA, ELKARTE ETA ERAKUNDEEN DATU-OINARRIA OSATU	25
2.3/ JARDUERA EKONOMIKOEN SAILKAPEN OFIZIALA (JESN) ETA HIZKUNTZA- SEKTOREEN ARTEKO ERKAKETA	26
2.4/ JARDUERA-ADAR BAKOITZARI APLIKATU BEHARREKO EUSKARA KOEFIZIENTEAREN KALKULURAKO PROZEDURA	26



2.5/ LANERAKO UNIBERTSOA ETA EUSKARARI DAGOKION ENPLEGUA	
KALKULATZEKO ERABILITAKO PROZEDURAREN EMAITZAK.....	29
2.5.1/ Hizkuntzaren industria	30
2.5.2/ Kultura eta hedabideen industria	38
2.5.3/ Hezkuntza eta unibertsitate arloko jarduerak	56
2.5.4/ Administrazio publikoa.....	69
3/ EUSKARA-SEKTOREEN DATU EKONOMIKOAK	74
3.1/ METODOLOGIA	75
3.2/ BALIO ERANTSI GORDINA ETA BARNE PRODUKTU GORDINA	76
3.3/ EUSKARA-SEKTOREEN DATU EKONOMIKOAK	77
3.4/ EUSKARAREN DIMENTSIO EKONOMIKOA	77
4/ EUSKARAREN ERAGIN EKONOMIKOA	84
4.1/ ARGIBIDE METODOLOGIKOAK	86
4.2/ ZUZENEKO ETA ZEHARKAKO ERAGIN EKONOMIKOA.....	87
4.2.1/ Ekoizpen balioa.....	92
4.2.2/ Balio Erantsi Gordina.....	92
4.2.3/ Enplegua	95
4.3/ ERAGIN INDUZITUA	98
4.3.1/ Prozedura metodologikoa	100
4.3.2/ Eragin induzitua	100
4.4/ EUSKARAREN ERAGIN EKONOMIKO OSOA	101
4.4.1/ Ekoizpen balioa.....	102
4.4.2/ Balio Erantsi Gordina.....	102
4.4.3/ Enplegua	105
5/ EUSKARAREN EKARPENA EUSKAL EKONOMIAREN BPGn.....	108
5.1/ EUSKARAREN BPG KALKULATZEKO PROZEDURA	111
5.1.1/ BPGren erabilgarritasunaz	112
5.1.2/ Euskararen BPG kalkulatzeko erabilitako prozedura	112
5.2/ EUSKARAREN PISUA EUSKAL EKONOMIAN	114



0. AURKEZPENA ETA EMAITZA



Sarrera

Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailarentzat Siadeco Ikerketa Elkarteak egindako azterlanaren txosten orokorra da hau.

Lehen atal hau, ikerketa osoaren aurkezpen laburtu bat da eta ikerlana egiteko jarraitutako prozedurari buruzko argibideak eta lortutako azken emaitza nagusien aurrerapena ere bertan jaso dago.

0.1/ Helburua

Helburua: euskararen dimentsio eta eragin ekonomikoa neurtzea.

Euskal Autonomia Erkidegoko ekonomiari euskarak egiten dion ekarpena ezagutu, euskarak sortzen duen aberastasun ekonomikoa neurtu eta euskara-sektoreen dimentsio eta balio ekonomikoa kuantifikatzea izan da ikerlan honen helburua. Soziologia eta filologiaren ikuspegiak erabilia, ikerlan asko egin dira euskarari buruzkoak; EAEko testuinguru ekonomikoan euskarak mugiarazten duen merkatua eta eragina neurtzeko zientzia ekonomikoen begiradatik egindako ikerlan oso gutxi dago ordea. Euskararen normalizazio bidean hain garrantzitsua den gizarte eragileen ekimena eta lan boluntarioa errekonozitu ondoren, azterketa honek garbi erakusten du euskara euskal ekonomiaren jarduera-sektore bat gehiago dela; herri-administrazioetatik bideratutako jarduera publikoaz gain, euskarak badu merkatu gero eta zabalago bat, badago euskararen industria bat eta euskararekin lotura estua duten merkatu pribatuko jarduera horiek, euskal ekonomian enplegua sortzen duten jarduera-sektoreak dira. Sektorre jakin batek herrialde baten ekonomian duen pisua neurtzeko aldagai makroekonomiko erabilienak enplegua, Balio Erantsi Gordina (BEG), Ekoizpen Balioa (EB) eta Barne Produktu Gordina



(BPG) izanik, euskara-sektoreei dagozkien aldagai horien balioak ezagutu eta EAEko datu orokorrekin alderatzea izan da ikerlan honen azken emaitza.

0.2/ Azterketa-eremuaren sektoreak

Ikerlanaren lau jarduera-sektore nagusiak: hizkuntzaren industria; euskarazko kultura eta hedabideen industria; euskarazko hezkuntza; eta, administrazio publikoaren euskara eta euskal kultura sustatzeko zerbitzuak.

EAEko herri-administrazioek euskararen eta euskal kulturaren sustapenerako dituzten egitura eta zerbitzuez gain, ekonomia pribatuko euskara-sektoreen jardueretatik sortutako enplegua eta balio erantsia ere kontuan hartu beharra dago euskarak, sektore ekonomiko gisa, EAEko ekonomian duen garrantzia neurtzerakoan. Azterketa ekonomiko hau egiterakoan lau hizkuntza-sektore nagusi bereizi dira, horietatik bi, ekonomia pribatukoak kontsidera daitezkeenak (hizkuntzaren industria eta euskal kultura eta hedabideen industria), bat administrazio publikoari lotua eta laugarren bat, izaera mistoa izango lukeena, hau da, izaera publiko eta pribatuko erakundeak ere biltzen dituen (hezkuntza eta unibertsitatea):

- Hizkuntzaren industria: euskararen irakaskuntza, itzulpengintza eta interpretazioa, hizkuntza-aholkularitza, euskararen corpusaren lanketa eta zabalpena eta hizkuntza teknologien alorreko jarduera-sektoreak biltzen ditu lehen sektore honek. Jarduera guzti hauetan hizkuntza bera da jardueraren xedea; euskara landu, irakatsi, erabili edota zabaltzera bideratutako produktu eta zerbitzuak eskaintzen dituzten enpresa, elkarte eta erakundeez osatua.
- Kultura eta hedabideen industria: euskara berezkoa duten edota euskara ezinbesteko bitartekoa duten kultur sektoreak; sektore horiek dira, euskarazko liburu eta musikagintzaren industria, euskarazko ikus-entzunezkoak, arte eszenikoak, bertsoarritza, euskarazko hedabideak, euskara elkarteak eta komunikazioa, kultura eta gizarte arloko bestelako eragileak.
- Hezkuntza eta unibertsitate arloko jarduerak: hezkuntza-jarduerarako hizkuntza ezinbesteko bitarteko izanik, hizkuntzaren transmisio eta erabilpenerako hezkuntza sistemaren garrantzia berebizikoa izanik eta EAEko hezkuntza sistema euskalduntzeko administrazio publikoak egin duen ahalegina ere kontuan harturik, haur eta lehen hezkuntzatik hasi eta unibertsitateko ikasmailetaraino, euskaraz



egiten den irakaskuntza-jardueraren enplegua eta bestelako aldagai ekonomikoak kalkulatu dira.

- Administrazio publikoa: euskararen sustapeneko herri-administrazioen egitura eta zerbitzuetako enpleguaz gain, kulturaren industriak EAEn duen bolumenarekiko euskarazkoak duen pisuaren arabera, herri administrazioetako kultura arloetako enpleguaren zati bat ere kontuan hartu da laugarren sektore honen barnean.

0.3/ Euskarari loturiko jarduera-sektorekoa izateko erabilitako irizpideak

Ikerketa honek ez du euskaraz garatzen diren zerbitzu eta jardueren eragin ekonomikoa neurtzen, hizkuntzari hertsiki lotuak dauden jarduera-sektoreena baizik.

Azterlan honetarako kontuan hartu diren aurreko lau hizkuntza sektore horien arabera, euskara beraren sustapena eta erabilerari lotutako zerbitzu eta jardueraz aparte sektore ekonomikoak sartzerakoan (kulturaren industria eta hezkuntza arloa), bi irizpide jarraitu dira zein jarduera euskara-sektore gisa kontsideratu edo ez erabakitzeko; alde batetik hizkuntzari hertsiki lotua dagoen produktua edo zerbitzua izatea, bestetik berriz, hizkuntza jarduera edo produktuaren ezinbesteko edo berezko bitartekoa izanda, hizkuntza hori euskara izatea.

0.4/ Eragin zuzena, zeharkakoa eta induzitua

Eragin ekonomikoa: zuzena, zeharkakoa eta induzitua.

Sektore batek herrialde bateko ekonomian duen inpaktu edo eragin ekonomikoa neurtzeko azterlan ekonomikoetan, zuzeneko eragina, zeharkakoa eta induzitua ere kontuan hartzen da; horrelaxe egin da euskara-sektoreei dagokien honetan ere. Euskarari lotutako jarduera-sektoreetan enplegatutako langile eta zuzeneko jarduera ekonomikoaren datuak kalkulatu dira lehenik. Euskara-sektore horiek beste sektoreetakoak diren EAEko enpresetatik hornitzen diren neurrian, euskara-sektoreen ekoizpenak beste sektoreen ekoizpenean ere eragiten duenez, zeharkako eragin ekonomiko bat ere sorrarazten dute. Hirugarrenik, eragin induzitua kalkulatu da, hau da, zuzeneko eta zeharkako enpleguari dagozkion errentetatik eratorritako kontsumoa eta kontsumo horrek EAEko ekonomia produktiboan duen eragina.




0.5/ Metodologia urratsak

Lanerako metodologia: ikerlan honetarako Siadecok egindako zuzeneko informazio bilketaren emaitzak, Eustatetik lortutako datu ekonomikoekin gurutzatuz kalkulatu dira eragin ekonomikoaren magnitude ekonomikoak.

Azterketa ekonomiko hau egiteko erabilitako metodologia eta egindako ibilbidearen urrats nagusienak, honakoak izan dira:

I. Urratsa: Hizkuntza sektoreak eta azpi-sektoreak definitu. 4 hizkuntza-sektore orokor eta 20 azpi-sektore.





- 2. Urratsa:** Lanerako unibertsoa definitu; sektore eta azpi-sektore bakoitzeko enpresa, elkarte eta erakundeen gidazerrenda osatu.

EUSTATen 2014ko Jarduera Ekonomikoen Gidazerrendatik abiatuta, azterlan honen jarduera-eremukoak diren establezimenduen zerrenda osatu da, guztira 10.195 establezimendu. Jarraian zerrenda hori osatu egin da informazio iturri ezberdinetara joaz eta hasierako zerrendan jaso gabe zeuden 309 establezimendu gehitu dira; azterketa honetarako osatu den datu-oinarriak guztira 10.504 erregistro ditu.

- 3. Urratsa:** Jarduera-adarrak, euskarari inputatu beharreko enpleguaren arabera sailkatu.

Jarduera-adar batzuetako enplegua oso osorik euskarari lotua dagoen bezala, adibidez euskaltegietakoa, beste jarduera-adar batzuetako enpleguaren zati bat bakarrik inputatu zaio euskarari, adibidez Hizkuntza Eskola Ofizialen kasuan edo itzulpengintza sektoreko enpresa eta langile autonomoen kasuan.

- 4. Urratsa:** Sektorekako azterlan eta informazio iturrietako datuen azterketa.

Azpi-sektore eta jarduera-adarren arabeko azterlan eta informazio iturriak erabiliz, datu ekonomikoak, enpleguari buruzko informazioa eta euskarari inputatu beharreko enplegua estimatzeko datu ahalik eta gehien eskuratu da.

- 5. Urratsa:** Enplegua eta euskarari dagokion ekoizpen balioa ezagutzeko zuzeneko datu bilketa eta inkesta enpresetan.

Zeharkako informazio iturriak erabiliz euskarari inputatu beharreko enplegua estimatzeko daturik lortu ez den sektoreetako enpresetan inkesta bat egin da. Guztira 336 establezimenduz osatutako lagin estrategiko bati zuzendutako galdeketa prozesua bideratu da.

- 6. Urratsa:** Jarduera-adar bakoitzeko enpleguari aplikatu beharreko euskara-koefizienteak kalkulatu.

Alde batetik enpresetan egindako inkestaren emaitzak erabilia, eta bestetik, lehendik jasotako sektorekako datu ekonomikoak eta euskarazko ekoizpen-mailari buruzkoak ere erabilia, jarduera-adar bakoitzean aplikatu beharreko euskara-koefizienteak kalkulatu dira. Euskara-koefizienteak adierazten du, jarduera-adar bakoitzean enplegatutako langile guztietatik zein portzentaje dagokion euskarari.

- 7. Urratsa:** Euskarari dagokion enplegua kalkulatu.

Jarduera-adar bakoitzean kokatutako enpresa, elkarte eta erakundeen guztirako enpleguaren datua, aurrez kalkulaturako euskara koefizientearekin biderkatu ondoren, euskararen zuzeneko enplegua kalkulatu da.



8. Urratsa: Euskararen balio ekonomikoaren makromagnitude ekonomikoen kalkuluak egin.

Euskararen zuzeneko enplegua behin ezagutu ondoren eta EUSTATetik eskuratutako Zerbitzuen Inkestako datu ekonomikoen ratioak erabiliz, euskararen balio eta dimentsio ekonomikoa adierazten duten aldagaiak kalkulatu dira: euskara-sektoreei dagokien enplegua, soldata ordainketak, Balio Erantsi Gordina eta fakturazioa.

9. Urratsa: Euskara-sektoreen zeharkako eragin ekonomikoa neurtu.


EUSTATen EAE mailako Input/Output tauletako koefiziente teknikoak aplikatuz eta euskararen jarduera-adarretarako kalkulaturako zuzeneko enplegua oinarri hartuta, jarduera-adar horietako enpresek sektore berean eta beste sektoreetan egindako gastu eta inbertsioak kalkulatu dira; gastu eta inbertsio horiek euskara-sektoreen zeharkako eragin ekonomiko gisa kontsideratu dira.

10. Urratsa: Eragin induzitua kalkulatu.

Kasu honetan Input/Output tauletako informazio sisteman oinarria duten Leontieff koefizienteak erabili dira inpaktu induzitu hori kalkulatzeko. Euskararen zuzeneko eta zeharkako enpleguak sortzen dituen errentak eta errenta horietatik eratorritako kontsumoak EAEko sektore ekonomikoen azken eskarian duen eraginaren arabera da eragin induzitu hori.

11. Urratsa: Euskarak sektore ekonomiko gisa EAEko Barne Produktu Gordinean duen pisua kalkulatu.

Euskara-sektoreen eragin zuzena, zeharkakoa eta induzituaren guztirako Balio Erantsi Gordinari produktuen gaineko zerga garbiak erantsi ondoren, EAEko Barne Produktu Gordinaren zenbateko osotik euskara-sektoreei dagokiena zenbat den kalkulatu da. Produktuen gaineko zerga garbiak zenbat diren kalkulatzeko, lehendabizi Balio Erantsi Gordinaren gaineko zergarengatik ordaindu beharrekoa kalkulatu da (produktu edo zerbitzu-mota bakoitzari dagokion BEZ tipoaren arabera), eta ondoren, herri-administrazioek euskararen sustapenerako eta euskarazko kultura sustatzeko emandako diru-laguntzen zenbatekoa kendu da.





0.6/ Azken emaitzak

Euskararen balio eta dimentsio ekonomikoari buruzko emaitzek erakusten dutenez, euskara-sektoreen ekarpena garrantzitsua da euskal ekonomian. EAeko ekonomiak sortzen duen enpleguaren %6,3 eta Balio Erantsi Gordinaren %4,5 euskarari lotua dago. Sektorre ekonomiko gisa, erkidegoko Barne Produktu Gordinaren %4,2 dagokio euskarari eta turismo sektoreak (BPGren %5,8) euskal ekonomian duen pisura hurbiltzen da.

► Hizkuntzaren industria

Hizkuntzaren industriakoak kontsideratutako enpresa eta erakundeen zuzeneko enpleguari erreparatuta, guztira 2.500 laguneko enplegua sortzen dute lehen euskara-sektore honetako jarduerak; gehienak euskaltegietako langileak (1.316) eta itzulpengintza sektorekoak (485) dira. Hizkuntzaren industrian euskarari loturiko lan eta zerbitzuen urteko fakturazio bolumena, 136 milioi euro pasatxo da urtean eta 107 milioitako Balio Erantsi Gordina produzitzen dute. Kontuan hartu behar da datu ekonomiko horiek ez direla hizkuntzaren industria osoarenak, euskarari lotua dagoen jarduera ekonomikoarenak bakarrik baizik.

► Kultura eta hedabideen industria

Euskal kulturgintza eta hedabideen alorrean euskarari lotua dagoen zuzeneko enplegua guztira 4.550 izatera iristen da. Bigarren euskara-sektore honek urtean 407 milioi euro inguru mugitzen ditu. Euskara-enplegu handiena duten jarduerak honakoak dira: kultura, aisialdi eta gizarte arloko zerbitzuetako elkarte eta enpresak (764 enplegu); komunikazioa eta publizitatearen arloko enpresak (627 enplegu), kultur sortzaile autonomoak (616 enplegu). Euskarazko kultura eta hedabideen arloak urtean 227 milioi euroko Balio Erantsi Gordina sortzen du.



► Hezkuntza eta unibertsitate arloko jarduerak

Euskarazko hezkuntza-sistema osoaren eta euskarazko unibertsitate eta bestelako hezkuntza jardueren guztirako aldagai ekonomikoak ikaragarri altuak dira; egin kontu, unibertsitate aurreko irakaskuntza arautuan, haur hezkuntzatik hasi eta batxilergo edo lanbide heziketako ikasketak amaitu arterainoko euskarazko irakats maila guztietarako estimatutako enplegua 31 mila lagunekoa dela; kopuru horri ondoren, unibertsitatean euskaraz eskaintzen diren kredituei lotutako enplegua erantsi behar zaio, beste 3 mila lagun.

Guztira 34 mila lagun enplegatzen ditu euskarazko irakaskuntza sistemak, 20 mila inguru Haur eta Lehen Hezkuntzan, 11 mila inguru Bigarren Hezkuntzan (Batxilergoa eta Lanbide Heziketak barne) eta Unibertsitate mailako ikasketetan beste 3 mila.

► Administrazio publikoa

Herri-administrazioek euskararen sustapenerako dituzten giza baliabide eta ipinitako diru baliabideen Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzaren ikerlaneko datuak erabiliz, administrazioko enplegatu izanik euskara zerbitzu eta arloetan lan egiten dutenen enplegua 716 da. Ondoren, Eusko Jaurlaritzako Kulturaren Euskal Behatokiaren ikerlana oinarri hartuta, administrazio publikoan kultura alorrean lan egiten dutenen zati bat ere kontuan hartu da ikerketa honetarako, kultur sektore bakoitzean euskaraz sortu edo zabaldutako kulturak duen pisuaren arabera. Herri administrazioen kultura enplegutik euskarari inputatu beharreko enplegua 795 lagunekoa dela estimatu da. Guztira beraz, 1.511 enplegu sortzen ditu euskara administrazio publikoaren arloan.

► Euskararen dimentsio ekonomikoa

Azterlan honetako lau euskara-sektoreetarako kalkulaturako datu ekonomikoen baturak, euskararen balio edo dimentsio ekonomikoa zenbatekoa den erakusten digu. Euskara-



sektoreek guztira ia 43 mila enplegu sortzen dituzte (enplegu zuzenak) eta ia 1.900 miloi euroko Balio Erantsi Gordina urtean.

Euskal Autonomia Erkidegoko ekonomiak orotara 894 mila laguneko enplegua sortzen du eta euskararekin lotura duten jarduera-sektoreen zuzeneko enplegua 42.700 izanik, enpleguan euskarak EAEko enplegu guztiaren %4,78 ordezkatzen du (zuzeneko enplegua bakarrik kontuan hartuta). Enplegu zuzenaren ia %80 Hezkuntza sektoreari dagokio, kultura eta hedabideen industriaren sektoreak sortzen du euskara-enpleguaren %10 inguru, hizkuntzaren industriak ia %6 eta gainerako %4a administrazio publikoaren zuzeneko enpleguari dagokiona da.

61 mila milioi euro ingurukoa da EAEko ekonomiaren urteko Balio Erantsi Gordina; euskararen ekonomiarena ia 1.900 miloi eurokoa izanik, euskarak EAEko Balio Erantsi Gordinarekiko duen pisua %3,07 da (zuzeneko eragina bakarrik kontuan hartuta).

► Zeharkako eragina eta eragin induzitua

Euskara-sektoreek zuzenean sortutako enplegua eta Balio Erantsi Gordinaren datuetatik abiatuta, eta Eustaten EAEko Input-Output tauletako koefiziente teknikoak eta Leontieff koefizienteak aplikatuta, euskararen zeharkako eragina eta eragin induzituaren datu ekonomikoak kalkulatu dira.

Euskara-sektoreen jarduera ekonomikoek beste sektoreetan, zeharka, 3.748 lanpostu sortzen dituztela estimatu da. Horrez gain, euskararen zuzeneko enplegua (42.724) eta zeharkakoari (3.748) dagozkion errentetatik sortutako kontsumo eta eskariak eragindako efektu ekonomiko induzituak, EAEko ekonomia produktiboan beste 9.670 enplegu ere sortzen ditu (eragin induzituaren enplegua).

Balio Erantsi Gordinean berriz, euskara-sektoreek transakzio ekonomikoak egiten dituzten beste jarduera-sektoreen Balio Erantsi Gordinetik urtean 233 milioi euro dira euskarari dagozkionak (zeharkako eragina); eragin induzituaren BEG ia 651 milioi euro izango litzateke.

► Euskararen ekarpena euskal ekonomian

Euskara-sektoreen eragin zuzena, zeharkakoa eta induzituaren azken emaitza makroekonomikoak honakoak dira:

- **Enplegua:** Euskal ekonomiako enplegu osoaren %6,28 euskara-sektoreek sortua da; EAEko enplegu osoa 893.952 da eta euskararena, enplegu zuzena,




zeharkakoa eta induzitua ere kontuan hartuta, 56.142. Kopuru horretatik ia 43 mila lanpostu, euskararen jarduerak zuzenean sortutakoak dira, 4 mila eskas zeharkako eraginari dagozkionak eta beste ia 10 mila eragin induzituarenak.

- **Balio Erantsi Gordina:** EAEko ekonomiaren Balio Erantsi Gordinaren %4,5 euskararekin lotura duten jarduera-ekonomikoei lotua dago; ia 61 mila miloi eurokoa da (60.875.938 mila €) EAEko BEG guztira eta euskara-sektoreena berriz, 2.751 miloi euro (2.751.093 mila €).
- **Barne Produktu Gordina:** EAEko Barne Produktu Gordinaren %4,19 euskararekin zuzenean eta zeharka loturaren bat duten sektore ekonomikoei dagokie. 66.775.970 mila euro EAEren BPG guztira (2012 urtea) eta euskarari dagokiona 2.800.634 mila euro.

Aurreko aldagai makroekonomikoak ikusita, ondoriozta daiteke euskarak zuzenean eta zeharka sortzen duen ekonomiaren datuak esanguratsuak direla eta euskararen balioa termino ekonomikoetan ere handia dela. Administrazioari lotuak dauden enplegu eta baliabideez aparte, euskararen inguruan lan egiten duten sektore-ekonomikoei enplegu asko eta balio erantsia handia sortzen dute.

Eustatek eskainitako datuen arabera eta beste sektoreen garrantzia ekonomikoa euskararenarekin alderatu nahian, EAEen guztira egiten den I+G+b gastuaren gaineratik (BPGren %2,12) eta turismo sektorearen zertxobait azpitik (BPGren %5,8) kokatzen da euskara (%4,19).



I. IKUSPEGI OROKORRA



I.1/ Hizkuntzen eragin ekonomikoa

Jarduera-ekonomiko guztietan erabiltzen da hizkuntza, komunikaziorako ezinbesteko bitartekoa baita; ekoizpen, promozio, zabalpen edota komertzializazio prozesu guztietan behar da hizkuntza bat edo gehiago, lana antolatzeko, ondasunak sortu eta trukatzeko, zerbitzuak eskaintzeko. Ikuspegi horretatik, pertsona, enpresa eta erakundeen arteko harreman guztietarako behar da hizkuntza eta bitarteko hori gabeko jarduera ekonomikorik ez da posible.

Azterlan hau ez da ordea ikuspegi horrekin egin; azterlan hau, termino ekonomikoetan euskararen balioa kuantifikatu eta EAEko ekonomiaren jarduera produktiboan euskarak egiten duen ekarpena ezagutzeko egin da; euskarak sektore produktibo gisa sortzen duen aberastasun ekonomikoa eta EAEko ekonomian duen eragina neurtu nahi izan da.

I.2/ Euskararen berezitasunak

Gaztelera eta nazioartekoak diren beste hizkuntza indartsuekin alderatuta, eragin ekonomikoa neurtzeko azterlan baten aurrean, kontuan hartu beharreko berezitasunak baditu euskarak. Euskarak EAEko ekonomian duen garrantzia eta pisua ebaluatzerakoan, ohiko ikuspegia aplikatu eta hizkuntzen industriari lotutako sektoreetara, alegia hizkuntza bera produktu den sektoreetara bakarrik mugatutako azterlan batean ezin gera gaitetzke. Euskararen normalizazio bidean herri administrazioek ipinitako baliabideak kontuan izan behar dira batetik, eta bestetik berriz, euskarari lotutako produktu eta zerbitzuen merkatua zabalduz joan da azken urteetan; euskarazko produktuen ekoizpena handitu egin da komunikabideen alorrean, edota kultur produkzioan esaterako; azpimarragarria bestalde, irakaskuntza sistema euskalduntzeko egindako ahalegina. Ondorioz, hizkuntzaren industrian euskarari dagokion zatiaz gain, euskarazko kultura eta hedabideen arloko sektoreak, hezkuntza sistema bera eta administrazio publikoaren euskara arloko enplegua eta kultura alorrekoaren zati bat ere kontuan hartu dira euskararen EAEko dimentsio ekonomikoa kuantifikatzerakoan.



I.3/ Euskarari lotu beharreko sektoreen definizioa

I.3.1/ Kontsiderazio orokorrak

Zein jardura ekonomikok duen hizkuntzarekin zuzeneko lotura, aspektu hori kontzeptualki ongi definitzea izan da lehen egiteko garrantzitsua. Izan ere eta aurrez aipatu bezala, edozein jardura ekonomikok edo merkaturatzen den edozein produktuk du hizkuntzaren beharra, ekoizpen kateko elementuen arteko komunikaziorako edo merkaturatze fase ezberdinetarako.

Beste muturra berriz, hizkuntzaren industriara bakarrik mugatzea izango litzateke, hau da, hizkuntzaren corpusa eta estatusa garatzeari loturiko jardura ekonomikoak soilik kontuan hartzea (zerbitzu linguistikoak, hizkuntza irakaskuntza, hizkuntza teknologiak, hizkuntza helburu duten edizio lanak, eta abar).

Aurreko bi planteamenduen tartean kokatuko litzateke azterlan honen lanerako unibertsoa mugatzeko erabilitako ikuspegia. Ikuspegi hori aplikatuta, hizkuntzarekin lotura estua duten produktu eta zerbitzu-sektoreak identifikatu ditugu, alegia, hizkuntza ezinbesteko bitarteko edo hizkuntza berezkoa duten jardura-adarrak.

Produktu eta zerbitzuek hizkuntzarekiko duten lotura-maila definitze eta mugatze lanak hala ere, zailtasun handiak erakusten ditu, ikuspegi eta irizpide ezberdinak erabil daitezke eta amaierarik gabeko eztabaida iturri ere izan daiteke.

I.3.2/ Sektoreen sailkapenerako irizpideak

Hizkuntzak betetzen duen funtzioaren arabera edo euskarari lotutako sektoreetako promotoreen izaera publiko edo pribatuaren arabera sailkatu daitezke euskarari lotutako jarduerak.



► **Hizkuntza-funtzioen arabera:**

Izaera publiko nahiz pribatuko, enpresa, elkarte nahiz erakundeen jarduerak hizkuntzarekin duten lotura-mailaren lehen sailkapen bat, hizkuntzak, jardura horietan betetzen dituen funtzioen arabera izan daiteke:

- ◆ Hizkuntza jardueraren xede: Hizkuntza beraren garapena eta hedapena helburu duten jardura eta zerbitzuak dira; hizkuntzari hertsiki lotuak dauden zerbitzu eta jardura ekonomikoak, hizkuntzaren industria gisa kontsideratutakoak: hizkuntza irakaskuntza, itzulpengintza eta interpretazioa, hizkuntza zerbitzuak eta aholkularitza, corpusaren lanketa eta hizkuntza teknologien garapena.
- ◆ Hizkuntza jardura ekonomikoaren funtsezko bitarteko: hizkuntza ezinbesteko inputa edo bitartekoa den jardura, zerbitzu eta produktuekin loturiko sektoreak dira; batik bat hizkuntzaren erabileratik sortu eta ekoizitako produktuak: liburua eta musikaren industria, ikus-entzunezkoak, arte eszenikoak, bertsolaritza, hedabideak, komunikazioa eta publizitatea, bestelako hainbat kultur eta gizarte jardura. Kultur sektoreei loturiko jardura horiez gain, hezkuntzaren alorra ere multzo honetan kokatu beharko litzateke.

► **Sustatzaileen izaera publiko edo pribatuaren arabera:**

- ◆ Herri-administrazioen jarduerak: EAEko erakunde publikoen hizkuntza, hezkuntza eta kulturaren alorretako baliabideak.
- ◆ Gizarte erakundeen jarduerak: nagusiki euskara, kultura eta aisialdiko irabazi asmorik gabeko gizarte erakundeek egiten dituztenak.
- ◆ Enpresen jarduerak: nagusiki, hizkuntza, hezkuntza eta kultur sektoreetakoak diren jardura ekonomikoak dituztenak.

1.3.3/ Sektore eta azpi-sektoreen deskribapen orokorra

Euskararen dimentsio ekonomikoa neurtu edota eragin ekonomikorako kalkuluak egiterakoan, zein jardura-adar kontuan hartu eta jardura horien sailkapena nola egin zehaztu dugu atal honetan. Sailkapen hori, lau sektore orokor eta horietako bakoitzean biltzen diren azpi-sektoreei lotua dago. Edonola ere, EAEko ekonomiari dagozkion magnitude makroekonomiko orokorren parean, euskarari loturiko sektoreenak zein diren jakiterakoan, hau da, enplegua edo EAEko Barne Produktu Gordinarekiko pisuaren zenbatekoa, ofizialak diren estatistiketako

sektore eta jarduera-adarretako datuak ere erabili behar dira; ondorioz, eragin ekonomikoaren azken emaitzak kalkulatzeko, erkatu egin behar izan dira, azterlan honetarako berariaz definitutako sailkapeneko sektore eta azpi-sektoreak, EAEko magnitude ekonomikoak ematen dituzten eragiketa estatistikoetako sektore edo jarduera-adarrekin.

Ikus dezagun orain, azterlan honetarako definitu ditugun sektore eta azpi-sektoreak zein diren:

◆ I. Sektorea – Hizkuntzaren “industria”:

Hizkuntzaren corpusa edo alderdi linguistikoa landu eta zabaltzera bideratuak dauden jarduera-sektore guztiak bilduko genituzke lehen sektore honetara. Hizkuntzen ikasketa, erabilera eta tratamendurako produktu eta zerbitzuen diseinu, ekoizpen eta komertzializazioari lotuak dauden jarduerak dira; euskararen industriari dagokionean, lehen sektore honen barnean ondoko azpi-sektoreak bereizi ditugu:

- I.1. Hizkuntzen irakaskuntza ez arautua: euskaltegiak, Hizkuntza Eskola Ofizialak eta hizkuntza akademiak.
- I.2. Itzulpengintza eta interpretazioa: zerbitzu-enpresak eta langile autonomoak.
- I.3. Hizkuntza zerbitzuak eta aholkularitza: euskara planen diseinu eta inplementaziorako aholkularitza zerbitzuak.
- I.4. Euskararen corpusaren lanketa eta zabalpena: hizkuntzaren arauketa, hiztegigintza, lexikoa eta terminologiaren alorra.
- I.5. Hizkuntza-teknologiaren garapena eta zabalpena: hiztegi elektronikoak, hizkuntza prozesadoreak, hizkuntza zuzentzaileak, itzulpen lanetarako softwareak, euskara ikasteko nahiz erabiltzeko aplikazioak, web teknologiak, eta abar.

◆ II. Sektorea – Kultura eta hedabideen industria:

Bigarren multzo honi lotutako jardueretan, hizkuntza, produktuaren ekoizpenari zuzenean lotua dagoela kontsideratu dugu; hizkuntza ez da jardueraren xede, lehen sektoreko jardueretan bezala, baina bai ezinbesteko elementu. Adibiderik argiena liburua eta antzeko produktuena da, non hitzaren bitartez sortzen diren produktuak diren. Bigarren sektore honen azpi-sektoreak asko dira:

- II.1. Liburugintza: argitaletxeak, liburu-dendak eta liburutegi- zerbitzuak.
- II.2. Musika: diskoetxeak, disko-saltokiak eta musika sustatzaile eta programatzaileak.
- II.3. Kultur sortzaile autonomoak: idazleak, musikariak eta artea eta kulturaren alorreko bestelako ekoizle autonomoak.



- II.4. Ikus-entzunezkoen industria: zinema, dokumental, publizitate edo telebista saioen ekoizleak, irrati saioen ekoizleak eta bestelako ekoizleak; eta zinema aretoak.
- II.5. Arte eszenikoak: antzerki eta dantza ekoizleak eta programatzaileak.
- II.6. Bertsolaritza: bertsolaritzaren arloko elkarte eta erakundeak.
- II.7. Hedabideak: egunkariak, aldizkariak, irratiak, telebistak, internet eta berri-agentziak.
- II.8. Euskara elkarteak.
- II.9. Komunikazioa, kultura eta gizarte arloko bestelako elkarte eta enpresak: kultura, aisialdi eta gizarte gaietako bestelako elkarte eta enpresak; komunikazio eta publizitate zerbitzuen enpresak; internet zerbitzuak; eta dokumentazio zentroak eta unibertsitatearekin loturarik ez duten bestelako ikerketa zentroak.

◆ III. Sektorea – Hezkuntza eta unibertsitate arloko jarduerak:

Euskararen ezagutza eta transmisioaren zutaberi nagusia da hezkuntza sistema Euskal Autonomia Erkidegoan. Ikasmaita eta ikasketa-adarren arabera, aldakorra da hezkuntza eta unibertsitate alorreko jarduerak euskararekin duten lotura maila; aldagai horiek eta beste batzuk ere kontuan hartuta, hezkuntza arautuaren eta unibertsitateen jardueran euskarari dagokion pisua estimatzeko kalkuluak egin dira. Hirugarren sektore honen azpi-sektoreak honakoak dira:

- III.1. Haur eta Lehen Hezkuntza: Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako euskarazko irakaskuntzaren enplegua estimatu da.
- III.2. Bigarren Hezkuntza: Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan, Batxilergoan, Lanbide Heziketan eta Hasierako lan-kualifikazio programetako euskarazko irakaskuntzaren enplegua.
- III.3. Unibertsitateko Hezkuntza: Euskal Herriko Unibertsitateko, Deustuko Unibertsitateko eta Mondragon Unibertsitateko euskarazko irakaskuntzaren enplegua estimatu da.
- III.4. Bestelako hezkuntza jarduerak: aurreko kategoriez aparte hezkuntza jarduera eta hezkuntza zentroen euskarari loturiko enplegua estimatu da, hezkuntza-motaren eta euskararekiko lotura-mailaren arabera, euskara-koefiziente ezberdinak aplikatuz.

◆ IV. Sektorea – Administrazio publikoa:

Aurreko hiru hizkuntza-sektoreetan eta bereziki euskarari lotua dagoen industrian, pisu handia du administrazio publikoak. Euskal Autonomia Erkidegoko herri administrazioek euskararen sustapenerako dituzten egituretako enplegua biltzen du laugarren sektore



honek; horrez gain, baita administrazio publikoko kultura arloetako enplegatu publikoen zati bat ere, kulturarako herri administrazioek egiten duten lanetik euskarazko kulturak duen pisuaren arabera kalkulatuta. Ondorioz, bi azpi-sektore bereizi dira:

IV.1. Herri administrazioen euskara arloetako baliabideak.

IV.2. Herri administrazioen eta menpeko erakunde autonomoen kultura arloetako baliabideak.

I.3.4/ Euskara-sektoreen jarduera ekonomikoa baloratzeko zailtasunak

Termino ekonomikoetan neurtu eta ebaluatu nahi dena zer den, euskarari loturiko errealitate ekonomikoa non hasi eta non amaitzen den mugaketa lan bat egin ondoren, sektore horien datu makroekonomikoak ematen dituzten estatistika eta informazio iturri ofizialetara jotzea da biderik azkarrena. Euskara-sektoreen datu ekonomikoak eskuratu eta dimentsio ekonomikoa kalkulatzek baditu hainbat zailtasun ordea:

- ◆ Lehenik, hizkuntzari loturiko produktu eta jarduera-adarren mugaketa eta sailkapen estandarizaturik ez dago; lan-eremuaren zehaztapena etereoa da oso, sektore ekonomikoen eta hizkuntzaren arteko lotura mailak interpretazio guztiz diferenteak izan baititzake; ondorioz, sektore ekonomiko eta produktuen aukeraketarako irizpideak zehaztu beharra izan da.
- ◆ Bigarrenik, produktu eta zerbitzuen hizkuntzarekiko lotura-maila ere aldakorra da; produktu baten ekoizpenean hizkuntza izan daiteke ezinbesteko baliabidea (liburu bat idazterakoan esate baterako), beste produktu batzuetan aldiz, hizkuntzarekin lotura bat izan arren, termino ekonomikoetan hizkuntzak duen garrantzia baxuagoa izan daiteke (musikaren industrian adibidez).
- ◆ Hirugarrenik, hizkuntzarekin lotura duten jarduera ekonomiko eta produktuen errealitate ekonomikoa jasotzera hurbiltzen den estatistika eragiketa ofizialik ez dago; egoera horren aurrean, informazio iturri ezberdinetara jo eta ikerlan honetarako berriazko landa-lan bat egin behar izan da.
- ◆ Laugarrenik, hizkuntzari loturiko jarduera ekonomikoetan euskarak beste hizkuntzekiko duen pisua ere haztatu behar izan da, eta horretarako, euskarari dagokion koefizientea kalkulatzera iritsi.



2. EUSKARA- SEKTOREETAKO ENDEGIA



2.1/ EAEko Jarduera Ekonomikoen Gidazerrenda (Eustat, 2014)

Hizkuntzari loturiko jarduera-sektoreen informazio ekonomikoa eskuratu ahal izateko, EAEko enpresen oinarriko datu ekonomikoak biltzen dituen Eustateko Jarduera Ekonomikoen Gidazerrendako (JEGID) datuak aztertzetik abiatu gara. Gidazerrenda hori, Euskal Autonomia Erkidegoko establezimendu guztien errolda da, urtero eguneratzen da eta herri-administrazioen datuak eta eragiketa estatistiko ezberdinetatik eskuratutako informazioarekin osatzen da; erabilitako datuak, Eustaten 2014ko Gidazerrendakoak dira.

Jarduera Ekonomikoen Gidazerrendako datuak, Jarduera Ekonomikoen Sailkapen Nazionalaren (JESN) arabera epigrafeen arabera antolatutakoak daude. Guztira bereizitako jarduera-adarrak, 629 dira (4 digituko koderekin) eta horietatik 51 jarduera-adar izan dira hizkuntzarekin loturaren bat duten aktibitate gisa aukeratutakoak. Hala ere kontuan izan behar da, Jarduera Ekonomikoen Gidazerrenda ofizial horrek ez dituela azterlan honen eremukoak diren zenbait aktibitate jasotzen, nagusiki euskararen sustapenarekin lotura dutenak (euskalgintzako gizarte erakundeak adibidez); jarduera-adar horietako datuak, zeharkako bestelako informazio iturriak erabiliz kalkulatu dira.

Bestalde kontuan hartu behar da baita ere, establezimendu berak zerbitzu edo produktu ezberdinak merkaturatu arren, establezimendu hori JEGID erroldako JESN epigrafe bakar batean agertzen dela; enpresa edo establezimenduaren jarduera nagusiaren arabera JESN epigrafe batean edo bestean kokatzen da; ondorioz, establezimendu batek hainbat jarduera-epigrafetakoak diren produktuak ekoiztu ditzake baina horietako bakar bat bakarrik izendatu zaio.



2.2/ Azterlanerako unibertsoaren zehaztapena: enpresa, elkarte eta erakundeen datu-oinarria osatu

4 sektore orokorretakoak eta horietako azpi-sektore bakoitzekoak diren enpresa, elkarte eta erakundeen zerrenda ahalik eta osatuena osatzen, berebiziko ahalegina egin da. Azpi-sektore bakoitzekoak diren enpresak banan banan identifikatu eta zerrendatu dira, iturri ezberdinetatik lortutako informazioarekin, azterlan honen abiapuntuko direktorioa edo datu-oinarria osatu ahal izateko, honako urratsak eman dira:

- Lehenbizi, Eustatetik eskuratutako Jarduera Ekonomikoen Gidazerrendan jasotako establezimendu bakoitza (guztira 16.519 establezimendu), azterlan honetarako definitutako sektore eta azpi-sektoreen arabera kokatu; alegia, hizkuntzari loturiko jarduera ekonomikoa dutenak, dagokion azpi-sektorera eraman eta, hizkuntza-sektoreekin lotura adierazgarririk ez dutenak albo batera utzi; lanketa hori egin ondoren, Eustateko abiapuntuko Gidazerrendako establezimenduen kopurua, 16.519tik 10.195era murriztu da.
- Bigarrenik, informazio iturri ezberdinetara jo eta azterlan honetako jarduera-sektoreetakoak izan eta lehendik jaso gabe zeuden enprekin osatu da Jarduera Ekonomikoen Gidazerrenda; erantsitako enpresa, elkarte edo erakundeak, guztira 309 izan dira. Abiapuntuko Jarduera Ekonomikoen Gidazerrendako eta euskararen azpi-sektore jakin batzuetako informazio eta datu ekonomikoei buruzko hutsuneen aurrean, elkarte eta erakunde ezberdinetara jo dugu eta haiekin elkarlanean arituta, hainbat azpi-sektoretako datu ekonomikoak eskuratu edota estimatzea lortu da.

Azterlan honen helburu berdinarekin, inpaktu ekonomikoa neurtzeko eginak dauden azterlan askotan, kontabilitate nazionalako eta magnitude ekonomikoei buruzko datuak ematen dituzten iturri estatistikoetara mugatutako metodologia erabili da, alegia, sektoreari dagozkion datu ekonomikoak erabiliz (enplegua edo fakturazioa), zuzeneko eragina kalkulatu bai, baina, sektore horretakoak diren enpresak identifikatu eta zerrendatzera iritsi gabe. Hutsuneak baditu ikerketa honetarako osatu dugun datu-oinarriak, baina hainbeste sektore kontuan hartu behar diren ikerketa hain zabal baterako, eraikitako datu-oinarriarekin, ikuspegi metodologikotik oinarri sendoak ditu azterlan honek, azpi-sektore bakoitzaren datu ekonomikoez ari garenean, zein eratako jarduera ekonomikoez eta nominalki zein enpresari buruz ari garen jakin daitekeelako.



2.3/ Jarduera ekonomikoen sailkapen ofiziala (JESN) eta hizkuntza-sektoreen arteko erkaketa

Ikerketa honetarako kontuan hartu diren 4 sektore eta 20 azpi-sektoreetako jarduerak, JESN sailkapeneko zein epigrafetan kokatuak dauden aztertu da jarraian. Jarduera Ekonomikoen Gidazerrendan abiapuntu modura aukeratutako JESN epigrafeetako establezimenduak zein diren begiratu ondoren, ikusi dugu:

- 1.- Ikerlan honetarako definitutako hizkuntza sektore eta azpi-sektoreen sailkapena ez datorrela bat JESN epigrafeekin.
- 2.- Azpi-sektore bereko establezimenduak JESN epigrafe bat baino gehiagotan kokatuak daudela Jarduera Ekonomikoen Gidazerrendan.
- 3.- JESN epigrafe bereko establezimenduak hizkuntza azpi-sektore ezberdinetakoak direla.
- 4.- Ikerlan honi dagozkion establezimendu, erakunde eta elkarte guztiak ez daudela Eustatetik eskuratutako Jarduera Ekonomikoen Gidazerrendan; ondorioz, eta aurrerago azaldu bezala, beste informazio iturrietara jo eta abiapuntuko JEGID zerrenda eguneratu edota osatu egin da.

2.4/ Jarduera-adar bakoitzari aplikatu beharreko euskara koefizientearen kalkulurako prozedura

kerlan honek biltzen dituen jarduera-adar batzuetako jarduera ekonomikoa ehuneko ehunean euskarari lotua dago: euskaltegiak, bertsoalaritza, euskara sustatzera bideratutako baliabideak eta abar. Hizkuntzari loturiko beste azpi-sektore askorena ordea, euskara eta beste hizkuntzei dagokiena ere bada: itzulpengintza, liburugintza, musikaren industria, hezkuntza, eta abar. Horrenbestez, hizkuntzari loturiko azpi-sektore eta jarduera-adar bakoitzean, jarduera osotasunean euskarari bakarrik lotu ezin denean, euskarari inputatu beharreko zatia eta enplegua kalkulatu behar izan da. Horretarako, zeharkako informazio iturrietako datuak erabili dira batetik, jarduera-sektorean euskarak duen presentzia-mailaren araberako estimazioak eginez; beste jarduera- adar askotako euskara koefizientea kalkulatzeko berriz, zuzeneko informazioa jasotzeko landa-lanak egin dira Siadecotik. Landa lan horretan, elkarte, enpresa nahiz erakunde bakoitzaren guztirako enplegutik, euskarari dagokiona estimatzeko datuak eskatu dira.

► Zeharkako informazio iturriak

Sektorekako informazioa jaso eta aztertzerakoan erabilitako informazio iturri nagusienak honakoak izan dira:

- Deustuko Unibertsitatea, Euskara eta Eleaniztasuneko Zuzendaritza, 2014-2015 ikasturtea
- EITB taldea - jarduera memoriak, 2015
- Euskadiko Editoreen Elkarte, 2012 (EAEko euskarazko argitalpenak)
- Euskal Herriko Bertsozale Elkarte, 2015 (ikerketa honetarako, bertsolaritzari buruz eginiko kalkulu ekonomikoak)
- Euskal Herriko Unibertsitatea, Euskara Errektoreordetza, 2014-2015 ikasturtea 2014-2015 ikasturtea
- Euskal Herriko Unibertsitateko Elebilab programa, 2015
- Euskal Herriko Unibertsitateko Euskara Institutua, 2015
- Eusko Jaurlaritza - EAEko liburutegi publikoen estatistika, 2002
- Eusko Jaurlaritza - Euskararen azpiegiturak datu oinarria, 2015
- Eusko Jaurlaritza - Hezkuntza sistemaren euskara eta gainerako irakasgaien ordukako banaketa, 2012-2013 ikasturtea
- Eusko Jaurlaritza - Hizkuntza Eskola Ofizialen datuak, 2013-2014 ikasturtea
- Eusko Jaurlaritza - Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza (diru-laguntza deialdietako onuradunen datuak), 2000tik 2014ra artekoak.
- Eusko Jaurlaritza - Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza - Euskararen aurrekontu eta baliabide publikoen estatistika 2012
- Eusko Jaurlaritza - Kulturaren Euskal Behatokia (EAEko Arte eta Kultura Industrien Estatistika 2011
- Eusko Jaurlaritza - Kulturaren Euskal Behatokia - Kultura gastu eta finantzaketaren estatistika, 2012
- Eustat, 2014 (Jarduera Ekonomikoen Gidazerrenda)
- Eustat, 2014 (Irakaskuntzaren estatistika)
- Eustat, 2012 (Zerbitzuetako Inkesta eta ikerketa honetarako Eustatek landutako datu ekonomikoak)
- HABE (euskaltegi publiko eta pribatuetako 2013-2014 ikasturteko enplegua)
- Langune, 2014
- Mondragon Unibertsitatea, 2014-2015 ikasturtea
- Topagunea - Euskara Elkarten Federazioa, 2007 (euskara elkarten enplegua eta aurrekontuak)

► Zuzeneko datu bilketa

Jarduera-adar bakoitzeko elkarte edo enpresa handienekin osatutako lagin estrategikoak erabiliz, euskara koefizientea kalkulatu ahal izateko kontsultatu diren jarduera-sektoreak berriz, honakoak izan dira:

I. Taula: Enpresetan egindako inkestaren lagina, jarduera-adarrari jarraiki

Sektorea	Azpi-sektorea	Jarduera-mota	Inkestatutako establezi- mendu kopurua	Laginaren pisua jarduera- motako enplegu osoarekiko (%)
I. Hizkuntzaren industria	Hizkuntzen irakaskuntza ez-arautua	Hizkuntza akademiak	23	19,6
	Itzulpengintza	Itzulpen zerbitzu enpresak	26	65,8
	Hizkuntza teknologien garapena		9	98,4
II. Kultura eta hedabideen industria	Musika	Musika sustatzaileak eta programatzaileak	15	78,0
	Ikus-entzunezkoen industria	Zinema, dokumental, publizitate, telebista saio, irrati saio, IKT eta bideo ekoizleak	26	14,3
	Hedabideak	Egunkari eta aldizkarien argitalpena, irrati eta telebista zerbitzuak, internet eta berri agentziak	97	86,4
	Komunikazioa, kultura eta gizarte arloko bestelako elkarte eta enpresak	Kultura, aisialdi eta gizarte gaitako bestelako elkarte eta enpresak	72	62,9
		Komunikazio eta publizitate zerbitzuak	26	15,2
		Internet zerbitzuak	15	49,0
IV. Hezkuntza eta unibertsitate arloko jarduerak	Bestelako hezkuntza jarduerak	27	2,0	
GUZTIRA			336	24,3

Iturria: Siadeco, 2015.



2.5/ Lanerako unibertsoa eta euskarari dagokion enplegua kalkulatzeko erabilitako prozeduraren emaitzak

Aurrez azaldutako metodologiarekin kalkulaturako datuen emaitzak biltzen dituzte ondoko taulek. Azpi-sektore edo jarduera-adarraren arabera, informazio iturri ezberdinetara jo da eta euskarari dagokion enplegua estimatzeko prozeduran ere, badaude aldeak sektore batetik bestera. Jarduera-adar bakoitzerako, ahalik eta informazio gehien eskuratu eta informazio horretatik abiatuta, euskararen enplegua estimatzera iristeko irizpideak ezarri dira; sektorearen ezaugarri eta lortutako informazioaren arabera, irizpide eta kalkulurako prozedura egokitu egin da, azpi-sektore eta jarduera-adar bakoitzean.

Jarraian erantsi ditugun taulek, azterlan honetako azpi-sektore eta jarduera-adar bakoitzerako, honako informazioa erakusten dute:

- ◆ Zein informazio iturritara jo den azpi-sektore bakoitzeko enpleguari buruzko datua estimatu ahal izateko:
 - Oro har, Jarduera Ekonomikoen Gidazerrendako datuak, establezimendu kopurua eta enpleguari buruzkoak. Enpleguari dagokionean, Gidazerrendan zehaztutako enplegu tartei ondorengo balioak ezarri dizkiegu:
 - 1 (0-2 enplegu tarte): 1,5 enplegu
 - 2 (3-5 tarte): 4 enplegu
 - 3 (6-9 tarte): 7,5 enplegu
 - 4 (10-14 tarte): 12 enplegu
 - 5 (15-19 tarte): 17 enplegu
 - 6 (20-49 tarte): 34,5 enplegu
 - 7 (50-99 tarte): 74,5 enplegu
 - 8 (100-249 tarte): 174,5 enplegu
 - 9 (250-499 tarte): 374,5 enplegu
 - 10 (≥ 500): 750 enplegu
 - Eustaten Gidazerrenda horretan jaso gabe egonik, ikerketa honetarako jarduera-adar bakoitzean gehitu dugun establezimendu kopurua.
 - Jarduera-adar bakoitzeko datu ekonomikoak eskuratzeko baliatutako bestelako informazio iturri sektorialak.
 - Euskarari inputatu beharreko enplegua estimatzeko eta beraz zein euskara koefiziente aplikatu zehazteko erabilitako informazioa: zeharkakoa edo Siadecok ikerlan honetarako egindako landa-lanetik lortutakoa.
 - Erreferentziatzko enplegua, hau da, jarduera-adar bakoitzean, euskararen enplegu gisa kontsideratu dugun zenbatekoa; zenbateko hori euskararen zuzeneko enplegua izango litzateke.



2.5.1/ Hizkuntzaren industria

Hizkuntzaren industriaren barnean ondoko 5 azpi-sektoreak bildu dira:

- Euskararen irakaskuntza (hezkuntza sistemaz kanpokoak): euskaltegiak, Hizkuntza Eskola Ofizialak eta hizkuntza akademiak.
- Itzulpen eta interpretazio lanak: enpresa eta langile autonomoenak.
- Hizkuntza zerbitzuak eta aholkularitza linguistikoa: euskara planen diseinu eta inplementaziorako aholkularitza zerbitzuak.
- Euskararen corpusa eta edukien garapena: hizkuntzaren arauketa, hiztegigintza, lexikoa eta terminologiaren alorra.
- Hizkuntza teknologiak: hiztegi elektronikoak, hizkuntza prozesadoreak, hizkuntza zuzentzaileak, itzulpen lanetarako softwareak, euskara ikasteko nahiz erabiltzeko aplikazioak, web teknologiak, eta abar.

Segidan, azpi-sektore eta jarduera-adar bakoitzaren euskara koefizientea eta euskara-enplegua kalkulatu eta estimatzeko erabilitako prozedura ageri da.

- ▶ I.1. Euskararen irakaskuntza (hezkuntza sistemaz kanpokoak): euskaltegiak, Hizkuntza Eskola Ofizialak eta hizkuntza akademiak.

Euskaltegiak

126 dira Gidazerrendan erregistratutako euskaltegiak (32 euskaltegi publiko eta 94 pribatu) eta horietan guztira 1.368 pertsona inguru daudela enplegatuta estimatzen da.

HABEtik eskuratutako datuen arabera berriz, 2013-2014 ikasturtean guztira 1.559 langile aritu ziren lanean, zehazki 451 euskaltegi publikoetan eta 1.108 pribatuetan. Langile horien % 81,5 dira irakasleak eta % 18,5 irakasle ez diren langileak (bulegariak, koordinatzaileak, etab.). Irakasleen % 64,9k lanaldi osoko jarduna izan zuten, % 22,3k egun erdikoa eta % 12,8 heren batekoa. Kopuru horiek lanaldi osora eramanda 1.316 enpleguko estimazioa egiten dugu 2013-2014 ikasturtean EAEko euskaltegiarako. Bestetik, langile horien pertsonal gastuak 46,3 milioi eurokoak izan ziren ikasturte horretan (20,2 milioi euro euskaltegi publikoetan eta 26,1 milioi euro euskaltegi pribatuetan).

2. taula: Euskaltegietakoen enplegua eta pertsonal gastuak, Eustateko Gidazerrenda eta HABEtik eskuratutako informazioari jarraiki

Azpi-sektorea	Jarduera-mota	Erakunde-mota	Informazio iturriak						Erreferentziako enplegua
			Jarduera Ekonomikoen Gidazerrenda (Eustat,2012)			HABE (2013-2014 ikasturtea)			
			JESN epigrafea	Establezimendu kop.	Enplegua	Langile kopurua (Irakasleak eta bestelakoak)	Enplegua (lanaldi osora)	Pertsonal gastuak (milioi €)	
I. I.- Euskararen irakaskuntza	Euskaltegiak	Euskaltegi publikoak	8552 8559	32	-	451	387	20,2	-
		Euskaltegi pribatuak	8532 8552 8559	94	-	1.108	929	26,1	-
	Guztira		126	1.368	1.559	1.316	46,3	1.316	

Iturria: Eustat, 2012; HABE 2013-2014 ikasturtea

Hizkuntza Eskola Ofizialak

Hizkuntza Eskola Ofizialen daturik ezin izan da eskuratu Eustaten JEGID erroldatik.

Hala ere, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saileko informazio iturriak kontsultatuz, badakigu 14 dira EAEko gisa honetako zentroak eta 2013-2014 ikasturtean guztira matrikulatutako 30.228 ikasletatik 6.640 izan direla euskara ikasten aritutakoak (matrikulazioaren % 22 hain zuzen ere). Hizkuntza Eskola Ofizialei euskaltegi publikoetako irakasle ikasleko ratioa aplikatuta, euskararen irakaskuntzari loturiko enplegua 262 izan daitekeela estimatu da (219 irakasle eta irakasle ez diren bestelako 43 langile).

3. taula: Hizkuntza Eskola Ofizialei euskara-enplegua estimatzeko informazio iturriak eta erreferentziako enplegua

Azpi-sektorea	Jarduera-mota	Informazio iturriak						Erreferentziako enplegua
		Eusko Jaurlaritza (Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila)			Enplegua estimatzeko irizpideak			
		Zentro kopurua	2013-2014 ikasturteko matrikulazioa	Euskara ikasleak (2013-2014)	Euskaltegi publikoetako irakasle ikasleko ratioa	Euskaltegi publikoetako bestelako langileak ikasleko ratioari % 22a aplikatuta	Enplegua (lanaldi osora)	
I. I.- Euskararen irakaskuntza	Hizkuntza eskola ofizialak	14	30.228 ikasle	6.640 ikasle (Matrikulazioaren % 22)	0,0329	43	262	262

Iturria: Eusko Jaurlaritza- Hezkuntza, 2013-2014 ikasturtea; Siadecok landutako datuak, 2015

Hizkuntza akademiak

Hizkuntza akademiaren azpimultzoa aztertuz, 392 dira JEGID-en erregistratutako establezimenduak, 1.613 enplegurekin.

Azpimultzo honen euskara-enpleguaren koefizientea estimatzeko langile kopururik altueneko 23 hizkuntza akademiaren zuzeneko datuak eskuratu dira. Horien artean daude esaterako, British Council, Elduainen Hizkuntza Eskola, Bai & By, Komalingua, Welcom & Willkommen eta Mondragon Lingua.

Informazio bilketarako eginiko landa-lanean, erreferentzia gisa 2014. urtea hartuta, establezimenduko ikasleetatik euskara ikasleei dagokien pisuaren estimazioa egiteko eskatu zaie arduradunei. Horrela, % 5,4koa izanik euskara ikasle diren bezeroen batez besteko portzentajea, euskarari loturiko langileen enplegua 87 lagunekoa izan daitekeela estimatu da.

4. taula: Hizkuntza akademietako enpleguaren Eustateko Gidazerrendako datuak, euskara koefizientea kalkulatzeko inkestaren emaitzak eta erreferentziako enplegua

Azpi-sektorea	Jardueramota	Informazio iturriak						Erreferentziako enplegua
		Jarduera Ekonomikoen Gidazerrenda (Eustat, 2012)			Euskara koefizienteari buruzko INKESTA (Siadeco, 2015)			
		JESN epigrafea	Establezimendu kop.	Enplegua	Lagin estrategikoa	Laginaren pisua	Euskara koefizientea (enpleguari jarraiki haztatua)	
I.1.- Euskararen irakaskuntza	Hizkuntza akademiak	8552 8559	392	1.613	Langile kopururik altueneko 23 hizkuntza akademia	Enpleguaren % 19,6	Euskara ikasle diren bezeroen % 5,4	87

Iturria: Eustat, 2012; Siadeco, 2015

► I.2. Itzulpen eta interpretazio lanak: enpresa eta langile autonomoak.

Itzulpen, zuzenketa eta interpretazio zerbitzuak eskaintzen dituzten 90 enpresa eta 494 autonomo daude erregistratuak Eustateko Gidazerrendan. Abiapuntuko zerrenda horri Languneko ikerlanean identifikatutako beste bi enpresa gehitu dizkiogu, eta guztira 845 enplegu estimatu dira azpi-sektore honetarako.

Euskara-enpleguaren koefizientea kalkulatzeko landa-lana egin du Siadecok, kasu honetan ere, enplegu aldetik tamaina handieneko enpresetako zuzeneko informazioa jasotzeko;

horien artean daude Maramara, Urrats Euskara Zerbitzuak, Lanser Language, Tisa eta I.C. Formación enpresak. Erreferentzia gisa 2014. urtea hartuta, establezimenduan egindako itzulpengintza lanetan euskarari lotutako lanek zenbateko pisua izan zuten hurbilpen bat egiteko (euskaratik edota euskarara egindako itzulpenak kontuan hartuta) eskatu zaie arduradunei.

Langile kopuru altueneko 25 establezimenduk osaturiko laginerako kalkulaturako euskara koefizientea, % 57,4koa da (itzulpen zerbitzuak eskaintzen dituzten enpresen guztirako enpleguaren % 65,8ko pisua izanik horiek). Koefiziente hori bera izan da itzulpengintzan lanean dabilzan autonomoei aplikatu zaiena eta ondorioz, euskarari loturiko 485 enplegu estimatu dira, guztira, azpi-sektorerako.

5. taula. Itzulpengintzaren alorreko enpresa eta autonomoen enpleguaren Eustateko Gidazerrendako datuak, euskara koefizientea kalkulatzeko inkestaren emaitzak eta erreferentziako enplegua

Azpi-sektorea	Jarduera-mota	Erakunde-mota	Informazio iturriak						Erreferentziako enplegua	
			Jarduera Ekonomikoen Gidazerrenda (Eustat, 2012)		Langune Gehitutako enpresak	Enplegua guztira	Euskara koefizienteari buruzko INKESTA (Siadeco, 2015)			
			JESN epigrafea	Establezimendu kop.			Lagin estrategikoa	Laginarren pisua		Euskara koefizientea (enpleguari jarraiki haztatua)
I.2.- Itzulpengintza	Itzulpen enpresak eta langile autonomoak	Itzulpen enpresak	7430 8552 8559	90	2	348	Langile kopururik altueneko 25 enpresa	Enpleguaren % 65,8	Euskaratik edo euskarara egindako itzulpen lanen %: 57,4	200
		Itzultzaile autonomoak	7430	494	-	497	-	-	Itzulpen enpresei aplikatutako bera: % 57,4	285
	Guztira			584		2	845	-	-	485

Iturria: Eustat, 2012; Siadeco, 2015

► **I.3. Hizkuntza zerbitzuak eta aholkularitza linguistikoa: euskara planen diseinu eta inplementaziorako aholkularitza zerbitzuak.**

Euskara planen diseinu eta inplementaziorako aholkularitza zerbitzuak eskaintzen dituzten 14 establezimendu daude erregistratuak Gidazerrendan eta beste hiru gehitu dizkiogu abiapuntuko zerrendari, Eusko Jaurlaritzako “euskararen azpiegiturak” datu oinarria kontsultatuta.

Enpresa horien jarduera nagusia hizkuntza aholkularitza izanda ere, bestelako zerbitzuak ere eskaintzen dituzten enpresak dira azpi-sektore honetan kokaturikoak. Juxtuki, ondorengoak dira, langile kopuru handienetik txikienera sailkatuta, 14 establezimenduak biltzen dituzten enpresak: Elhuyar Fundazioa, Emun, Artez Euskara Zerbitzua, Elhuyar Aholkularitza, Ahize-AEK, Siadeco, Soziolinguistika Klusterra, Hori-Hori, Ekilore Euskara Planak, Artez Formakuntza Eskola eta Meblis Método y Educación al Bilingüismo.

Euskara-enpleguaren estimaziorako erabilitako irizpideen inguruan esan, 11 establezimenduren kasuan % 100 euskarari inputatu zaiola. Gainontzeko guztiak ere kontuan hartuta, batez besteko koefizientea % 87,3an kokatzen da; ondorioz, 247koa da jarduera-adar honetan euskarari dagokion enplegua.

6. taula: Hizkuntza zerbitzu eta aholkularitzako enpresetako enpleguaren Eustateko Gidazerrendako datuak, euskara koefizientea kalkulatzeko irizpideak eta erreferentziako enplegua

Azpi-sektorea	Jarduera-mota	Informazio iturriak						Erreferentziako enplegua
		Jarduera Ekonomikoen Gidazerrenda (Eustat, 2012)		EJ Euskararen azpiegiturak datu-oinarria	Enplegua guztira	Euskara koefizientearen estimaziorako irizpideak (Siadeco, 2015)		
		JESN epigrafea	Establezimendu kop.			Gehitutako enpresak	Langileen % 100 euskarari inputatutako establezimendu kopurua	
I.3.- Hizkuntza zerbitzuak eta aholkularitza	Nagusiki hizkuntza zerbitzuak eta hizkuntza aholkularitzako zerbitzuak eskaintzen dituzten enpresak	7022 7220 7430 7490 8552 8559	14	3	283	11	% 87,3	247

Iturria: Eustat, 2012; Siadeco, 2015

- ▶ I.4. Euskararen corpusa eta edukien garapena: hizkuntzaren arauketa, hiztegitzta, lexikoa eta terminologiaren alorra.

Euskararen corpusa eta euskarazko edukien garapena jarduera nagusizat duten 4 establezimendu daude erregistratuak Gidazerrendan. Euskaltzaindiarenak dira horietako hiru eta UZEI Terminologia eta Lexikografia Zentroarena bestea.

Euskal Herriko Unibertsitateko Euskara Institutua gehitu diegu aurrekoei eta guztira 44 enpleguko estimazioa egitera iritsi gara azpi-sektoerako. Euskara-enpleguaren koefizientea kasu honetan % 100ekoa izanik, 44 horiek guztiak izango dira ikerlanerako erreferentziatzko enpleguak.

7. taula: Euskararen corpusaren lanketa eta zabalpeneko erakunde kopurua eta erreferentziatzko enplegua

Azpi-sektorea	Jarduera-mota	Informazio iturriak						Erreferentziatzko enplegua
		Jarduera Ekonomikoen Gidazerrenda (Eustat,2012)		Euskal Herriko Unibertsitatea	Enplegua guztira	Euskara koefizientearen estimaziorako irizpideak (Siadeco,2015)		
		JESN epigrafea	Establezimendu kop.	Gehitutako enpresak		Langileen % 100 euskarari inputatutako establezimendu kopurua	Euskara koefizientea (enpleguari jarraiki haztatua)	
I.4.- Euskararen corpusa	Euskararen arautze, hiztegitzta, lexikoa eta terminologiaren lanketa eta zabalpeneko erakundeak	7220 7430	4	1	44	5	% 100	44

Iturria: Eustat, 2012; Euskal Herriko Unibertsitatea, 2015; Siadeco, 2015

- ▶ I.5. Hizkuntza teknologiak: hiztegi elektronikoak, hizkuntza prozesadoreak, hizkuntza zuzentzaileak, itzulpen lanetarako softwareak, euskara ikasteko nahiz erabiltzeko aplikazioak, web teknologiak, eta abar.

Gidazerrendan erregistratutako I-ametza Interaktiboaz gain, Languneko ikerlanetik beste 11 establezimendu identifikatu ditugu; eta horiek dira, Vicomtech-IK4, BCBL-Basque Center of Cognition-Brain and Language, Komaberri Bi, Didaktiker, Ametzagaña, Eleka Ingeniaritza Linguistikoa, Natural Vox, Plazagunea, Anboto Europe eta Eratuz Kooperatiba Elkarteak.

Enpleguaren eta euskararen pisua estimatzeko landa lana egin da kasu honetan ere; zehazki, eta erreferentzia gisa 2014. urtea hartuta, establezimenduaren jardueran euskarak duen pisuaren hurbilpen bat egiteko eskatu zaie arduradunei.

Guztira estimatutako 256 enpleguri, landa-lanaren emaitza izan den % 39,2ko euskara koefizientea aplikatu ondoren, 100 enplegu inguru dira euskarari inputatutakoak.

8. taula: Hizkuntza teknologietako euskara-enplegua estimatzeko informazio iturriak eta erreferentziako enplegua


Azpi-sektorea	Jarduera-mota	Informazio iturriak					Erreferentziako enplegua	
		Jarduera Ekonomikoen Gidazerrenda (Eustat,2012)		Langune	Enplegua guztira	Euskara koefizienteari bu- ruzko INKESTA (Siadeco,2015)		
		JESN epi- grafea	Establezi- mendu kop.	Gehitutako enpresak		Laginaren pisua		Euskara koefizientea (enpleguari jarraiki hazta- tua)
I.5.- Hizkuntza teknologiak	Hizkuntzaren trataera eta prozesaketara aplikatutako teknologia berriak eta informatika alorreko zientziak	1812	1	10	256	Enpleguaren % 98,4	% 39,2	100

Iturria: Eustat, 2012; Langune, 2014; Siadeco, 2015

► I.6. Hizkuntzaren industria GUZTIRA

Hizkuntzaren industriakoak kontsideratutako aurreko 5 azpi-sektoreetako euskara-enpleguaren baturak 2.541 ematen du. Horietatik gehienak (% 66) euskararen irakaskuntza arloko langileak dira, zehatzago euskaltegi-takoak, 1.316 inguru. Itzulpegintza sektoreko enplegua 485, hizkuntza aholkularitzarako enpresena 247, euskararen corpusa eta terminologia alorrean lan egiten duten erakundeetako 44 eta azkenik, teknologia berriak eta hizkuntzalaritza uztartzen dituzten arloetan lan egin eta euskararekin lotutako enplegua 100 lagun ingurukoa.

I. Grafikoa. Hizkuntzaren industriako sektoreen euskara-enplegua, azpi sektoreei jarraiki (kopuru absolutuak eta %)



Iturria: Siadecok landutako datuak, 2015.

9. taula. Hizkuntzaren industriaren erreferentziako enplegua guztira eta azpi-sektorekako banaketa

Sektorea	Azpi-sektorea	Erreferentziako enplegua	
		Kop.	%
I.- Hizkuntzaren industria	I.1.- Euskararen irakaskuntza	1.665	65,5
	I.2.- Itzulpengintza	485	19,1
	I.3.- Hizkuntza zerbitzuak eta aholkularitza	247	9,7
	I.4.- Euskararen corpusaren lanketa eta zabalpena	44	1,7
	I.5.- Hizkuntza teknologiak	100	3,9
GUZTIRA		2.541	100,0

Iturria: Siadecok landutako datuak, 2015

2.5.2/ Kultura eta hedabideen industria

Kultura eta hedabideen industriaren barruan, ondorengo 9 azpi-sektoreak bildu dira:

- Liburugintza: argitaletxeak, liburu-dendak eta liburutegien zerbitzuak.
- Musika: diskoaren industria (diskoetxeak eta saltokiak) eta musika programatzaileak (emanaldien programatzaileak eta musika aretoak).
- Kultur sortzaile autonomoak: idazleak, musikariak eta artea eta kulturaren alorreko bestelako ekoizle autonomoak.
- Ikus-entzunezkoen industria: zinema, dokumental, publizitate edo telebista saioen ekoizleak, irrati saioen ekoizleak, eta bestelako ekoizleak batetik eta zinema aretoak bestetik .
- Arte eszenikoak: antzerki eta dantza ekoizleak eta programatzaileak.
- Bertsolaritza: bertsolaritzaren arloko elkarte eta erakundeak.
- Hedabideak: egunkariak, aldizkariak, irratiak eta irrati zerbitzu emaileak, telebistak eta telebista zerbitzu emaileak, internet eta berri-agentziak.
- Euskara elkarteak.
- Komunikazioa, kultura eta gizarte arloko bestelako elkarte eta enpresak: kultura, aisialdi eta gizarte gaitako bestelako elkarte eta enpresak; komunikazio eta publizitate zerbitzuen enpresak; internet zerbitzuak; eta dokumentazio zentroak eta unibertsitatearekin loturarik ez duten bestelako ikerketa zentroak.

▶ II.1. Liburugintza: argitaletxeak, liburu-dendak eta liburutegi-zerbitzuak.

Argitaletxeak

Argitaletxeen azpi-sektorekoak diren 184 establezimendu daude Eustateko JEGID erroldan. Kopurua altua da baina guzti horietatik 19 bakarrik dira 10 langile baino gehiago dituztenak; gainerako guztiak langile gutxiko enpresa txikiak edo langile autonomoak dira. Languneraren datu oinarriko informazioarekin kontrastatu ondoren, Eustaten erroldan jaso gabeko beste hiru establezimendu erantsi zaizkio zerrendari. Azpi-sektore honetako enpresak dira, besteak beste, Ediciones Deusto S.A., Elkarlanean S.L., Erein S.A., Txinpartetan S.L., Zubia Editoriala, eta abar.

Guztira 594 enplegu estimatzen dira eta euskara-enpleguaren koefizientea zehazteko, Euskadiko Editoreen Elkarteak 2012 urteari dagokion “EAEko euskarazko argitalpenak” ikerlaneko datuari erreparatzen diogu; bertan, euskarazko argitalpenen salmentagatik fakturazioa 2012an 31,9 milioi euro izan zela adierazten da, fakturazio osoaren (63,7 milioi euro) % 50. Berau aplikatuta, 297 inguru dira euskarari

inputaturiko erreferentziako enpleguak. Euskadiko Editoreen Elkarteko txosten horren arabera, euskarazko salmenten %89 EAEn saltzen da eta batez besteko salmenta prezioa 15 eurokoa da.

10. taula. Argitaletxeetako enplegua estimatzeko informazio iturriak, euskara koefizientea kalkulatzeko irizpideak eta erreferentziako enplegua

Azpi-sektorea	Jarduera-mota	Informazio iturriak						Erreferentziako enplegua	
		Jarduera Ekonomikoen Gidazerrenda (Eustat, 2012)		Langune		Enplegua guztira	Euskadiko Editoreen Elkartea ("EAEko euskarazko argitalpenak, 2012)		
		JESN epigrafea	Establezimendu kop.	Gehitutako enpresak	Euskarazko argitalpenen urteko fakturazio bolu-mena		Euskarazko argitalpenen fakturazioaren pisua		
II.1.- Liburugintza	Argitaletxeak	5811 5819	182	3	594	32,0 milioi €	% 50	297	

Iturria: Eustat 2012; Eusko Jaurlaritza-HPS; Euskadiko Editoreen Elkartea 2012, Siadecok landutako datuak, 2015

Liburu-dendak

Liburuen salerosketarako txikizkako 411 establezimendu espezializatu eta 828 enplegu daude erregistratuta Eustaten JEGID direktorioan.

Euskadiko Editoreen Elkarteko 2012ko ikerlanaren arabera, euskarazko tituluen salmentagatik eskuratutako 18,6 milioi euro, banakako eta kate-barruko liburu denden bitartez eginiko salmentei dagokie; bestetik, Eustaten datuen arabera, guztira ia 102 milioi euroko fakturazioa dutela establezimendu horiek urtean badakigu. Ondorioz, azpi-multzo honentzako % 18,2ko euskara koefizientea estimatu da, eta beraz, 151ko euskara-enplegua ezarri da jarduera-adar honetarako.

II. taula. Liburu dendetako enplegua estimatzeko informazio iturriak, euskara koefizientea kalkulatzeko irizpideak eta erreferentziako enplegua

Azpi-sektorea	Jarduera-mota	Informazio iturriak							Erreferentziako enplegua
		Jarduera Ekonomikoen Gidazerrenda (Eustat,2012)				Eusko Jaurlaritzaren-Hizkuntza Politika (diru-laguntza deialdi ezberdinak)	Euskadiko Editoreen Elkartearen ("EAEko euskarazko argitalpenak, 2012)		
		JESN epigrafea	Establezimendu kop.	Enplegua	Urteko fakturazio bolumena		Gehitutako enpresak	Euskarazko tituluen liburudenda bidezko salmentak	
II.1.- Liburugintza	Liburu dendak	4761	411	828	102 milioi €	1	18,6 milioi €	% 18,2	151

Iturria: Eustat 2012; Eusko Jaurlaritzaren-HPS; Euskadiko Editoreen Elkartearen 2012, Siadecok landutako datuak, 2015

Liburutegi-zerbitzu pribatuak

18 establezimendu daude Eustaten Gidazerrendan erregistratuak liburutegi-zerbitzu pribatu gisa eta guztirako enplegua, 125.

Eusko Jaurlaritzaren 2002 urteko liburutegi publikoen estatistikako datuak erabili ditugu zein euskara koefiziente aplikatu estimatzeko. Estatistika horren arabera, EAEko liburutegi publikoetan euskarazko liburu funtsen pisua % 31,7koa dela adierazten da. Ondorioz, 40 inguru dira azpimultzo honetako euskara-enpleguak.

12. taula. Liburutegi zerbitzuetako enpleguaren Eustateko Gidazerrendako datuak, euskara koefizientea kalkulatzeko irizpideak eta erreferentziako enplegua

Azpi-sektorea	Jarduera-mota	Informazio iturriak				Erreferentziako enplegua
		Jarduera Ekonomikoen Gidazerrenda (Eustat,2012)			Eusko Jaurlaritzaren ("EAEko liburutegi publikoen estatistika, 2002)	
		JESN epigrafea	Establezimendu kop.	Enplegua	Euskarazko liburu funtsen portzentajea	
II.1.- Liburugintza	Liburutegi zerbitzu pribatuak	9105	18	125	% 31,7	40

Iturria: Eustat 2012; Eusko Jaurlaritzaren 2002, Siadecok landutako datuak, 2015



- ▶ II.2. Musika: diskoetxeak, disko-saltokiak, musika sustatzaileak eta programatzaileak.

Diskoetxeak

Guztira 23 establezimendu dira; horietatik 8 Eustateko Gidazerrendan erregistratuak daudenak eta beste 15, zeharkako informazio iturriak kontsultatuz gehitutakoak (batik bat, Musika Industriaren Elkartearen datuetatik). Establezimendu horietako enplegua guztira 55 lagunekoa da.

Kulturaren Euskal Behatokiak egindako 2011ko EAEko Arte eta Kultura Industrien Estatistikako datuen arabera, EAEko diskoetxeek diskoen % 53,6 euskaraz argitaratzen dute; koefiziente hori aplikatuta, 29 lagunekoa euskara-enplegua estimatu da.

Disko-saltokiak

Disko-saltokien kasuan, establezimenduetako zuzeneko datuak eskuratzeko ahaleginak egin arren, ezinezkoa izan zaigu euskara-enpleguaren pisuari buruzko datu esanguratsurik lortzea. Informazio hutsune honen aurrean, disko-saltokiei, liburu dendei aplikaturiko koefiziente bera aplikatzea erabaki da eta % 18,2ko euskara-koefizientea aplikatu zaie; 9 lagunekoa euskara-enplegua estimatu da.

Musika promotoreak eta programatzaileak

Azkenik, musika sustatzaile eta programatzaileen kasurako, Siadecotik egindako zuzeneko informazio bilketatik lortutako datuak erabili dira eta jarduera-adar honen euskara koefizientea 11,7 da. Koefiziente hori aplikatuz kalkulaturako euskara-enplegua berriz, 19.

Guztira

Musikaren industriari ezarri zaion guztirako euskara-enplegua 57 lagunekoa da.



13. taula. Musikaren industriako enplegua estimatzeko informazio iturriak, euskara koefizientea kalkulatzeko irizpideak eta erreferentziako enplegua

Azpi-sektorea	Jarduera-mota	Informazio iturriak								Erreferentziako enplegua	
		Jarduera Ekonomikoaren Gidazerrenda (Eustat,2012)		Musika Industrien Elkartea	Enplegua	Eusko Jaurlaritza (EAEko Arte eta Kultura Industrien Estatistika, 2011)		Euskara koefizienteari buruzko INKESTA (Siadeco, 2015)			Euskarazko musikaren industriari lotu beharreko enplegua estimatzeko erabilitako koefizientea
		JESN epigrafea	Establezimendu kop.	Gehitutako enpresak		Urteko diru-sarrerak (mila €)	Hizkuntzaren araberako datuak	Laginaren pisua	Euskara koefizientea (enpleguari jarraiki haztatua)		
II.2.- Musikaren industria	Diskoetxeak		8	15	55	2.148	Euskaraz argitaratutako diskoak: % 53,6			Diskoetxeentzako, Arte eta Kultura Industrien Estatistikako % 53,6	29
	Disko-saltokiak	1820 4761 4763 5920 9001 9002	9		48					Disko-saltokientzako, liburu dendetan euskarazko tituluen fakturazioaren % 18,2	9
	Musika sustatzaile eta programatzaileak		18	9	167			Enpleguaren % 78	% 11,7	Musika sustatzaile eta programatzaileentzako, inkestako % 11,7	19
	GUZTIRA			59		270					

Iturria: Eustat 2012; Eusko Jaurlaritza 2011; Siadecoren inkesta 2015; Siadecok landutako datuak,2015

► II.3. Kultur sortzaileak: idazleak, musikariak eta artea eta kulturaren alorreko bestelako ekoizleak.

Idazle, musikari eta artea eta kulturaren bestelako alorretako sortzaile eta ekoizleen azpi-sektore honetan, 1.047 establezimendu daude Eustateko JEGID erroldan. Horietatik gehien gehienak sortzaile autonomoak dira, 964 zehazki eta guztira 1.151 pertsona inguru enplegatzen direla estimatzen da.

Euskara-enplegua estimatzera iristeko eta beraz zein euskara koefiziente aplikatu erabakitzeke, idazleen kasuan argialetxeen koefiziente bera erabili dugu, % 50 alegia. Musikariei, diskoetxeen % 53,6 eta arte eszenikoetako ekoizleei % 49koa (izan ere, 2011ko Arte eta Kultura Industrien Estatistikan jaso dago antzerki ekoizpena %33,7 euskaraz egiten dela eta %30,6 euskaraz eta gaztelaniaz egiten dela).



Sortzaile-mota bakoitzari dagokion fakturazioa eta euskara koefizientea kontuan izanik haztatutako datuen arabera, batez besteko euskara koefizientea % 49,8 da eta erreferentziako euskara-enplegua 616.

14. taula. Kultur sortzaileen enpleguaren Eustateko Gidazerrendako datuak, euskara koefizientea kalkulatzeko irizpideak eta erreferentziako enplegua

Azpi-sektorea	Jarduera-mota	Informazio iturriak						Euskararen enplegua estimatzeko aplikatutako portzentajea	Erreferentziako enplegua
		Jarduera Ekonomikoen Gidazerrenda (Eustat,2012)				Euskarazko argitalpenen fakturazioaren pisua	Eusko Jaurlaritza (EAEko Arte eta Kultura Industrien Estatistika, 2011)		
		JESN epigrafea	Establezimendu kop.	Kultur sortzaile autonomoak	Enplegua				
II.3.- Kultur sortzaileak	Idazleak, musikariak eta artea eta kulturaren alorreko bestelako ekoizleak	5915 9001 9002 9003	1.058	964	1.238	% 50	% 33,7 euskaraz % 30,6 elebidun	%49,8	616

Iturria: Eustat 2012; Euskadiko Editoreen Elkarte, 2012; Eusko Jaurlaritza 2011; Siadecoren inkesta 2015; Siadecok landutako datuak,2015

- ▶ II.4. Ikus-entzunezkoen industria: zinema, dokumental, publizitate edo telebista saioen ekoizleak, irrati saioen ekoizleak eta bestelako ekoizleak eta zinema aretoak.

Bi azpi-multzo bereizi dira, ikus-entzunezkoen ekoizleak batetik, eta programatzaileak edo zinema aretoak bestetik. Batari eta besteari aplikatu beharreko euskara koefizientean alde nabarmenak daude.

Ikus-entzunezkoen sortzaileak

Zinema, dokumental, publizitate, telebista saio, irrati saio eta bestelako ekoizleen azpimultzoa aztertuz, 383 establezimendu daude Eustaten Gidazerrendan eta beste 25 identifikatu dira Eusko Jaurlaritzako IKT diru-laguntza deialdiko eskatzaileen zerrendatik. Guztira 1.341 pertsona inguru enplegatzen direla estimatzen da.



Euskara-enpleguaren koefizientea % 40koa da azpimultzo honetarako; berau, langile kopurua altueneko 23 establezimenduz osaturiko lagin bidez kalkulatua (gutzizko enpleguarekiko %24,6ko pisua izanik horiek). Horien artean daude, esaterako, Pausoka Entertainment, Irusoin, Kursaal Producciones Audiovisuales, Baleuko, Orio Produkzioak, Baint Television eta Corporación de Radio y Televisión Española, Rec Estudio Grabaketa.

Euskara koefizientearen kontrasterako erabili dugun beste informazio iturria 2011 urteko EAEko Arte eta Kultura Industrien Estatistika izan da. Bertan, ikus-entzunezkoen industrian, ekoizpenen %40 euskara hutsean edota euskaraz eta gaztelaniaz egiten dela aipatzen da eta datu hori bat dator, erabat, Siadecok zuzenean ikerketa honetarako egindako datu bilketaren emaitzekin.

Ondorioz, ikus-entzunezko ekoizleen artean 536 dira euskarari inputaturiko enpleguak.

Zinema aretoak

Zinemak ditugu bestetik. 51 dira Eustaten Gidazerrendan erregistratutakoak, 377 enplegurekin.

Kulturaren Euskal Behatokiak, 2010ean, EAEko zinema-areto publiko nahiz pribatuei buruzko informazioa jasotzeko eginiko ikerketatik, urteko saio kopurua 189.774 izan zela dakigu eta horietatik euskarazko saioak 5.785 izan zirela. Horrela % 3,04ko euskara koefizientea aplikatu diogu azpimultzo honi eta 11 laguneko enplegua.

15. taula. Ikus-entzunezkoen industriako enplegua estimatzeko informazio iturriak, euskara koefizientea kalkulatzeko irizpideak eta erreferentziako enplegua

Azpi-sektorea	Jarduera-mota	Informazio iturriak							Erreferentziako enplegua	
		Jarduera Ekonomikoen Gidazerrenda (Eustat,2012)		Eusko Jaurlaritza - Hizkuntza Politika (IKT dirulaguntza deialdia)	Enplegua	Euskara koefizienteari buruzko INKESTA (Siadeco,2015)				Eusko Jaurlaritza (EAEko Arte eta Kultura Industrien Estatistika, 2011)
		JESN epigrafea	Establezimendu kop.			Gehitutako enpresak	Euskararen erabileraren indizeak	Laginarren pisua		
II.4.- Ikus-entzunezkoen industria	Zinema, dokumental, publizitate, telebista saio, irrati saio eta bestelako ekoizleak	4741 5821 5915 5916 7022 7311 6010 9001 9002	383	25	1.341	Langile kopururik altueneko 23 establezimendu	Enpleguaren % 24,6	Euskarazko ekoizpenaren % 40,0	Euskara hutsean edo ele-bietan ekoiztutako ikus-entzunezkoak: % 40,0	536
	Zinema aretoak	5914	51	-	377	-	-	-	Euskarazko zine emanaldien portzentzia: % 3,04	11
	GUZTIRA		434	25	1.718					547

Iturria: Eustat 2012; Eusko Jaurlaritza (HPS eta KEB); Siadecoren inkesta 2015; Siadecok landutako datuak,2015.

► II.5. Arte eszenikoak: antzerki ekoizleak eta programatzaileak.

Arte eszenikoen azpi-sektorean ere, ekoizleen eta programatzaileen arteko bereizketa egin da.

Antzerki konpainiak

Jarduera nagusia antzerki eta dantza ekoizpena duten 84 establezimendu daude erregistratuta JEGID sailkapenean, 239 enplegu ingururekin.

Bestetik, EAEko Arte eta Kultura Industrien Estatistikako emaitzen arabera, antzerki eta dantza konpainietako enplegua 186,4koa zen 2011 urtean eta antzerki ekoizpenean euskara hutsezkoa izan zen % 33,7 eta ele-bitakoa % 30,6. Datuok izan dira gure estimazioetarako erabilitakoak; horrela, % 49ko euskara koefizientea aplikatuta, 91koa irteten da euskara-enplegua.

Antzerki eta dantza programatzaileak

Antzerki eta dantza programatzaileen azpimultzoari dagokionean, 26 dira Eustaten Gidazerrendan erregistratutakoak, 124 enplegurekin.

Aldiz, 2011 urteko EAE-ko Arte eta Kultura Industrien Estatistikako emaitzak baliatuz, arte eszenikoetako programatzaileen eta antzokien enplegua 217,7an estimatzen da eta euskarazko emanaldien pisua % 34,2an zehazten da. Ondorioz, 71 enplegu inguru dira euskarari inputatutakoak.

16. taula. Arte eszenikoetako enpresen enpleguaren Eustateko Gidazerrendako datuak, euskara koefizientea kalkulatzeko irizpideak eta erreferentziako enplegua

Azpi-sektorea	Jarduera-mota	Informazio iturriak					Erreferen-tziako enplegua	
		Jarduera Ekonomikoen Gidazerrenda (Eustat,2012)			Eusko Jaurlaritza (EAEko Arte eta Kultura Industrien Estatistika, 2011)			
		JESN epigrafea	Establezi-mendu kop.	Enplegua	Enplegua	Euskararen pisuaren erreferentziak		
II.5.- Arte eszenikoak	Antzerki konpainiak	9001 9002	84	239	186,4	Euskarazko ekoizpena arte eszenikoetan: - % 33,7 euskaraz - % 30,6 elebidun	% 49	91
	Antzerki eta dantza programatzaileak	9004	26	124	217,7	Euskarazko emanaldiak antzerki aretoetan: % 34,2	% 34	74
	GUZTIRA		110	363	404			165

Iturria: Eustat 2012; Eusko Jaurlaritza- KEB); Siadecok landutako datuak,2015

► II.6. Bertsolaritza: bertsolaritzaren arloko elkarte eta erakundeak.

Bertsolaritzaren arloan, 8 elkarte edo erakunde zerrendatu ditugu EAEn egoitza dutenak; horietatik 4 dira JEGID sailkapenean erregistratuak daudenak, 55 lagun inguruko enplegurekin. Elkarte horiek dira, Bizkaiko, Gipuzkoako Arabako eta Euskal Herriko Bertsozale Elkarteak, Lanku Bertso Zerbitzuak, Librean Kooperatiba Elkarte Txikia eta Mintzola Fundazioa eta Algortako Bertsolari Eskola. Azpimarratu behar da bertso eskoletako enpleguari buruzko daturik ezin izan dela eskuratu eta sektore honetarako egindako enpleguaren aurreikuspenean bertso eskoletako langileak ez direla sartu.

Bestalde, Bertsozale Elkarteko datuen arabera, guztira 80 enplegu inguruko estimazioa egin da azpi-sektore honetarako (bertso eskolen jardura kontuan izan gabe), eta kopuru hori erabili da erreferentziatzko enplegu gisa.

EAE mailan jarduten duten bertsozale elkarten aurrekontu bateratua 3 milioi euro ingurukoa (2015eko aurrekontua) eta beste milioi bat pasatxo bertsolaritza zerbitzuak eta egitasmoak aurrera eramaten dituzten enpresa eta elkarte nagusien aurrekontua.

17. taula. Bertsolaritzako elkarte, erakunde eta enpresen enplegua estimatzeko informazio iturriak, euskara koefizientea kalkulatzeko irizpideak eta erreferentziatzko enplegua

Azpi-sektorea	Jardura-mota	Informazio iturriak						Erreferentziatzko enplegua	
		Jardura Ekonomikoaren Gidazerrenda (Eustat,2012)			Bertsozale Elkartea (2015)		Bertsozale Elkartea (2015)		
		JESN epigrafea	Estable- zimen- du kop.	Enplegua	Gehi- tutako enpre- sak	Gehi- tutako enple- gua	Aurrekontuak		Enplegua
II.6.- Bertsolaritza	EAEko bertsozale elkarteak (hiru lurraldeetakoak eta Euskal Herrikoa), zerbitzu enpresa eta fundazioak	7220 8559 9001 9003	4	55	4	25	Hegoaldeko eta Euskal Herriko Bertsozaleen aurrekontua 2014: 3,2 milioi € Lanku eta Mintzola: 1,1 milioi € (bertso saioak barne) Guztira: 4,3 milioi	Hegoaldeko eta Euskal Herriko Bertsozale elkarteetan: 58 Lanku eta Mintzola: 22 (bertso saioak barne) Guztira: 80	80

Iturria: Eustat 2012; Euskal Herriko Bertsozale Elkartea, 2015); Siadecok landutako datuak,2015

- ▶ II.7. Hedabideak: egunkarien argitalpena, aldizkarien argitalpena, irratiak eta irrati zerbitzu emaileak, telebistak eta telebista zerbitzu emaileak, internet eta berri-agentziak.

Egunkariak

Jarduerarik nagusia egunkari argitaratzea duten establezimenduak guztira 42 dira Eustateko Gidazerrendakoak. Horien artean ez zegoen beste bat erantsi da, Eusko Jaurlaritzaren euskarazko hedabideetarako diru-laguntza deialdiko onuradun izandakoa. Euskara koefizientea % 27,1 dela estimatu da Siadecok azpi-sektore honetako enpresetara egindako inkestako datuak erabiliz; enplegu aldetik handienak diren 24 hedabideetan egin da datu bilketa (azpi-multzoko enplegu osoaren % 98,3 ordezkatzen dute 24 enpresa horiek); horien artean daude, esaterako, El Diario Vasco, Berria, Deia, Euskal Herriko Egunkaria-Gara eta Noticias de Gipuzkoa. Azpi-



multzo honetako enplegua guztira 867koa izanik, euskara koefizientea aplikatu ondoren euskarari inputatu beharreko enplegua 235 dela estimatu da.

Aldizkari orokorrak eta espezializatuak

Aldizkarien azpi-sektoreko 77 establezimendu daude Eustaten Gidazerrendan; beste 2 identifikatu dira Eusko Jaurlaritzako hedabideen diru-laguntza deialdiko eskatzaile modura. Guzti horietatik, 11 hedabide dira aldizkaria euskara hutsean argitaratzen dutenak eta 11 horietako enplegua hartu da kontuan ikerlan honetarako, zehazki 64 laguneko enplegua. Kontuan hartutako 11 establezimenduak dira handienetik txikienera sailkatuta, Argia, Herri Komunikabideak Kooperatiba Elkartea, 11 barri.info, Jakin, Xangorin, Uztartzen Euskara Elkartea, Hilerio Zornotzan, Bertsozaleak, Totoan Txorierriko Euskara Elkarten Federazioa, Euskal Birusa Elkartea Kulturala Ermua eta Mendebalde Euskal Kultur Elkartea. Euskarazko aldizkariak argitaratzen dituzten elkarteak ez dira horiek bakarrik EAEn baina beste horiek, aldizkariak argitaratzeaz aparte jarduerak ere egiten dituzte eta ikerlan honetan beste azpi-sektore batean kokatuak daude.

Bestalde euskara elkarte edo kultur elkarteek kudeatzen dituzten euskarazko herri aldizkarietako langile multzorik zabalena ere ez dago azpi-multzo honetan, euskara elkarte edo kultur elkarteenean baizik.

Irratiak

Irrati eta irrati zerbitzu emaileetan, 57 establezimendu ditugu Eustateko Gidazerrendan eta 718 enplegu. Euskara-enpleguaren koefizientea % 37,8koa da; enplegu aldetik handienak diren 29 irratik osatutako lagin bati egin zaio galdeketa (enpleguaren % 91); horien artean daude, Euskadi Irratia, Radio Popular de Bilbao, Radio Bilbao Cadena Ser, Bizkaia Irratia, Arrate Irratia, etab. Euskarari jarduera-adar honetan inputatu zaion enplegua 271 da.

Telebistak

Telebistetako langileak eta telebistetarako zerbitzuak ematen dituzten enpresetakoak biltzen dira azpi-multzo honetan; Eustaten Gidazerrendaren arabera, 20 establezimendu eta enplegua berriz, 708. 10 enpresez osatutako lagin bati egin zaio inkesta eta euskararen batez besteko presentzia mailaren indizea %37,8koa dela izan da lortutako emaitza. 311 laguneko enplegua estimatu da euskararako.



Internet bidezko hedabideak

Batik bat euskarri digitalean emititzen duten 8 hedabide hartu dira kontuan; enplegua guztira 58 pertsonakoa da eta euskara koefizientea berriz, % 39,0koa; 5 enpresa handienetan egindako datu bilketarekin estimatu da zein euskara koefiziente aplikatu (horietako batzuk, Eitbnet, El Correo Digital eta Deia Digital). Euskara-enplegu gisa jarduera-adar honetarako erabilitako datua 23 izan da.

Berri agentziak

Hedabideen azpi-sektorearekin amaitzeko, berri-agentziak ditugu. 73 dira Eustateko Gidazerrendan epigrafe honetan kokatutako establezimenduak; enplegua, 151. Langile gehien duten 13 berri agentzian egin da datu bilketa (azpimultzoko enplegu osoaren % 44 ordezkatzeko) eta batez besteko euskara koefizientea % 10,6 dela kalkulatu da. Ondorioz, jarduera-adar honetako euskara-enplegua 16 lagunekoa dela ezarri dugu.

Hedabideak guztira

Aurreko azpi-multzoetako enplegua batu ondoren, hedabideen alorrerako guztira estimatu duten euskara-enplegua, 920 lagunekoa da.

18. taula. Hedabideetako enpresen enplegua estimatzeko informazio iturriak, euskara koefizientea kalkulatzeko irizpideak eta erreferentziako enplegua

Azpi-sektorea	Jarduera-mota	Informazio iturriak							Erreferentziako enplegua
		Jarduera Ekonomikoen Gidazerrenda (Eustat,2012)		Eusko Jaurlaritza -Hizkuntza Politika (Hedabideetako dirulaguntza deialdia)	Enplegua	Euskara koefizienteari buruzko INKESTA (Siadeco,2015)			
		JESN epigrafea	Establezimendu kop.	Gehitutako enpresak		Lagin estrategikoa	Laginaren pisua	Euskara koefizientea (enpleguari jarraiki haztatua)	
II.7.- Hedabideak	Egunkariak	5813 7490	42	1	867	Langile kopururik altueneko 24 establezimendu	Enpleguaren % 98,3	Euskararen batez besteko presentzia-maila: % 27,1	235
	Aldizkariak	5814	77	2	248	Euskara hutsezko aldizkariak argitaratzen dituzten 11 elkarte hartu dira kontuan	Enpleguaren % 25,5	% 100,0	64
	Irratiak eta irratarako zerbitzu emaileak	6010	57	-	718	Langile kopururik altueneko 29 establezimendu	Enpleguaren % 91	Euskararen batez besteko presentzia-maila: % 37,8	271
	Telebistak eta telebistarako zerbitzu emaileak	6020	20	-	708	Langile kopururik altueneko 10 establezimendu	Enpleguaren % 97	Euskararen batez besteko presentzia-maila: % 37,8	311
	Internet bidezko hedabideak	5813 6312 7022	5	3	58	Langile kopururik altueneko 5 establezimendu	Enpleguaren % 91	Euskararen batez besteko presentzia-maila: % 39,0	23
	Berri agentziak eta kazetari autonomoak	6391	73	-	151	Langile kopururik altueneko 13 establezimendu	Enpleguaren % 44	Euskararen batez besteko presentzia-maila: % 10,6	16
	GUZTIRA		274	6	2.750	92	% 86,4		920

Iturria: Eustat 2012; Eusko Jaurlaritza-HPS; Siadecoren inkesta 2015; Siadecok landutako datuak ,2015

► **II.8. Euskara elkarteak.**

68 euskara elkarte identifikatu ditugu Eusko Jaurlaritzako euskalgintzako diru-laguntza deialdietako azken urteetako eskatzaileen zerrendatik.

Bestalde, Topagunea Euskara Elkarten Federaziotik 2007 urteari dagozkion hainbat datu eskuratu ditugu:

- 84 ziren momentu hartan federaziora bazkidetutako euskara elkarteak.
- 55 Euskara Elkarteren ondorengo datu ekonomikoak jaso zituzten: guztirako aurrekontua 8,6 milioi eurokoa, hedabideetarako aurrekontuak % 55eko pisua izanik. Kopuru horiek 84 elkarteetara estrapolatuz gero, 13,2 milioi euro ingurukoa izango litzateke aurrekontu osoa.
- Aurrekontuaren gastu motaren arabera banaketa aztertuta, soldatek %54,61ko pisua dute eta guztira 7,2 milioi euro dira pertsonal gastuen ordainketara bideratutakoak. Kopuru horri urteko batez besteko 35.000 euroko kostua aplikatuta, 206 enpleguko estimazioa egitera iristen gara.

19. taula. Euskara Elkarten enplegua estimatzeko informazio iturriak, euskara koefizientea kalkulatzeko irizpideak eta erreferentziako enplegua

Azpi-sektorea	Jarduera-mota	Informazio iturriak					Erreferentziako enplegua
		Eusko Jaurlaritza -Hizkuntza Politika (Euskalgintza diru-laguntza deialdia)	Topagunea - Euskara Elkarten Federazioa (2007)				
		Elkarte kopurua	Federatutako elkarte kopurua	Aurrekontuak (federatutako elkarte kopuru osora estrapolatuta)	Lanpostuak guztira	Estimatutako enplegua	
II.8.- Euskara elkarteak	Euskara elkarten jarduerak, tokiko hedabideen argitaratzea barne	68	84	Guztira: 13,2 milioi € Hedabideena: 7,3 milioi € Soldata: 7,2 milioi €	504	206	206

Iturria: Eustat 2012; Eusko Jaurlaritza-HPS; Topagunea, 2007; Siadecok landutako datuak, 2015



- ▶ II.9. Komunikazioa, kultura eta gizarte arloko bestelako elkarte eta enpresak; kultura, aisialdi eta gizarte gaietako bestelako elkarte eta enpresak; komunikazio eta publizitate zerbitzuen enpresak; internet zerbitzuak; eta dokumentazio zentroak eta unibertsitatearekin loturarik ez duten bestelako ikerketa zentroak.

Kultura, aisialdi eta gizarte gaietako elkarteak

Kultura, aisialdi eta gizarte gaietako bestelako elkarte eta enpresak biltzen dituen azpi-sektore honetarako guztira 225 establezimendu zerrendatu ditugu. 91 Eustateko Gidazerrendatik lortutakoa dira eta gainontzeko 134ak berriz, Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzatik kudeatutako euskararako diru-laguntza deialdietako azken urteetako eskatzaileen zerrendetatik identifikatutakoak.

Inkesta egin zaie azpi-multzo honetako 72 enpresa edota elkarteri eta batez besteko euskara koefizientea % 70,1koa da; enplegua kontuan hartuta, laginean parte hartu duten enpresen azpi-multzo osoko enpleguaren %63 ordezkatzen dute. Jarduera eta ezaugarri oso ezberdineko elkarteak bildu dira multzo honetan; erreferentzia bat izateko elkarte horien artean daude, Gizarte-Hezkuntzarako Ziba Elkartea, Suspergintza aisialdi Elkartea, bazterketa sozialaren aurkako Zubietxe Elkartea, Eusko Ikaskuntza, Elkargi, Azaro Fundazioa, Harribide Fundazioa, Amarauna Aisialdi Taldeen Federazioa, Galtzagorri elkarteak, Kultur Kabia Zerbitzuak...

Guztira 1.090 pertsona inguruko enplegua dute elkarte guzti horiek eta euskarari dagokiona 764 inguru izan daitekeela estimatu da.

Komunikazio eta publizitate zerbitzuak

Komunikazio eta publizitate zerbitzuak eskaintzen dituzten enpresen kasuan, 1.394 establezimendu identifikatu ditugu guztira (Eustaten Gidazerrendako 1.391 eta beste 3) eta jarduera-adar honek enplegatzen duen pertsona kopurua berriz, 3.995 inguru. Euskara koefizientea kalkulatzeko, inkesta egin da eta lortutako emaitza, % 15,7 izan da; 26 komunikazio eta publizitate enpresekin jarri gara harremanetan eta sektoreko enplegu osoaren %15 ordezkatzen dute. Jarduera-adar honetan euskarari 627 laguneko enplegua inputatu zaio.



Internet zerbitzuak

Eustateko JEGID erroldan ageri direnak 29 eta bestelako informazio iturriak begiratzuz atzeman ditugun beste 6 erantsita, guztira 35 establezimenduk osatzen duten nagusiki internet zerbitzuak eskaintzen dituztenen multzoa; enplegua berriz, guztira 318 enplegatu. Zuzeneko datu bilketa 14 establezimendutan egin ondoren (enplegu osoaren %49), batez besteko euskara koefizientea % 22,1 dela kalkulatu da. Tamaina aldetik handienak diren batzuk, Hispavista Empresas, Codesyntax, Adimedia, etab. Jarduera-adar honetako enplegutik euskarari dagozkionak 70 inguru izan daitezkeela estimatu da.

Dokumentazio eta ikerketa zentroak

Eta azkenik, dokumentazio eta ikerketa zentroen azpi-multzoari dagokionez, esan, 10 establezimendu daudela Eustateko Gidazerrendan (adibidez, Centro de Documentacion y Estudios Siis eta Lazkaoko Beneditarren Fundazioa), 32 laguneko enplegurekin. Liburutegi zerbitzu pribatuen euskara koefiziente bera aplikatuz (% 31,7 hain xuxen ere), 10 euskara enplegu inguru estimatu dira.

Komunikazioa, kultura eta gizarte arloko elkarreak guztira

Aurreko lau jarduera-adarretako euskara-enpleguaren datuak batuta, guztira 1.471 izango litzateke komunikazioa, kultura eta gizarte arloko enpresak biltzen dituen azpi-sektoreari dagokion euskara-enplegua.

20. taula. Komunikazioa, kultura eta gizarte arloko enpresen enplegua estimatzeko informazio iturriak, euskara koefizientea kalkulatzeko irizpideak eta erreferentziako enplegua


Azpi-sektorea	Jarduera-mota	Informazio iturriak							Erreferentziako enplegua
		Jarduera Ekonomikoen Gidazerrenda (Eustat,2012)		Eusko Jaurlaritza -Hizkuntza Politika (dirulaguntza deialdi ezberdinak)	Enplegua	Euskara koefizienteari buruzko INKESTA (Siadeco,2015)			
		JESN epigrafea	Establezimendu kop.			Gehitutako enpresak	Lagin estrategikoa	Laginarena pisua	
II.9.- Komunikazioa, kultura eta gizarte arloko bestelako elkarte eta enpresak	Kultura, aisialdi eta gizarte gaietako bestelako elkarte eta enpresak	5811 5912 6399 7022 7220 7490 9001 9002 9105 9106	91	134	1.090	Langile kopururik altueneko 72 elkarte edo enpresa	Enpleguaren % 63	Euskararen batez besteko presentzia-maila: % 70,1	764
	Komunikazio eta publizitate zerbitzuak	7021 7311 7490	1.391	3	3.995	Langile kopururik altueneko 26 enpresa	Enpleguaren % 15	Euskararen batez besteko presentzia-maila: % 15,7	627
	Internet zerbitzuak	6312 7430 7490	29	6	318	Langile kopururik altueneko 14 enpresa	Enpleguaren % 49	Euskararen batez besteko presentzia-maila: % 22,1	70
	Dokumentazio eta ikerketa zentroak	9105 9106	10		32	-	-	Liburutegi zerbitzu pribatuetako euskara koefiziente bera (% 31,7)	10
	GUZTIRA		1.521	143	5.435				1.471

Iturria: Eustat 2012; Eusko Jaurlaritza-HPS; Siadecoren inkesta 2015; Siadecok landutako datuak ,2015

► II.10. Kultura eta hedabideen industria GUZTIRA

Bigarren euskara-sektore honek, kultura eta hedabideen industriak alegia, biltzen dituen 9 azpi-sektoreetako euskara-enpleguaren datua guztira 4.550 izatera iristen da; bi azpi-sektorerik garrantzitsuenak, komunikazioa, kultura eta gizarte arloko enpresa eta elkarten azpi-sektorea (1.471 enplegu) eta hedabideen sektorea dira (920 enplegu); bi horien atzetik: kultur sortzaileak (616 enplegu), ikus-entzunezkoen industria (547 enplegu), liburugintza (488 enplegu), euskara elkarteak (206 enplegu), arte eszenikoak (165 enplegu), bertsolaritza (80 enplegu) eta musikaren industria (57 enplegu).

2. Grafikoa. Kultura eta hedabideen industriako sektoreen euskara-enplegua, azpi sektoreei jarraiki (kopuru absolutuak eta %)



Iturria: Siadecok landutako datuak, 2015.

21. taula. Kultura eta hedabideetako industriaren erreferentziako enplegua guztira eta azpi-sektorekako banaketa

Sektorea	Azpi-sektorea	Erreferentziako enplegua	
		Kop.	%
II. Kultura eta hedabideen industria	II.1.- Liburugintza	488	10,7
	II.2.- Musikaren industria	57	1,3
	II.3.- Kultur sortzaileak	616	13,5
	II.4.- Ikus-entzunezkoen industria	547	12,0
	II.5.- Arte eszenikoak	165	3,6
	II.6.- Bertsolaritza	80	1,8
	II.7.- Hedabideak	920	20,2
	II.8.- Euskara elkarteak	206	4,5
	II.9.- Komunikazioa, kultura eta gizarte arloko bestelako elkarte eta enpresak	1.471	32,3
GUZTIRA		4.550	100,0



2.5.3/ Hezkuntza eta unibertsitate arloko jarduerak

Hezkuntzaren alorra da ikerketa honetarako kontuan hartu den hirugarren euskara-sektore garrantzitsua; zehatzago esanda, hezkuntza-sistema osoan euskarazkoa den hezkuntzari dagozkion enpleguaren eta aldagai ekonomikoen datuak kalkulatu dira. Horretarako jarraitutako irizpide nagusia, hezkuntza etapa eta irakats eredu bakoitzean irakats ordu guztiekiko euskarazkoek duten pisua jakitea izan da, ondoren koefiziente hori, irakats eredu eta etapa bakoitzeko enpleguarekin biderkatu eta euskarari dagozkion enpleguaren datuak estimatzera iristeko.

Hezkuntza eta unibertsitate arloko jarduerari dagokien sektore honen barnean, lau azpi-sektore bereizi dira:

- Haur eta Lehen Hezkuntza.
- Bigarren Hezkuntza (DBH; Batxilergoa eta Lanbide Heziketa; Hasierako Lan Kualifikazio programak).
- Unibertsitatea.
- Hezkuntza alorreko bestelako euskara elkarte eta erakundeak.

▶ III.1 Haur-Lehen Hezkuntza eta Bigarren Hezkuntza

Euskara koefizienteak

Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailaren informazioa erabiliz kalkulatu ditugu Haur-Lehen Hezkuntza eta Bigarren Hezkuntzako irakats ordu guztien eta euskarazkoen datuak; 2012-2013 ikasturteari dagozkionak dira. Datu horien arabera irakats eredu (A, B edo D eredu) eta hezkuntza-etaparen arabera (Haur-Lehen Hezkuntza, DBH, Batxilergoa eta Lanbide Heziketa) kalkulaturako euskara koefizienteak ondokoak dira:

- A eredu: euskara irakasgaiari dagozkion orduak irakats ordu guztiekiko duten pisuaren arabera kalkulatu dira euskara koefizienteak: % 14,4 Haur eta Lehen Hezkuntzan, % 11,0 DBHn eta %7,9 Batxilergoa eta Lanbide Heziketan.
- B eredu: euskara irakasgaiari dagozkion orduak eta gainerako irakasgaien erdiak ere euskaraz ematen direla kontsideratuz, ondoko euskara koefizienteak kalkulatu dira: %58,75 Haur eta Lehen Hezkuntzan, % 56,2 DBHn eta %53,25 Batxilergoan eta Lanbide Heziketan.
- D eredu: euskarazko irakats orduak guztiak izango lirateke, gaztelarakoak izan ezik Lehen Hezkuntzan eta gaztelera eta ingelerakoak izan ezik DBHn eta Batxilergoan eta Lanbide Heziketan; euskara

koefizientea estimatzeko egindako kalkulu en emaitzak ondokoak dira: %85,60 Haur eta Lehen Hezkuntzan, % 78,00 DBHn eta %84,20 Batxilergoan eta Lanbide Heziketan.

22. taula. Irakaskuntza etapa eta eredu bakoitzean aplikatu beharreko euskara koefizienteen zehaztapena eta horien inguruko argibideak

Eredua	Argibideak	Aplikaturako euskara koefizientea			
		Haur eta Lehen Hezkuntza	DBH	Batxilergoa eta Lanbide Heziketa	Hasierako lan-kualifikazio programak
A	Euskarazko irakats orduak, euskara irakasgairiak bakarrik	% 14,40	% 11,00	% 7,90	% 0,00
B	Euskarazko irakats orduak, euskarakoak eta gainerakoak erdiak	% 17,3 + (% 82,7/2) = % 58,65	% 12,4 + (% 87,6/2) = % 56,2	% 6,5 + (% 93,5/2) = % 53,25	
D	Euskarazko irakats orduak, guztiak, gaztelera izan ezik LHn eta gaztelera eta ingelera izan ezik DBHn eta Batxilergoan eta Lanbide Heziketan	(% 100,0 - % 14,4) = % 85,60	(% 100 - % 11,0*2) = % 78,00	(% 100 - % 7,9*2) = % 84,20	
X	Euskarazko irakats orduak ez	% 0,0	% 0,0	% 0,0	

Iturria: Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Saila, 2012-2013 ikasturtea: Siadecok landutako datuak, 2015

Irakasleak

Eustateko datuak erabiliz, ikasleen eredu bakoitzeko banaketaren proportzio berak erabiliz estimatu dira eredu bakoitzean lan egiten duten irakasleen kopuruak.

Haur eta Lehen Hezkuntzan 18.266 irakasle lan egiten dute guztira; kopuru horretan bi etapetan lan egiten duten irakasleak behin bakarrik daude kontabilizatuak eta ez daude errepikatuak.

Bigarren Hezkuntzako irakasleak guztira 15.402 dira; hurrengo koadroan Bigarren Hezkuntzako mailako irakasleen baturak 19.479 ematen du, irakasle batzuk maila batean eta bestean errepikatuak daudelako. Irakats eredu eta hezkuntza etapa bakoitzerako estimaturako irakasleen kopuru zehatzak ondoko koadrokoak dira:



23. taula. Irakaskuntza etapa eta eredu bakoitzeko irakasle kopuruaren estimazioa, ikasle kopuruaren arabera egina

Eredua	Etapa	Ikasleak		Irakasleak	
		Kop.	%	Kop.	%
A	Haur eta Lehen hezkuntza	12.110	5,6	1.018	5,6
	DBH	10.155	14,0	1.407	14,0
	Batxilergoa eta Lanbide Heziketa	34.922	59,1	4.956	59,1
	Hasierako lan-kualifikazio programak	4.404	100,0	748	100,0
	Guztira				
B	Haur eta Lehen hezkuntza	53.616	24,7	4.507	24,7
	DBH	20.010	27,7	2.773	27,7
	Batxilergoa eta Lanbide Heziketa	1.159	2,0	171	2,0
	Hasierako lan-kualifikazio programak	-	-	-	-
	Guztira	74.785	21,2	7.451	19,7
D	Haur eta Lehen hezkuntza	150.278	69,2	12.631	69,2
	DBH	41.690	57,6	5.778	57,6
	Batxilergoa eta Lanbide Heziketa	22.787	38,6	3.540	38,6
	Hasierako lan-kualifikazio programak.....	-	-	-	-
	Guztira	214.755	60,8	21.949	58,2
X	Haur eta Lehen hezkuntza	1.310	0,6	110	0,6
	DBH	510	0,7	71	0,7
	Batxilergoa eta Lanbide Heziketa	206	0,3	35	0,3
	Hasierako lan-kualifikazio programak	-	-	-	-
	Guztira				
GUZ-TIRA	Haur eta Lehen hezkuntza	217.314	61,5	18.266	100,0
	DBH	72.365	20,5	10.029	100,0
	Batxilergoa eta Lanbide Heziketa	59.074	16,7	8.702	100,0
	Hasierako lan-kualifikazio programak	4.404	1,2	748	100,0
	Guztira	353.157	100,0	37.745	100,0

Iturria: Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Saila, 2012-2013 ikasturtea; Siadecok landutako datuak, 2015

Haur Hezkuntzatik hasi eta Bigarren Hezkuntza amaitu arteko ikasmaila guztietako irakasleak guztira 33.668 izanik (irakasle errepikatuen kopuruak kenduta), irakats eredu eta hezkuntza etaparen arabera kalkulaturako euskarak koefizienteak aplikatu ondoren eta irakats maila ezberdinetan errepikatuak dauden irakasleen kopuruak kentzeko indize zuzentzaileak aplikatu ondoren, 21.258an geratzen da euskarari hezkuntza sistema arautuan inputatu beharreko irakasleen enplegua. Hurrengo bi koadroetan jasotzen dira datu zehatzagoak.

24. taula. Euskarazko irakasgaietako hasierako irakasle kopuruaren estimazioa, etapa eta irakats ereduaren araberrako euskara koefiziente aplikatu ondoren

Eredua	Etapa	Etapa eta eredu bakoitzeko euskarazko irakasgaien irakasleen kopuruaren hasierako estimazioa	
		Koefiziente (%)	Irakasle kopurua
A	Haur eta Lehen hezkuntza	14,4	147
	DBH.....	11,0	155
	Batxilergoa eta Lanbide Heziketa	7,9	392
	Hasierako lan-kualifikazio programak.....	-	-
	Guztira		693
B	Haur eta Lehen hezkuntza	58,65	2.643
	DBH.....	56,2	1.558
	Batxilergoa eta Lanbide Heziketa	53,25	91
	Hasierako lan-kualifikazio programak.....	-	-
	Guztira		4.293
D	Haur eta Lehen hezkuntza	85,6	10.812
	DBH.....	78	4.507
	Batxilergoa eta Lanbide Heziketa	84,2	2.981
	Hasierako lan-kualifikazio programak.....	-	-
	Guztira		18.300
X	Haur eta Lehen hezkuntza	-	-
	DBH.....	-	-
	Batxilergoa eta Lanbide Heziketa	-	-
	Hasierako lan-kualifikazio programak.....	-	-
	Guztira		-
GUZ-TIRA	Haur eta Lehen hezkuntza		13.602
	DBH.....		6.220
	Batxilergoa eta Lanbide Heziketa		3.463
	Hasierako lan-kualifikazio programak.....		-
	Guztira		23.285

Iturria: Siadecok landutako datuak, 2015

25. taula. Euskarazko irakasgaietako behin betiko irakasle kopuruaren estimazioa, maila ezberdinetan klaseak ematen dituzten irakasleei dagokien koefiziente zuzentzailea aplikatu ondoren

	Etapa bakoitzeko euskara irakasleen kopuruaren hasierako estimazioa	Irakasle kopurua kalkulatzeko koefiziente zuzentzailea (%)	Etapa bakoitzeko euskara irakasleen kopuruaren behin betiko estimazioa
Haur eta Lehen Hezkuntza	13.602	100,00	13.602
DBH	6.220	79,07	4.918
Batxilergoa eta Lanbide Heziketa	3.463	79,07	2.738
Hasierako lan-kualifikazio programak.....	-	-	-
GUZTIRA			21.258

Iturria: Siadecok landutako datuak, 2015

Pertsonal ez irakaslea

Bestalde Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza departamentuko datuen arabera, hezkuntza sistema osoan, irakasleez aparteko pertsonal ez irakaslea beste 15.380 lagun izatera iristen da. Ondorioz, pertsonal ez irakasleak irakasleen kopuru osoarekiko duen ratioa %45,68koa da.

26. taula. Erreferentziako enpleguaren estimazioa, irakasle kopuruari pertsonal ez irakaslea gehitu ondoren

	Irakasle kopurua	Pertsonal ez irakaslea	Pertsonal ez irakaslearen irakasleekiko koefizientea (%)
Haur eta Lehen Hezkuntza	18.266		
Bigarren Hezkuntza.....	15.402		
GUZTIRA	33.668	15.380	45,68 l

Iturria: Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Saila, 2012-2013 ikasturtea; Siadecok landutako datuak, 2015

Haur-Lehen Hezkuntza eta Bigarren Hezkuntzako euskara-enplegua

Irakasleen guztirako kopuruari pertsonal ez irakaslea gehituta, guztira 30.696ko enplegua izateraino iristen da Haur Hezkuntzatik hasi eta Bigarren Hezkuntzako azken ikasmilara arteko hezkuntza etapetako euskara-enplegua.

27. taula. Haur eta Lehen Hezkuntza eta Bigarren Hezkuntzarako erreferentziako euskara-enplegua

	Erreferentziako euskara-enpleguaren estimazioa
Irakasleak	21.258
Ez irakasleak.....	9.711
GUZTIRA	30.969

Iturria: Siadecok landutako datuak, 2015.

Hezkuntzaren arloan, euskara koefizienteak euskarazko irakats orduen arabera ez, baizik eta euskara irakasgaiaren orduak bakarrik kontuan hartuta ere kalkulatu dira. Hezkuntzan enplegatutako pertsonalari aplikatu beharreko euskara koefizienteak nabarmen baxuagoak dira eta hipotesi horri jarraiki lortutako euskara-enpleguaren azken emaitza, 7.360 da (irakasleak eta pertsonal ez irakaslea ere sartuta).

► III.2- Unibertsitateko Hezkuntza

Unibertsitateko ikasmailetan euskarazko kredituei lotutako enplegua kalkulatzeko, Euskal Herriko Unibertsitatea, Deustuko Unibertsitatea eta Mondragon Unibertsitateak emandako datuekin egin da lan.

Euskal Herriko Unibertsitatean, Deustuko Unibertsitatean eta Mondragon Unibertsitatean egiten den eskaintzaren berri ematen da jarraian. 2014-2015 ikasturteko gradu eta graduondoko kredituetatik abiatuta, euskarazko kredituek guztizkoarekiko duten pisuaren emaitza da langileei, edo zehatzago esateko lanaldi osoei aplikaturiko koefizientea euskara-enpleguaren estimazioa egitera iristeko.

Euskal Herriko Unibertsitatea

Euskal Herriko Unibertsitateko Euskara Errektoreordetzarenak dira Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako kanpusetako datuak; hiru lurraldeak osorik hartuta, guztira graduetan eskainitako kredituak 41.369 izanik, 21.180 dira euskaraz ematen direnak; proportzio hori erabilita, %48,8 da ateratzen den euskara koefizientea.

28. taula. Euskal Herriko Unibertsitateko graduetakoko kreditu eskaintza hizkuntzaren arabera eta estimatutako euskara koefizientea

Lurraldea	Graduetako kredituak			Euskara koefizientea (%)
	Gaztelaniazko kredituak	Euskarazko kredituak	Guztirako kredituak	
Bizkaiko kanpua	10.295	9.662,5	19.957,5	48,42
Gipuzkoako kanpua	5.285,5	5.814,5	11.100	52,38
Arabako Kanpua	5.599	4.713	10.311	45,71
GUZTIRA	21.180	20.190	41.369	48,81

Iturria: Euskal Herriko Unibertsitatea-Euskara Errektoreordetza, 2014-2015 ikasturtea

Aurreko irizpide berdinak erabiliz graduondo eta masterretako eskaintzarako kalkulaturako euskara koefizientea nabarmen baxuagoa da, % 10,02koa hain zuen ere.

29. taula: Euskal Herriko Unibertsitateko graduondo eta masterretako kreditu eskaintza hizkuntzaren arabera eta estimatutako euskara koefizientea

Lurraldea	Graduetako kredituak			Euskara koefizientea (%)
	Gaztelaniazko kredituak	Euskarazko kredituak	Guztirako kredituak	
EHU guztira	6.138,65	683,94	6.822,59	10,02

Iturria: Euskal Herriko Unibertsitatea-Euskara Errektoreordetza, 2014-2015 ikasturtea. Siadecok landutako datuak, 2015.

EHUren irakaskuntza-mota guztiak, hau da, gradu, graduondoko eta masterretako eskaintza osoa kontuan izanik lortutako batez besteko euskara koefizientea %43,31 da.

EHUren irakasleak eta ikertzaile modura lan egiten dutenak guztira 3.832 dira (lanaldi osoak) eta beste 1.878, administrazio orokorrean lan egiten dutenak. Enplegu guzti horri % 43,31ko euskara koefizientea aplikatzen badiogu, 2.473 izango litzateke Euskal Herriko Unibertsitatearen euskara-enplegua.

30. taula: Euskal Herriko Unibertsitateko guztirako enplegua (lanaldi osora) eta estimatutako euskara-enplegua

	Enplegua (lanaldi osotan)	Batez besteko euskara koefizientea (%)	Euskara enplegua
Irakasleak eta ikertzaileak	3.832,58		
Administrazio orokorra	1.878		
GUZTIRA	5.710,58	43,31	2.473,25

Iturria: Euskal Herriko Unibertsitatea- Euskara Errektoreordetza, 2014-2015 ikasturtea. Siadecok landutako datuak, 2015.

Deustuko Unibertsitatea

Deustuko Unibertsitatean, ikerketa honetarako behar genituen datuak, Euskara eta Eleaniztasuneko Zuzendaritzaren bitartez eskuratu ditugu; Bilboko eta Donostiako kanpusetako datuak jaso dira. Arlo guztietako graduen eskaintzan euskarak duen presentziaren araberako kalkulua eginda, % 38 da estimatutako euskara koefizientea.

31. taula. Deustuko Unibertsitateko graduetao hizkuntzaren araberako kreditu eskaintza eta kalkulaturako euskara koefizientea

Arloa	Graduetao kredituak			Euskara koefizientea (%)
	Gaztelaniako kredituak	Euskarazko kredituak	Guztirako kredituak	
Gizarte eta Giza Zientziak	1.419	861	2.280	38,00
Psikologia eta Hezkuntza	256	644	900	72,00
Zuzenbidea	180	348	528	66,00
Ingeniaritza	900	240	1.140	21,00
Enpresa eta Ekonomia Zientziak	420	168	588	29,00
Gradu bikoitzak	1.302	498	1.800	28,00
GUZTIRA	4.477	2.759	7.236	38,00

Iturria: Deustuko Unibertsitatea- Euskara eta Eleaniztasuneko Zuzendiritza, 2014-2015 ikasturtea. Siadecok landutako datuak, 2015.

Graduondo eta masterretako eskaintzaren euskara koefizientea % 6,39koa da.

32. taula: Deustuko Unibertsitateko graduondo eta masterretako kreditu eskaintza hizkuntzaren arabera eta estimaturako euskara koefizientea

Lurraldea	Graduondo eta masterretako kredituak			Euskara koefizientea (%)
	Gaztelaniako kredituak	Euskarazko kredituak	Guztirako kredituak	
Deustuko Unibertsitatea guztira	3.353	229	3.582	6,39

Iturria: Deustuko Unibertsitatea- Euskara eta Eleaniztasuneko Zuzendiritza, 2014-2015 ikasturtea. Siadecok landutako datuak, 2015.

Deustuko Unibertsitaterako kalkulaturako batez besteko euskara koefiziente orokorra %27,62 da eta koefiziente hori enplegu osoarekin biderkatuz lortutako euskara-enplegua berriz, 276 lagunekoa.

33. taula: Deustuko Unibertsitateko guztirako enplegua eta estimatutako euskara-enplegua

	Lanaldi osoak	Batez besteko euskara koefizientea (%)	Euskara-enplegua
Irakasle-ikerlariak	394,61		
Administrazio orokorra	452,69		
Ikerlariak	153,75		
Guztira	1.001,05	27,62	276,50

Iturria: Deustuko Unibertsitatea- Euskara eta Eleaniztasuneko Zuzendiritza, 2014-2015 ikasturtea. Siadecok landutako datuak, 2015.

Deustuko Unibertsitateara atxikitako Begoñako Andra Mari (BAM) Irakasleen Unibertsitate Eskolara ere jo da ikerketa honetarako behar genituen datuak eskuratzeko. Bertako langileak zenbat diren jakin dugu, 46 hain zuzen ere; euskarazko eskaintzaren daturik ordea kasu honetan ezin da eskuratu eta koefiziente hori %50ren bueltan ibili daitekeela estimatu dugu. Zentro horretarako estimatutako euskara-enplegua 23 izango litzateke beraz.

Mondragon Unibertsitatea

Mondragon Unibertsitateko Idazkaritzaren bitartez eskuratu dira eskaintza eta enpleguari buruzko datuak. Horrela, arlo guztietako graduen eskaintza kontuan izanda % 54,60koa da estimatutako euskara koefizientea.

34. taula: Mondragon Unibertsitateko graduetako hizkuntzaren araberako kreditu eskaintza eta estimatutako euskara koefizientea

Fakultatea	Graduetako kredituak			Euskara koefizientea (%)
	Gaztelaniazko kredituak	Euskarazko kredituak	Guztirako kredituak	
Goi Eskola Politeknikoa	1.318,76	841,24	2.160	38,95
Enpresa Zientzien Fakultatea	323	157	480	32,71
Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatea	-	1.265	1.265	100,00
Gastronomia Zientzien Fakultatea - Basque Culinary Center	240	-	240	0,00
GUZTIRA	1.881,76	2.263,24	4.145	54,60

Iturria: Mondragon Unibertsitatea, 2014-2015 ikasturtea. Siadecok landutako datuak, 2015.

Aldiz, graduondo eta masterretako kredituen eskaintzan oinarritutako euskara koefizientea % 18,43koa da.

35. taula. Mondragon Unibertsitateko graduondo eta masterretako kreditu eskaintza hizkuntzaren arabera eta estimatutako euskara koefizientea

Fakultatea	Graduetako kredituak			Euskara koefizientea (%)
	Gaztelaniazko kredituak	Euskarazko kredituak	Guztirako kredituak	
Mondragon Unibertsitatea guztira	1.027	232	1.259	18,43

Iturria: Mondragon Unibertsitatea, 2014-2015 ikasturtea. Siadecok landutako datuak, 2015.

Unibertsitate honen enplegua guztira 491 izanik (lanaldi osora) eta batez besteko euskara koefiziente orokorra % 46,17, 226 laguneko euskara-enplegua estimatu dugu.

36. taula: Mondragon Unibertsitateko guztirako enplegua eta estimatutako euskara-enplegua

	Lanaldi osoak	Batez besteko euskara koefizientea (%)	Euskara-enplegua
Irakasleak	305,31		
Administrazio orokorra	185,32		
Guztira	490,63	46,17	226,52

Iturria: Mondragon Unibertsitatea, 2014-2015 ikasturtea. Siadecok landutako datuak, 2015.

Unibertsitateetako euskara enplegua guztira

Hiru unibertsitateetarako egindako kalkuluen arabera, guztira 3 mila laguneko enplegua da unibertsitate alorrean euskarari inputatu beharrekoa.



37. taula: EAEko Unibertsitateen euskara enplegu estimatua

Unibertsitatea	Euskara-enplegua (lanaldi osora)
Euskal Herriko Unibertsitatea	2.473,25
Deustuko Unibertsitatea (BAM barne)	299,50
Mondragon Unibertsitatea	226,52
Guztira	2.999,27

Iturria: Siadecok landutako datuak, 2015.

Euskara koefizienteen kalkulurako euskarazko irakats eskaintza ez baizik eta EAEko Unibertsitateetan euskarari loturiko gradu eta graduondoak soilik hartuko bagenitu irizpide modura, 115 enplegukoa litzateke egindako estimazioa. Estimazio hori egiteko Euskal Herriko Unibertsitateko Hizkuntzalaritza eta Euskal Ikasketak gradua eta Euskal Hizkuntzalaritza graduondokoa eta Deustuko Unibertsitateko Euskal Hizkuntza eta Kultura graduari loturiko enplegua izan da kontuan hartu dena.

► III.3- Hezkuntza alorreko bestelako elkarte eta erakundeak.

Eustateko Jarduera Ekonomikoaren Gidazerrendan hezkuntza arloaren epigrafeetan kokatuak dauden eta euskararekin lotura estua duten elkarteak bildu ditugu laugarren azpi-multzo honetan. Guztira Eustaten Gidazerrendan hezkuntza arloko epigrafeetan erregistraturiko establezimenduak 3.185 dira eta horietan 9.193 enplegu daudela estimatzen da. Ikerketa honetarako ordea, eta elkarte horiek zein diren aztertu ondoren, tamainarik handieneko eta euskararekin lotura duten 27 entitate bakarrik hartu dira kontuan. Horien artean daude, Urtxintxa Atsedendaldiko Hezitzaileen eskola, Udako Euskal Unibertsitatea eta kulturari loturiko hezkuntza zerbitzuak eskaintzen dituzten beste hainbat enpresa eta elkarte. Horiei Euskal Herriko Unibertsitateko Elebilab programarako enplegua gehituta, guztira 154 dira azpi-sektore honetarako estimatutako erreferentziako enpleguak.

38. taula. Hezkuntza alorreko bestelako elkarte eta erakundeetako enpleguaren Eustateko Gidazerrrendako datuak eta erreferentziako enplegua estimatzeko iturriak

Azpi-sektorea	Informazio iturria					Erreferentzi-azko enplegua
	Jarduera Ekonomikoen Gidazerrrenda (Eustat, 2012)			Enplegua guztira	EHU - Elebilab Gehitutako erakundearen enplegua	
	JESN epigrafea	Establezimendu kop.	Enplegua			
IV.4.- Hezkuntza alorreko bestelako elkarte eta erakundeak	8551 8552 8559	3185	9193	120 (JEGID-en erregistraturiko establezimendu en % 0,8ri dagokion enplegua)	34	154

Iturria: Siadecok landutako datuak, 2015.

► III.4- Hezkuntza eta unibertsitate arloko jarduerak guztira.


Ikerlan honen lau hizkuntza-sektoreetan hezkuntzari dagokion hirugarren honek du pisurik handiena. Hezkuntza eta unibertsitate arloko EAEko era guztietako erakundeen hezkuntza-jardueran euskarak pisu oso inportantea du, euskara, euskarazko hezkuntzaren ezinbesteko bitarteko da; euskarazko hezkuntzak orotara 34 mila laguneko enplegua sortzen du EAEn, haur hezkuntzatik hasi eta unibertsitateko ikasmailetaraino, euskaraz egiten den hezkuntza-jarduera kontuan hartzen bada. Haur eta Lehen Hezkuntzarako estimatutako euskara-enplegua ia 20 mila lagunekoa da, Bigarren Hezkuntzarako 11 mila inguru (DBH, Batxilergoa eta Lanbide Heziketa barne) eta unibertsitatean 3 mila.

39. taula. Hezkuntza eta unibertsitate arloko jardueren sektoreko erreferentziazko enplegua guztira eta azpi-sektorekako banaketa

Sektorea	Azpi-sektorea	Erreferentziazko euskara-enplegua	
III. Hezkuntza eta unibertsitate arloko jarduerak	III.1.- Haur eta Lehen Hezkuntza	19.816	58.1
	III.2.- Bigarren Hezkuntza	11.153	32.7
	III.3.- Unibertsitateko Hezkuntza	2.999	8.8
	III.4.- Hezkuntza alorreko bestelako euskara elkarte eta erakundeak	154	0.4
GUZTIRA		34.122	100.0

Iturria: Siadecok landutako datuak, 2015.

3. Grafikoa. Hezkuntza eta unibertsitate arloko euskara-enplegua, hezkuntza-motari jarraiki (kopuru absolutuak eta %)



Iturria: Siadecok landutako datuak, 2015.



2.5.4/ IV. Sektorea – Administrazio publikoa:

Administrazio publikoa: euskararen sustapenerako herri-administrazioen egitura eta zerbitzuetako enpleguaz gain, kulturaren industriak EAEn duen bolumenarekiko euskarazkoak duen pisuaren arabera, herri administrazioetako kultura arloetako enpleguaren zati bat ere kontuan hartu da laugarren sektore honen barnean.

Euskararen sustapenerako herri-administrazioen zuzeneko enplegua


EAEko herri-administrazioetako euskara zerbitzu eta hizkuntza normalizatorako egituretako pertsonala da laugarren hizkuntza-sektore honen barruan sartutako lehen azpimultzoa. Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak azkena 2012ko datuekin eginiko ikerlanaren arabera, 716 lagunek egiten dute lan Eusko Jaurlaritzaren Saisetako, hiru foru aldundietako eta 5 mila biztanlez gorako udalerrietako udalek euskara sustatzeko dituzten zerbitzu edota departamentuetan.

40. taula. Herri administrazioetako euskara arlokoetako erreferentziatzko enplegua

Azpi-sektorea	Jarduera-mota	Aurrekontu oso bateratua	Diru-laguntza eta hitzarmenak (IV. eta VII. kap.)	Enplegua (egun osora)
IV.1.- Herri administrazioetako euskara arloetako baliabideak	5000 biztanlez gorako EAEko udalerrri eta hiriburuetako euskara zerbitzuak	39.094.699 €	14.481.951 €	214
	Foru Aldundietako euskara arloak	17.507.814 €	10.286.547 €	55
	Eusko Jaurlaritzaren sailetako euskara zerbitzuak	93.070.112 €	52.236.331 €	309
	Eusko Jaurlaritzaren menpeko erakunde autonomoak			138
	GUZTIRA	149.672.625 €	77.004.829 €	716

Iturria: Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza, 2012

4. Grafikoa. Herri-administrazioen euskara arloetako zuzeneko enplegua, erakunde-motaren arabera (kopuru absolutuak eta %)



Iturria: Siadecok landutako datuak, 2015.

Kulturaren sustapenerako herri-administrazioen zuzeneko enplegutik euskarari dagokionaren estimazioa

Euskarazko kultura eta hedabideen industriakoak diren enpresa, elkarte eta erakundeetako euskara-enplegua estimatu da ikerlan honen lau euskara-sektoreetatik bigarreneko. Laugarren honen bigarren azpimultzorako egindako enpleguaren estimazioa berriz, herri-administrazioen kultura arloetako enpleguari dago lotua, hau da, herri administrazioek euskarazko kultura sustatzeko lan egiten duten neurrian, kulturako enpleguaren zati bat euskara-enplegu gisa kontsideratzea proposatzen da. Horretarako, Eusko Jaurlaritzako Kulturaren Euskal Behatokiak bi urtez behin egiten duen ikerlanaren emaitzak erabili dira; ikerlan horrek, herri administrazioetan kultur sektore bakoitzean lan egiten dutenak zenbat diren jasotzen du. Bestalde kultur sektore bakoitzean euskarari zenbat enplegu inputatu jakiteko, kultur sektore bakoitzerako kalkulaturako euskara-koefizienteak ere baditugu (kultura eta hedabideen industriarako kalkulatuak). Datu guzti horiek erabili eta elkar gurutzatuz, herri administrazioetako kultura arloetako giza baliabideen euskara-enplegua estimatu da.


Herri-administrazioen eta kultura arloko erakunde publiko autonomoetako zuzeneko enplegua 1.770 da, Eusko Jaurlaritzako Kulturaren Euskal Behatokiak 2012ko datuekin egindako ikerlanaren arabera. Kultur sektorerik sektore, bakoitzeko enplegua dagokion euskara koefizientearekin biderkatuta lortutako azken emaitza da, 795 lanpostu inguru direla ikerketa honetarako kontuan hartu beharrekoak.

41. taula. Herri administrazioen eta menpeko erakunde autonomoen kultura arloetako erreferentziatzko enplegua

Azpi-sektorea	Kultur sektorea	Jarduera-mota	Informazio iturriak							Erreferentziatzko enplegua	
			Eusko Jaurlaritza – Hizkuntza Politika (Euskararen aurrekontu eta baliabide publikoen estatistika, 2012)								
			Aurrekontua	Pertsonal gastuak (I. kap.)	Zerbitzu kontratazioa (II. kap.)	Diru-laguntza eta hitzarmenak (IV. eta VII. kap.)	Gainerako gastu eta inbertsioak (III., VI, VIII eta IX. Kap)	Enplegua	Euskara koefizientea		
IV.2- Herri administrazioen eta menpeko erakunde autonomoen kultura arloetako baliabideak	Kultur ondarea	Ondarea eta arkeologia	18.197.393	4.120.822	3.557.865	3.589.641	6.929.065	56	0,0%	-	
		Liburutegiak	35.233.842	19.291.771	12.735.032	53.249	3.153.790	261	31,7%	83	
		Artxiboak	13.419.286	5.805.512	2.821.638	1.094.491	3.697.645	79	31,7%	25	
		Museoak	44.505.444	10.556.419	17.968.550	11.568.856	4.411.619	143	5,0%	7	
	Artea eta kulturaren industria	Antzerkia eta dantza	30.636.221	7.405.860	14.886.209	7.638.370	725.782	100	49,0%	49	
		Musika	93.185.966	48.738.235	23.065.752	10.111.160	11.270.819	660	61,3%	405	
		Ikusizko arteak	7.769.941	1.516.287	3.627.442	2.380.083	246.129	21	0,0%	-	
		Zinema eta ikus-entzunezkoak	21.952.479	2.610.682	9.088.918	4.327.216	5.925.663	35	40,0%	14	
		Literatura	3.109.336	312.583	670.323	2.114.421	12.009	4	50,0%	2	
		Kultur etxeak eta kultur jarduerak	60.077.986	10.936.761	26.536.616	12.608.911	9.995.698	148	50,0%	74	
		Bertsolaritza	655.571	25.464	230.913	398.757	437	-	100,0%	-	
		Hedabideak	10.065.319	676.185	1.515.680	7.864.939	8.515	9	100,0%	9	
	Jaiak eta herri kultura	34.287.928	1.985.587	25.811.075	6.423.786	67.480	27	50,0%	13		
	Kultur zerbitzu orokorrak	26.256.678	16.740.827	8.423.944	157.727	934.180	227	50,0%	113		
	GUZTIRA			399.353.390	130.722.995	150.939.957	70.331.607	47.378.831	1.770		795

Iturria: Eusko Jaurlaritza- Kulturaren Euskal Behatokia, 2012. Siadecok landutako datuak, 2015.

5. Grafikoa. Herri-administrazioen kultura arloetako euskara-enplegua, kultur sektoreari jarraiki (kopuru absolutuak eta %)



Iturria: Siadecok landutako datuak, 2015.

EAEko administrazio publikoaren euskara-enplegua guztira


Euskararen sustapenari euskarazko kulturaren sustapena erantsita, EAEko herri-administrazioetarako estimatutako guztirako euskara-enplegua 1.511 lagunekoa da.

42. taula. Administrazio publikoaren erreferentziazko enplegua guztira eta azpi-sektorekako banaketa

Sektorea	Azpi-sektorea	Erreferentziazko enplegua	
		Kop.	%
IV. Administrazio publikoa	IV.1.- Herri administrazioetako euskara arloetako baliabideak	716	47.4
	IV.2.- Herri administrazioen eta menpeko erakunde autonomoen kultura arloetako baliabideak	795	52.6
GUZTIRA		1.511	100.0



6. Grafikoa: Euskara-enplegoa, azpi-sektoreei jarraiki



Iturria: Siadecok landutako datuak, 2015.

2.5.5/ Euskara-sektoreek sortutako enplegua GUZTIRA:

43. Taula. Euskara-enpleguaren datuak, euskara-sektoreei jarraiki

	Azpi-sektorea	Euskara-enplegua			
		Kop.	%		
			Euskara-sektorearekiko	Euskara-enplegu osoarekiko	Bateratua
I.- Hizkuntzaren industria	I.1. Euskararen irakaskuntza	1.665	65.5	3.9	3.9
	I.2. Itzulpengintza	485	19.1	1.1	5.0
	I.3. Hizkuntza zerbitzuak eta aholkularitza	247	9.7	0.6	5.6
	I.4. Euskararen corpusa	44	1.7	0.1	5.7
	I.5. Hizkuntza teknologiak	100	3.9	0.2	5.9
	Guztira-hizkuntzaren industria	2.541	100.0	5.9	5.9
II.- Kultura eta hedabideen industria	II.1. Liburugintza	488	10.7	1.1	7.0
	II.2. Musikaren industria	57	1.3	0.1	7.1
	II.3. Kultur sortzaileak	616	13.5	1.4	8.5
	II.4. Ikus-entzunezkoen industria	547	12.0	1.3	9.8
	II.5. Arte eszenikoak	165	3.6	0.4	10.2
	II.6. Bertsolaritza	80	1.8	0.2	10.4
	II.7. Hedabideak	920	20.2	2.2	12.6
	II.8. Euskara elkarteak	206	4.5	0.5	13.1
	II.9. Komunikazioa, kultura eta gizarte arloko bestelako elkarte eta enpresak	1.471	32.3	3.4	16.5
	Guztira-kultura eta hedabideen industria	4.550	100.0	10.6	16.5
III.- Hezkuntza eta unibertsitatea	III.1. Haur eta Lehen Hezkuntza	19.816	58.1	46.4	62.9
	III.2. Bigarren Hezkuntza	11.153	32.7	26.1	89.0
	III.3. Unibertsitateko Hezkuntza	2.999	8.8	7.0	96.0
	III.4. Hezkuntza alorreko bestelako euskara elkarte eta erakundeak	154	0.4	0.4	96.4
	Guztira-hezkuntza eta unibertsitatea	34.122	100.0	79.9	96.4
IV.- Administrazio publikoa	IV.1. Herri administrazioetako euskara arloetako baliabideak	716	47.4	1.7	98.1
	IV.2. Herri administrazioen eta menpeko erakunde autonomoen kultura arloetako baliabideak	795	52.6	1.8	100.0
	Guztira-administrazio publikoa	1.511	100.0	3.5	100.0
Euskara-enplegua GUZTIRA		42.724		100.0	

Iturria: Siadecok landutako datuak, 2015.



3.

EUSKARA- SEKTOREEN DATU EKONOMIKOAK



Euskara-sektoreek Euskal Autonomia Erkidegoan sortzen duten zuzeneko enplegua zenbatekoa den ezagutu ondoren, euskararen zuzeneko eragin ekonomikoaren gainerako aldagai makroekonomikoak kalkulatu dira txostenaren hirugarren atal honetan. EAE mailako informazio ekonomikoa jasotzeko inkestak egiten ditu Eustatek eta ikerlan honi dagozkion euskara-sektore eta azpi-sektoreetakoak diren jardueretako datuak, jarduera bakoitzerako estimatutako enpleguarekin gurutzatuta, soldaten ordainketa, Balio Erantsi Gordina eta fakturazio bolumenari dagozkion datuak estimatu dira. Kalkuluak zehazki nola egin diren, metodologiari buruzko hurrengo atalean dago jasoa.

3.1/ Metodologia

Ikerketa honetarako Eustatek egindako kalkulu eta jarduera-adar bakoitzeko batez besteko ratio ekonomikoak erabiliz kuantifikatu dira euskara-sektoreen magnitude makroekonomikoak; urrats hauek jarraitu dira:

- ◆ Azterlan honi loturiko jarduera epigrafeetako (Jarduera Ekonomikoen Sailkapen Nazionalari jarraiki) datu ekonomikoak eskuratu ditugu Eustatek; informazio hori, 2012ko Zerbitzuetako Inkestatik lortutako datuak erabiliz Eustatek berak landu du. Jarduera epigrafe bakoitzaren ondoko datu ekonomikoetatik abiatu gara: establezimendu kopurua, enplegua, soldatuen ordainketa (soldatak eta gizarte kotizazioak barne), fakturazioa eta Balio Erantsi Gordina.
- ◆ Jarduera-epigrafe bakoitzerako ratioak kalkulatu dira, enpleguaren arabera:
 - Soldatuen ordainketa (mila €) enplegu bakoitzeko.
 - Fakturazioa (mila €) enplegu bakoitzeko.
 - Balio Erantsi Gordina (mila €) enplegu bakoitzeko.
- ◆ Euskararen azpi-sektore eta jarduera-adar bakoitzeko establezimenduak jarduera-epigrafeen arabera sailkatu ondoren, eta euskarari inputatu beharreko enplegua kontuan izanda, jarduera-epigrafe bakoitzari dagozkion enpleguaren arabeko ratio ekonomikoak aplikatu eta euskararen azpi-sektore osorako magnitude ekonomikoak kalkulatu dira, hau da, enplegua, soldatuen ordainketa, Balio Erantsi Gordina eta fakturazio bolumena.
- ◆ IV. hizkuntza-sektoreko datu ekonomikoak, EAEko herri administrazioen euskara eta kultura alorretakoak alegia, Eusko Jaurlaritzarentzat Siadecok berak egindako ikerlanetatik eskuratu dira; herri-administrazioen 2012ko aurrekontu likidatuekin egindako estatistikak dira, bai euskara baliabideena (Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzarena) eta baita kultura baliabide publikoena ere (Eusko Jaurlaritzako Kulturaren Euskal Behatokiarena).



3.2/ Balio Erantsi Gordina eta Barne Produktu Gordina

Produktu baten ekoizpenean, tarteko produktu edo zerbitzuen gastuak ere sartuko bagenitu, herrialde bateko ekonomiaren errekurtsoak era bikoiztuan kontabilizatzen ariko ginatke, sektore batzuetako ekoizpena beste batzuetan ere sartua egongo litzatekeelako. Adibide simple bat ipinita, liburu bat idatzi eta irakurlearenganaino iristeko ekoizpen katean, profesional eta jarduera-sektore bat baino gehiagok parte hartzen du (idazleak, inprimategiak, argitaletxeak, banatzaileak, liburu saltzaileak...) eta kate maila horietako bakoitzak hurrengoari, berak egindako lana eta bere aurrekoei ordaindutakoa ere kobratuko die; jarduera-sektore guzti horien ekoizpen balioa batuko bagenu, batura horretan zenbait lanen balorazio ekonomikoa behin baino gehiagotan kontabilizatua egongo litzateke.

Herrialde baten ekonomian jarduera jakin batek duen eragin ekonomikoa neurtzeko aldagairik erabiliena, Balio Erantsi Gordina da (BEG); ekoizpen prozesuan produktu edo zerbitzu bati erantsitako balioa adierazten du; jarduera ekonomikoa jakin bati dagokion Balio Erantsi Gordinen beraz, beste jarduera ekonomikoekin eginiko transakzio ekonomikoak edo tarteko kontsumoak deitzen direnak sartu gabe daude. Balio Erantsi Gordinaren eta Barne Produktu Gordinaren balioak dira produktu edo jarduera baten garrantzia eta eragin ekonomikoa neurtzeko aldagairik egokienak. Barne Produktu Gordina, Balio Erantsi Gordinari, produktuen gaineko zerga garbiak gehituta lortzen den balioa da.

3.3/ Euskara-sektoreen datu ekonomikoak

► Hizkuntzaren industria

Hizkuntzaren industriakoak kontsideratutako enpresa eta erakundeetan euskarari loturiko lan eta zerbitzuen urteko fakturazio bolumena, 136 milioi euro pasatxo da urtean, 107 milioitako Balio Erantsi Gordina produzitzen dute, horietatik 79 milioi soldatak ordaintzeko erabiltzen dira eta 2.500 lagun inguruko enplegua sortzen dute. Lehen hizkuntza sektore honen barnean, euskaltegiak eta itzulpen gintza sektorea dira pisurik handiena hartzen duten jarduera-adarrak. Azpi-sektore bakoitzaren datu zehatzak honakoak dira:

- I.1.- **Euskararen irakaskuntza** (euskaltegiak, Hizkuntza Eskola Ofizialak eta hizkuntza akademiak): enplegua 1.665, soldata ordainketak 58 milioi, 69 milioiko BEG eta 82 milioiko fakturazio bolumena.
- I.2.- **Itzulpengintza sektorea**: 485 lagun inguruko enplegua (langile autonomoak barne), soldata ordainketak 8 milioi, 17 milioiko BEG eta 25 milioiko fakturazioa.
- I.3.- **Hizkuntza zerbitzuak eta aholkularitza**: 250 langile inguru, 7 milioi euro soldata ordainketetarako, 11 milioitako BEG eta 14 milioi euroko fakturazio bolumena.
- I.4.- **Euskararen corpora**: enplegua 44 pertsona inguru, milioi bat euro soldata ordainketetarako, 1,8 milioi inguruko BEG eta baita fakturazioa ere.
- I.5.- **Hizkuntza teknologiak**: enplegua 100 lagun, 4 milioiko soldata ordainketak, 7 milioiko BEG eta ia 13 milioiko fakturazioa.

44.taula: Hizkuntzaren industriako jarduera-sektoreen datu ekonomikoak

Azpi-sektorea	Jarduera-mota	Establezi- mendu kopurua	Euskarari loturiko jardueraren datu ekonomikoak			
			Enplegua	Soldata ordainketak (mila €)	Balio Erantsi Gordina (mila €)	Fakturazioa (mila €)
I.1- Euskararen irakaskuntza	Euskaltegiak	126	1.316			
	Hizkuntza Eskola Ofizialak	14	262			
	Hizkuntza akademiak	392	87			
	Guztira	532	1.665	58.529,97	69.033,71	82.176,85
I.2- Itzulpengintza	Itzulpen enpresak	92	200			
	Itzultzaile autonomoak	494	285			
	Guztira	586	485	8.062,74	17.719,67	25.437,09
I.3- Hizkuntza zerbitzuak eta aholkularitza		16	247	7.333,79	11.016,01	14.346,60
I.4- Euskararen corpora		5	44	1.103,33	1.806,70	1.796,45
I.5- Hizkuntza teknologiak		12	100	4.247,92	7.674,57	12.760,64
GUZTIRA- Hizkuntzaren industria		1.151	2.541	79.277,75	107.250,68	136.517,63

44. taulako informazio iturriak:

- Euskal Herriko Unibertsitateko Euskara Institutua, 2015
- Eusko Jaurlaritza (Hizkuntza Eskola Ofizialen datuak, 2013-2014 ikasturtea)
- Eustat, 2014 (Jarduera Ekonomikoen Gidazerrenda)
- Eustat, 2012 (Zerbitzuetako Inkesta eta ikerketa honetarako Eustatek landutako datu ekonomikoak)
- HABE (euskaltegi publiko eta pribatuetako 2013-2014 ikasturteko enplegua)
- Langune, 2014
- Siadeco, 2015 (hainbat azpi-sektoretan euskarazko ekoizpenaren pisua neurtzeko inkesta)
- Siadeco, 2015 (informazio iturri ezberdinak erabiliz Siadecok eginiko kalkuluak)



► Kultura eta hedabideen industria

Euskal kulturgintza eta hedabideen alorrak urtean 407 milioi euro inguru mugitzen ditu, sektorerik indartsuenak, komunikazio, kultura eta gizarte arloko jarduera sektoreena (137 milioi euro), hedabideena (79 milioi), liburugintza sektorea (62 milioi), ikus-entzunezkoen industria (44 milioi) eta kultur sortzaileena (41 milioi) izanik.

Bigarren euskara-sektore honek barne hartzen dituen azpi-sektoreak bederatzi dira, eta ondokoak dira horietako bakoitzaren datu ekonomikoak:

- II.1.- **Liburugintza** (argitaletxeak, liburu-dendak eta liburutegi-zerbitzu pribatuak): ia 500 laguneko enplegua, soldata ordainketetan urtean 15 milioi, 20 milioiko BEG eta ia 62 milioiko fakturazio bolumena.
- II.2.- **Musikaren industria** (diskoetxeak, disko saltokiak, musika programatzaileak eta musika aretoak): enplegua 57 lagun, 1,7 milioi euroko soldata ordainketak, 2 milioiko BEG eta 5 milioiko fakturazioa bolumena.
- II.3.- **Kultur sortzaileak**: 600 lagun baino gehiagoko enplegua eta horien soldata ordainketak 11 milioikoak, 23 milioiko BEG eta 41 milioiko fakturazioa.
- II.4.- **Ikus-entzunezkoen industria** (zinema, dokumental, publizitate, telebista saio, irrati saio eta IKT ekoizleak, eta zinema aretoak): guztira 459 laguneko enplegua, 20 milioi euroko soldata ordainketak, 30 milioiko BEG eta 44 milioiko fakturazioa.
- II.5.- **Arte eszenikoak** (antzerkia eta dantza konpainiak, eta antzokiak eta arte eszenikoen programatzaileak): enplegua 165 lagun, 5 milioiko soldata ordainketak, BEG 8 milioikoa eta fakturazioa 11 koa.
- II.6.- **Bertsolaritza**: 80 laguneko enplegua eta 2 milioiko soldata ordainketak, BEG 3 milioi eta fakturazioa ia 6 milioi.
- II.7.- **Hedabideak** (egunkariak, aldizkariak, irratiak, telebistak, internet bidezkoak, berri agentziak eta kazetari autonomoak): 920 pertsona enplegatu eta ia 44 milioiko soldata ordainketak, BEG 59 milioi eta 79 milioiko fakturazioa.
- II.8.- **Euskara elkarteak**: 206 langile, soldata ordainketak 8 milioi, 12 milioi BEG eta 21 milioi fakturazioa.
- II.9.- **Komunikazioa, kultura eta gizarte arloko bestelako elkarte eta enpresak** (kultura, aisialdi eta gizarte gaietako bestelako enpresak, komunikazio eta publizitate zerbitzuak, internet zerbitzuak, dokumentazio eta ikerketa zentroak): 1.471 langile, 48 milioiko soldata ordainketak, 70 milioi BEG eta 137 milioiko fakturazioa.

45. taula: Kultura eta hedabideen industria alorreko azpi-sektoreen datu ekonomikoak

Azpi-sektorea	Jarduera-mota	Establezi- mendu kopurua	Euskarari loturiko jardueraren datu ekonomikoak			
			Enplegua	Soldata ordainketak (mila €)	Balio Erantsi Gordina (mila €)	Fakturazioa (mila €)
II.1.- Liburugintza	Argitaletxeak	185	297			
	Liburu-dendak	411	151			
	Liburutegi zerbitzu pribatuak	18	40			
	Guztira	617	488	15.222,82	19.944,95	61.733,96
II.2.- Musikaren industria	Diskoetxeak		28			
	Disko saltokiak	59	9			
	Musika sustatzaile eta programatzaileak		20			
	Guztira	59	57	1.676,85	2.221,30	5.159,45
II.3.- Kultur sortzaileak		1.058	616	10.984,87	23.175,09	40.968,01
II.4.- Ikus-entzu- nezkoen industria	Zinema, dokumental, publizitate, telebista saio, irrati saio eta IKT ekoizleak	408	536			
	Zinema aretoak	51	11			
	Guztira	459	547	20.389,19	29.983,13	44.190,04
II.5.- Arte eszeni- koak	Antzerki eta dantza konpainiak	84	91			
	Antzerki ekoizleak eta programatzaileak	26	74			
	Guztira	110	165	5.567,84	7.812,85	11.239,18
II.6.- Bertsolaritza		8	80	2.265,81	3.554,66	5.822,98
II.7.- Hedabideak	Egunkariak	43	235			
	Aldizkariak	79	64			
	Irratiak eta irratarako zerbitzu emaileak	57	271			
	Telebistak eta telebistarako zerbitzu emaileak	20	311			
	Internet bidezko hedabideak	8	23			
	Berri agentziak eta kazetari autonomoak	73	16			
	Guztira	280	920	43.737,73	58.732,26	79.277,93
II.8.- Euskara elkarteak		84	206	8.078,99	12.132,58	21.625,96
II.9.- Komunikazioa, kultura eta gizarte arloko bestelako elkarte eta enpresak	Kultura, aisialdi eta gizarte gaietako bestelako elkarte eta enpresak	225	764			
	Komunikazio eta publizitate zerbitzuak	1.394	627			
	Internet zerbitzuak	35	70			
	Dokumentazio eta ikerketa zentroak	10	10			
	Guztira	1.521	1.471	48.264,53	69.912,27	136.659,85
GUZTIRA- Kultura eta hedabideen industria		4.196	4.550	156.188,63	227.469,09	406.677,36



45. taulako informazio iturriak:

- EITB taldea - jarduera memoriak, 2015
- Euskadiko Editoreen Elkarte, 2012 (EAEko euskarazko argitalpenak)
- Euskal Herriko Bertsozale Elkarte, 2015 (ikerketa honetarako, bertsolaritzari buruz eginiko kalkulu ekonomikoak)
- Eusko Jaurlaritza – Kulturaren Euskal Behatokia, 2011 (EAEko Arte eta Kultura Industrien Estatistika)
- Eusko Jaurlaritza- Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza (diru-laguntza deialdietako onuradunen datuak)
- Eusko Jaurlaritza- EAEko liburutegi publikoen estatistika, 2002
- Eustat, 2014 (Jarduera Ekonomikoen Gidazerrenda)
- Eustat, 2012 (Zerbitzuetako Inkesta eta ikerketa honetarako Eustatek landutako datu ekonomikoak)
- Langune, 2014
- Musika Industriaren Elkarte, 2015
- Topagunea – Euskara Elkarten Federazioa, 2007 (euskara elkarten enplegua eta aurrekontuak)
- Siadeco, 2015 (hainbat azpi-sektoretan euskarazko ekoizpenaren pisua neurtzeko inkesta)
- Siadeco, 2015 (informazio iturri ezberdinak erabiliz Siadecok eginiko kalkuluak)

► Hezkuntza eta unibertsitate arloko jarduerak

Euskarazko hezkuntza-sistema osoaren eta euskarazko unibertsitate eta bestelako hezkuntza jardueren guztirako aldagai ekonomikoak ikaragarri altuak dira; egin kontu, unibertsitate aurreko irakaskuntza arautuan, haur hezkuntzatik hasi eta batxilergo edo lanbide heziketako ikasketak amaitu arterainoko euskarazko irakats maila guztietarako estimatutako enplegua 31 mila lagunekoa dela; kopuru horri ondoren, unibertsitatean euskaraz eskaintzen diren kredituei lotutako enplegua erantsi behar zaio, beste 3 mila lagun.

Guztira hirugarren euskara-sektore honen aldagai makroekonomikoak ondorengoak dira, azpi-sektore desberdinen arabera:

- III.1.- **Haur-Lehen Hezkuntza** (Haur eta Lehen Hezkuntza eta Hezkuntza Berezia): ia 20 mila pertsonako enplegua (13.602 irakasle eta 6.214 bestelako enplegatuak) eta ia 700 milioiko soldata ordainketak urtean, 821 milioiko BEG eta 978 milioiko fakturazio bolumena.
- III.2.- **Bigarren Hezkuntza** (DBH, Hasierako lan-kualifikazio programak, Batxilergoa eta Lanbide Heziketa): 11 mila lagunetik gorako enplegua (7.656 irakasle eta 3.497 bestelako langileak), soldata ordainketa 392 milioi, BEG 462 milioi eta fakturazioa 550 milioi.
- III.3.- **Unibertsitate Hezkuntza**: 3 mila enplegatu, soldata ordainketak 105 milioi, BEG 124 milioi eta 148 milioi euroko fakturazio bolumena.
- III.4.- **Hezkuntza alorreko bestelako euskara elkarte eta erakundeak**: 154 laguneko enplegua, urteko soldata ordainketak 5 milioi euro, 6 milioiko BEG eta 7 milioi euroko fakturazio bolumena.

46. taula: Hezkuntza alorreko azpi-sektoreen datu ekonomikoak, euskarazko ikas orduei loturiko enpleguaren arabera

Azpi-sektorea	Jarduera-mota	Ikastetxe kopurua (Eustat)	Euskarari loturiko jardueraren datu ekonomikoak				
			Enplegua		Soldata ordainketak (mila €)	Balio Erantsi Gordina (mila €)	Fakturazioa (mila €)
			Irakasleak	Besteak			
III.1.- Haur- Lehen Hezkuntza	Haur Hezkuntza	862	5.762	-			
	Lehen Hezkuntza	536	5.870	-			
	Hezkuntza Berezia	46	135	-			
	Guztira	882	13.602	6.214	696.647,27	821.666,87	978.101,11
III.2.- Bigarren Hezkuntza	Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza	329	4.152	-			
	Hasierako lan-kualifikazio programak	68	-	-			
	Batxilergoa	200	1.634	-			
	Lanbide Heziketa	448	311	-			
	Guztira	477	7.656	3.497	392.092,60	462.457,14	550.502,71
III.3.- Unibertsitate Hezkuntza			2.999		105.432,23	124.353,00	148.028,12
III.4.- Hezkuntza alorreko bestelako euskara elkarte eta erakundeak			154		5.413,99	6.385,58	7.601,31
GUZTIRA- Hezkuntza		1.391	34.122		1.199.586,09	1.414.862,59	1.684.233,25

46. taulako informazio iturriak:

- Deustuko Unibertsitatea- Euskara eta Eleaniztasuneko Zuzendaritza, 2014-2015 ikasturtea
- Euskal Herriko Unibertsitateko Elebilab programa, 2015
- Euskal Herriko Unibertsitatea-Euskara Errektoreordetza, 2014-2015 ikasturtea
- Eustat, 2014 (Jarduera Ekonomikoen Gidazerrenda)
- Eustat, 2014 (Irakaskuntzaren estatistika)
- Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Saila, 2012-2013 ikasturtea (hezkuntza sistemaren euskara eta gainerako irakasgaien ordukako banaketa)
- Mondragon Unibertsitatea, 2014-2015 ikasturtea
- Siadeco, 2015 (informazio iturri ezberdinak erabiliz Siadecok eginiko kalkuluak)

► Administrazio publikoa

EAEko administrazio publikoan euskarari loturiko guztirako aurrekontua 317 milioi eurokoa da urtean. Administrazio publikoari dagokion Balio Erantsi Gordina ia 118 milioikoa da eta horietatik 104 milioi administrazio publikoko langileen soldaten ordainketara bideratzen dira; hain zuzen ere, 1.500 lagun ingururen soldaten ordainketetara.

Administrazio publikoaren sektorearen baitan biltzen diren azpisektore desberdinen aldagai makroekonomikoak dira ondorengoak:

IV.1.- **Herri administrazioetako euskara arloetako baliabideak:** 716 lanpostu guztira, ia 46 milioiko soldata ordainketak, 51 milioi euroko BEG eta 146 milioi euroko aurrekontua.

IV.2.- **Herri administrazioen eta menpeko erakunde autonomoen kultura arloetako baliabideak:** 795 laguneko enplegua eta horien soldata ordainketak ia 59 milioi eurokoak, 66 milioiko BEG eta urteko aurrekontua 171 milioi eurokoa.

47. taula: Administrazio publikoaren azpi-sektoreetako datu ekonomikoak

Azpi-sektorea	Guztirako aurrekontuak (mila €) eta enplegua						Euskarari loturiko jardueraren datu ekonomikoak			
	Aurrekontua	Pertsonal gastuak (I. kap.)	Zerbitzu kontratazioak (II. kap.)	Diru-laguntza eta hitzarmenak (IV. eta VII. kap.)	Gainerako gastu eta inbertsioak (III., VI, VIII eta IX. Kap)	Enplegua	Enplegua	Soldata ordainketak (mila €)	Balio Erantsi Gordina (mila €)	Aurrekontua (mila €)
IV.1.- Herri administrazioetako euskara arloetako baliabideak	146.250	45.861	26.254	75.722	1.834	716	716	45.861,62	51.640,15	146.250
IV.2.- Herri administrazioen eta menpeko erakunde autonomoen kultura arloetako baliabideak	399.353	130.723	150.940	70.332	47.379	1.770	795	58.722,87	66.122,16	171.150
GUZTIRA-Administrazio publikoa	545.603	176.584	177.194	146.054	49.213	2.486	1.511	104.584,49	117.762,31	317.400

Informazio iturriak:

- Eusko Jaurlaritza-Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza (Euskararen aurrekontu eta baliabide publikoen estatistika, EAE, 2012)
- Eusko Jaurlaritza-Kulturaren Euskal Behatokia (Kultura gastu eta finantzaketaren estatistika, EAE, 2012)



3.4/ Euskararen dimentsio ekonomikoa

Euskal Autonomia Erkidegoko datu orokorrekin alderatuz, erkidegoaren guztirako enplegu eta Balio Erantsi Gordinarekiko, euskarari loturiko sektoreek duten pisua eta dimentsio ekonomikoa neurtu dugu jarraian.

Enplegua

Eustateko datuen arabera, EAEeko ekonomiak orotara 894 mila laguneko enplegua sortzen du eta euskararekin lotura duten jarduera-sektoreen zuzeneko enplegua 42.700 izanik, enpleguan euskarak EAEko enplegu guztiaren %4,78 ordezkatzen du.

Enplegu zuzenaren ia %80 Hezkuntza sektoreari dagokio, 34.100 enplegurekin; Kultura eta Hedabideen industriaren sektoreak sortzen du euskara-enpleguaren %10 inguru, Hizkuntzaren industriak ia %6 eta gainerako %4a administrazio publikoaren zuzeneko enpleguari dagokiona da.

Balio Erantsi Gordina

61 mila milioi euro ingurukoa da EAEko ekonomiaren urteko Balio Erantsi Gordina; euskararen ekonomiarena ia 1900 miloi eurokoa izanik, euskarak EAEko Balio Erantsi Gordinarekiko duen pisua %3,07 da.


Lau euskara-sektoreen datuak aztertuta, hezkuntza sektoreak enpleguarekiko duen pisua baino baxuagoa du BEGrekiko (% 75); kultura eta hedabideen industriaren sektoreari dagokio euskara-sektoreen BEGaren %12,2 (enpleguaren ehuneko baina zertxobait altuagoa), Administrazio publikoari %6,3 eta Hizkuntzaren industriari berriz, %5,7.



48. taula: Euskara-sektoreen dimentsio ekonomikoa guztira

Sektorea		Euskara-sektoreen EAEko jarduera ekonomikoarekiko pisua	
		Enplegua	Balio Erantsi Gordina (oinarrizko preziotan) (mila €)
Hizkuntzaren industria	Euskara-sektoreak	2.541	107.250,68
	EAErekiko %	0,28	0,18
Kultura eta hedabideen industria	Euskara-sektoreak	4.550	227.469,09
	EAErekiko %	0,51	0,37
Hezkuntza	Euskara-sektoreak	34.122	1.414.862,59
	EAErekiko %	3,82	2,32
Administrazio publikoa	Euskara-sektoreak	1.511	117.762,31
	EAErekiko %	0,17	0,19
GUZTIRA	Euskara-sektoreak	42.724	1.867.344,67
	EAE guztira	893.952	60.875.938
	EAErekiko %	4,78	3,07

Iturria: Eustat, 2012; Siadecok landutako datuak, 2015.



4.

EUSKARAREN ERAGIN EKONOMIKOA



4.1/ Argibide metodologikoak

► Eragin ekonomikoa: zuzena, zeharkako eta induzitua

Euskarari loturiko sektore eta jarduera-adarrek egiten dituzten era guztietako gastu eta inbertsioek, sektore horietan eta EAEko ekonomia produktiboaren gainerako sektoreen ekoizpenean, enpleguan eta errentan ere eragiten dutenez, euskara-sektoreen zuzeneko eraginari, zeharkakoa ere erantsi behar zaio, eragin ekonomikoa kalkulatzekoan.

Zeharkako eragin ekonomikoa neurtzeko erabilitako metodologiak, input-output tauletan du oinarria. Input-Output metodologiari esker, sektore jakin bateko eskaria handitzeak beste sektoreetan zein eragin ekonomiko duen kuantifika daiteke, adibidez, hornitzaileei egin beharreko erosketak gehitzen direlako (zeharkako inpaktu ekonomikoa). Horrez gain, familiek egindako kontsumotik eratorritako eragin biderkatzailea ere kuantifika daiteke (eragin induzitua); zuzeneko eta zeharkako sektoreetan egindako gastu eta inbertsioek, enplegua eta errentak sortzen dituzte, eta familia-errenta horiek ondoren, produktu eta zerbitzuen kontsumoa eragiten dute, eta beraz, merkatuko azken eskarian eragitera ere iristen dira.

Euskararen eragin ekonomikoa guztira zenbatekoa den kuantifikatzerakoan beraz, zuzeneko eragin ekonomikoa, zeharkakoa eta eragin induzitua ere kontuan hartu dira.

► Ondasun eta produktuen balorazio ekonomikoa:

Produktu baten balorazioa, bi ikuspegi ezberdinetatik egin daiteke, produktua erosten duenaren ikuspegitik eta produktu-ekoizlearen ikuspegitik. Bi balorazioen arteko aldea, bi faktorek esplikatzen dute:

- Bitartekarien lanak, produktua sortu eta kontsumitzailearen esku jarri bitarteko komertzializazio eta garraio gastuak dituenak.
- Zerga eta diru-laguntzek; produktuen azken erosleek zergak ordaindu behar dituzte alde batetik (Balio Erantsiaren gaineko Zerga) eta bestetik, produktuak diruz lagundutakoak ere izan daitezke, salmenta prezio baxuagoekin.

Produktuen balorazio ekonomikorako kontuetan beraz, produktuen merkatuko prezioak (erosleak pagatu behar duen prezioa) eta *oinarrizko prezioak* (ekoizlearen ikuspegitik kalkulaturakoa) bereizten dira. Oinarrizko prezioen arabera balorazioa, ekoizpen kostuen arabera da, hau da, bitarteko input edo bitarteko kontsumoei lehen mailako inputen gastua erantsiz, hau da, pertsonal eta kapital gastuak erantsiz kalkulaturakoa. Oinarrizko prezioei,



produktua azken kontsumitzailearen esku ipintzeko bitartekarien gastuak erantsi, zergak erantsi eta diru-laguntzak kenduta, merkatuko prezioa kalkulatzera iritsiko ginateke.

Ekonomikoki neurtu nahi dena, produktu baten balioa bada, oinarritzko prezioetara jo beharko litzateke; aldiz, produktua erosten dutenen gastua neurtu nahi bada, merkatuko prezioak erabili beharko lirateke. Kontabilitateko datuetan, produktu baten eskari osoari buruzko datuak merkatuko prezioan ematen dira, eta eskaintzari buruzkoak berriz, oinarritzko prezioetan.

► Input-Output taula estatistikoak

Sektore ekonomiko gisa euskarak EAEko ekonomian duen pisua eta garrantzia neurtzera iristeko, batetik Balio Erantsi Gordinean oinarritutako kalkuluak egin dira, eta bestetik, ekonomia batean sektore ezberdinen arteko interdependentziak zein diren erakusten duten EAEko datuekin osatutako Input-Output taulak erabili dira, Wassily Leontief ekonomia nobel saridunak garatutako eredu ekonomikoan oinarria dutenak.

Input/Output taulen sistema da sektore jakin batek herrialde baten Barne Produktu Gordinean duen garrantzia neurtzeko prozedurarik erabiliena. Input-Output taulak, herrialde jakin bateko ekoizpenari buruzko informazioa ematen duten tresna estatistikoak dira; herrialde baten urteko ekoizpena, zein sektorek ekoizitakoa den eta ekoizpen hori beste zein sektoretara bideratzen den erakusten dute. Input-Output tauletako datuak erabiliz jakin daiteke, sektore jakin bateko ekoizpenetik zenbat destinatzen den azken kontsumora eta ekoizpen horren zein zati den beste sektore batzuek bitarteko kontsumo modura erabiltzen dutena. Input-Output tauletan, produktu eta jarduera-adarren arteko erlazioaren datu ekonomikoak jasoak daude eta bestetik, Balio Erantsi Gordinari dagozkion datuak erabiliz, kontabilitate bikoiztuaren arazoari aurre egiten zaio.

Input/Output sistema edo eredu ekonomikoaren informazio taula nagusienak honakoak dira: “Jatorrian” eta “helburuan” deituriko taulak eta taula “simetrikoak.

- “Jatorrian” Input/Output taula: produktu eta zerbitzuen eskaintzari buruzko informazioa ematen du, bertan ekoiztutakoak eta inportatutakoak bereiziz.
- “Helburuan” Input/Output taula: eskariari buruzko informazioa ematen du, produktu-mota bakoitzak zein erabilera mota duen, bitarteko kontsumorako edo azken kontsumorako erabiltzen den bereiziz. “Jatorrian” eta “Helburuan” tauletako guztirako balioek bat etorri behar dute. “Helburuan” taulak baita ere, jarduera-adar bakoitzaren balio erantsiari buruzko informazioa ematen du. Zutabeka dago jasoa informazio hori, zutabe bakoitzeko bitarteko kontsumoen baturari, dagokion Balio Erantsi Gordina eransten badiogu (soldaten ordainketak, ekoizpenaren gaineko zergak, kapital finkeko kontsumoa eta ustiapenaren gaineko soberakinak), ekoizpenak oinarritzko prezioetan duen balioa lortuko dugu.



- Taula “simetrikoak”: aurreko bi taulen lanketa edo elaborazio prozesu batetik eratorritako datuekin eraikitako taulak dira eta estatistika-eragiketetatik lortutako datuekin ez dago zuzenean taula “simetrikoetako” informazioa ematera iristerik. “Helburuan” Input-Output taularen antzeko egitura du, baina bi diferentziarekin:
 - Produktuak eta jarduera-adarrak homogeneoak izateko kalkuluak eginak daude, non jarduera-adar batek produktu bakar bat ekoitzi eta produktu bat jarduera-adar batek bakarrik ekoitziko balu bezala eraikitako Input/Output taula teorikoa osatzen den.
 - Inportazioen balioak ere jasotzen direnez, produktu jakin baten ekoizpenaren balioa (oinarrizko prezioetan) emateaz gain, guztizko eskaintzaren balioa ere ematen du oinarrizko prezioetan (kontabilitateko kontzeptua erabilia, baliabide edo errekurtsoen balioa alegia).

Taula simetrikoa da azken batean inpaktu ekonomikoa neurtzeko erabiltzen diren koefizienteak kalkulatu eta ereduak eraikitzeko taularik erabiliena. Zutabeka, jarduera adar bakoitzak bere ekoizpenerako beste jarduera-adarretan egindako bitarteko kontsumoari buruzko informazioa ematen du; Eustatek landutako EAEko taula simetrikoan, tarteko kontsumo horretatik zenbat den EAEn, Espainiar Estatuan eta eremu horiez kanpo egindakoa zehazten da. Zeharkako eragin ekonomikoa kuantifikatzeko erabilitako koefiziente teknikoek eta Leontief matrizeak, taula simetrikoetatik kalkulatu dira eta beste jarduera-adarretan egindako bitarteko kontsumoari dagokionean, herrialde berean egindako gastua bakarrik hartzen da kontuan; azterlan honetarako, koefiziente horiek EAE mailako kontsumoarekiko kalkulatu dira.

► **Zuzeneko eta zeharkako eragin ekonomikoa kalkulatzeko prozedura**

Eustatek landutako EAEko Input-Output tauletatik abiatuta, inpaktu zuzena eta zeharkakoa estimatzera iristeko, honako prozedura jarraitu da:

- I.- Euskarari loturiko sektore eta azpi-sektoreetako elkarte, enpresa eta erakundeen datu ekonomikoa (Balio Erantsi Gordina eta enplegua), Input-Output taulako jarduera-adarretan kokatu dira (JESNri jarraiki). Input-Output taulak guztira 85 jarduera-adar ditu eta zuzeneko eragina kalkulatzekoan azterketa honetan kontuan hartu diren enpresa eta erakundeak, ondoko 13 adarretan kokatu dira:
 - Arte grafikoak eta erreprodukzioak (kod.: 15).
 - Txikizkako merkataritza (IO adarraren kodea: 50).
 - Argitalpenak (kod.: 59).
 - Ikus-entzunezkoak, zinea, irratia eta abar (kod.: 60).
 - Informatika (kod.: 62).
 - Jarduera juridikoak eta kontabilitatekoak (kod.: 67).



- Ikerketa eta garapena (kod.: 69).
 - Publizitatea eta merkatu azterlanak (kod.: 70).
 - Bestelako jarduera profesionalak (kod.: 71).
 - Herri Administrazio Saila (kod.: 76).
 - Hezkuntza (kod.: 77).
 - Kultur jarduerak; jokoak (kod.: 80).
 - Elkartegintzako jarduerak (kod.: 82)
- 2.- Euskara-sektoreek Input-Output taulako (IO taula) adar bakoitzean duten Balio Erantsi Gordinaren (BEG) arabera, hau da, zuzeneko eraginaren BEGren baliotik abiatuta, IO adar bakoitzean euskarari dagokion zuzeneko ekoizpen balioa eta enpleguaren datuak kalkulatu dira; horretarako, IO adar bakoitzaren BEG eta ekoizpen balioa lotzen dituen koefizientea aplikatuz, estimatu egin da IO adar bakoitzean euskarari dagokion zuzeneko eraginaren ekoizpen balioa. Jarraian, eta IO adar bakoitzean euskarari dagokion zuzeneko ekoizpen baliotik abiatuta, zuzeneko enplegua estimatu da, adar bakoitzeko ekoizpen balioa eta enpleguaren arteko erlazioaren koefizienteak aplikatuz. Aurreko urratsak emanda, euskararen zuzeneko eragina IO adarren arabera kalkulatu da, hiru aldagai nagusiri jarraiki: ekoizpen balioa, Balio Erantsi Gordina eta enplegua.
- 3.- Zeharkako eragina neurtzeko berriz, euskarari loturiko sektoreetako eragile ekonomiko eta erakundeek, sektore bertakoei eta gainerako sektore guztiei erositako bitarteko kontsumoak hartu dira kontuan. Ariketa hori, IO taula simetrikoko koefiziente teknikoak erabiliz egin da; koefiziente tekniko horiek, IO adar bakoitzeko ekoizpen balioa eta bitarteko kontsumoak lotzen dituzte; koefiziente teknikoak erabiliz, adar batek bere ekoizpenerako behar dituen bitarteko kontsumoen arabera eragin ekonomikoa kalkulatu da, zeharkako eragin ekonomikoa alegia. IO taulako koefiziente tekniko biderkatzaileak aplikatuta, bata bestearen segidan elkar hornitzen duten jarduera-adar guztietara zabaltzen den inpaktua kalkulatu dugu. Ondorioz, nahiz eta kopuru baxuak izan, IO taulako adar gehienetara iristen da euskararen zeharkako eragin ekonomikoa.
- 4.- Euskararen zuzeneko eta zeharkako eragin ekonomikoa, IO tauletako 85 jarduera adarren arabera kalkulatu ondoren, irakurketa errazte aldera, 85 jarduera-adar horiek 14 sektore-ekonomikotan bildu ditugu.

49. Taula: Input-Output taulako jarduera-adarrak, sektore-ekonomikoei jarraiki

Sektore ekonomikoa	Input-Output tauletako jarduera-adarrak	
I. Nekazaritza, abeltzaintza, basogintza eta arrantza	01. Nekazaritza, abeltzaintza eta ehiza	
	02. Basogintza eta baso-ustiapena	
	03. Arrantza eta akuikultura	
II. Erauzte industriak	04. Erauzteko industriak	
III. Manufaktura industriak	05. Okelaren industriak	
	06. Arrainen prozesatzea	
	07. Esnekiak	
	08. Okintza eta errotakoak	
	09. Elikagaien beste industriak	
	10. Edariak	
	11. Tabakoa	
	12. Ehungintza, jantzigintza, larrugintza eta oinetakogintza	
	13. Zuraren eta kortxoaren industria	
	14. Paperaren industria	
	15. Arte grafiko eta erreproduzioak	
	16. Kokea lortzeko eta petrolioia fintzeko fabrikak	
	17. Oinarritzko produktu kimikoak	
	18. Margoak eta beste azken-kimika	
	19. Farmazia-ekoizkinak	
	20. Kautxuzko produktuak	
	21. Plastikozko produktuak	
	22. Beiraren industria	
	23. Zementua, karea eta igeltsua	
	24. Ez-metalezko industria	
	25. Altzairugintza	
	26. Ez-burdinazko metalen ekoizpena	
	27. Metalen galdaketa	
	28. Metalezko eraikuntzak	
	29. Metalen lanketa eta estanzapazioa	
	30. Ingeniaritza mekanikoa	
	31. Metalezko artikulak	
	32. Produktu informatiko eta elektronikoak	
	33. Material eta tresneria elektrikoa	
	34. Etxeko aparatuak	
	35. Makineria, orokorrean	
	36. Makina erremintak	
	37. Motordun ibilgailuak egitea	
	38. Ontzigintza	
	39. Bestelako garraio-materiala	
	40. Altzarigintza	
	41. Bestelako manufaktura industriak	
	42. Konponketa eta instalazioa	
	IV. Energia, gasa eta ur hornidura	43. Energia elektrikoa
		44. Gasa, lurrina eta aire girotua
		45. Ur hornidura
		46. Hondakinen saneamendua eta kudeaketa

Sektore ekonomikoa	Input-Output tauletako jarduera-adarrak
V. Eraikuntza	47. Eraikuntza
VI. Merkataritza, ostalaritza eta garraioak	48. Ibilgailuen salmenta eta konponketa
	49. Handizkako merkataritza
	50. Txikizkako merkataritza
	51. Trenbide bidezko garraioa
	52. Bidaiarien beste lur-garraioaren bat
	53. Salgaien beste lur-garraioaren bat
	54. Itsas eta ibai garraioa
	55. Aireko garraioa
	56. Garraioarekin uztartutako jarduerak
	57. Posta zerbitzuak
VII. Informazio eta komunikazio jarduerak	58. Ostalaritza
	59. Argitalpenak
	60. Ikus-entzumenezkoak, zinea, irratia, tb.
VIII. Finantza zerbitzuak eta higiezin jarduerak	61. Telekomunikazioak
	62. Informatika
	63. Finantza zerbitzuak, aseguruak salbu
	64. Aseguruak
IX. Jarduera profesionalak	65. Finantza-laguntzaileak
	66. Jarduerak higiezinekin
	67. Jarduera juridikoak eta kontabilitatekoak
	68. Arkitektura eta ingeniarietako zerbitzuak
	69. Ikerketa eta Garapena
X. Alokairu jarduerak, bidai agentziak eta zerbitzu osagarriak	70. Publizitatea eta merkatu azterlanak
	71. Beste jarduera profesionalak
	72. Alokairu jarduerak
XI. Herri administrazioa	73. Enpleguarekin uztartutako jarduerak
	74. Bidai-agentziak
XII. Hezkuntza	75. Beste jarduera osagarriak
	76. Herri Administrazio Saila
XIII. Osasun eta gizarte zerbitzuak	77. Hezkuntza
	78. Osasun jarduerak
XIV. Kultur, kirol eta aisialdiko zerbitzuak	79. Gizarte zerbitzuak
	80. Kultur jarduerak; jokoa
	81. Kirol eta aisialdi jarduerak
	82. Elkartegintzako jarduerak
	83. Ordenagailuen eta beste artikuluen konponketa
	84. Beste zerbitzu pertsonal batzuk
	85. Familia-etxeen jarduerak

Iturria: Eustat, 2012. Siadecok landutako taula, 2015.



4.2/ Zuzeneko eta zeharkako eragin ekonomikoa

4.2.1/ Ekoizpen balioa

Jarduera-ekonomiko baten Balio Erantsi Gordinari erabiltzen dituen bitarteko kontsumoak gehituta lortzen den balioa da ekoizpen balioa. Ekoizpen balioa eta fakturazio bolumenaren artean aldeak egon daitezke, ekoizpenaren zati bat saldu gabe gera daitezkeelako edo diruz lagundutako produktuak badira, merkatuan ekoizpen kostuaren azpitik saltzen diren produktuak izan daitezkeelako.

Euskara-sektoreen zuzeneko eta zeharkako jardueraren urteko ekoizpen balioa ia 3 mila milioi eurokoa da (2.949 milioi €); ekoizpen balioaren %84,7 zuzeneko eraginari dagokio (2.497 milioi €) eta %15,3 zeharkako eraginari (451 milioi €). EAEko sektore ekonomikoko guztiena 135 mila milioi izanik (135.277 milioi €), euskararen zuzeneko eta zeharkako eragin ekonomikoa EAEko ekoizpen balioaren %2,18 da.

Euskararen eragin zuzena sektoreka aztertuz, azpimarratu hezkuntzak duela pisurik handiena (1.762 milioi €), euskararen ekoizpen balio osoaren %70,6; gogoan izan, hezkuntza arautuan euskaraz ematen den irakaskuntza arlo guztietako enplegua hartu dela kontuan euskararen balio ekonomikoa kalkulatzeko.

Jarraian, %8-9ko pisuarekin, Informazio eta komunikazio jarduerak (240 milioi €) eta Herri Administrazioa datoz (208 milioi €). Eta hirugarren maila batean, %5-6ko pisuarekin, Kultur, kirol eta aisialdiko zerbitzuak (157 milioi €) eta Jarduera profesionalak (124 milioi €).

Baina esan bezala, euskararen zeharkako eragina, gutxi edo gehiago, ekonomiaren sektore guztietara zabaltzen da; euskara-sektoreetako eragileek, beren produktu eta zerbitzuak ekoizteko, beste sektoreetan ere ekoizpen maila jakin bat eragiten baitute.

Guztira, zeharka, euskarak 451.857 mila €ko ekoizpen balioa eragiten du.

Aurrerago ageri den euskararen zuzeneko eta zeharkako ekoizpen balioaren taula interpretatzeko garaian, kontuan izan behar ditugu ondoko alderdiak:

- Zeharkako eraginaren zutabearen agertzen diren ekoizpen balioaren zenbatekoak ez dagozkio sektore ekonomikoko horri bakarrik; izan ere, sektore batek, beste askorengan izan dezake eragina. Adibidez, III. sektore ekonomikoa (manufaktura industriak), zuzeneko eraginaren ekoizpen balioa 1 milioi €koa da, eta zeharkakoa berriz, 55 milioi €koa. Kasu honetan, zeharkako eragina, hein handi batean, VII. sektoreak (nagusiki 59.



Jarduera-adarrak, argitalpenak), XI. sektoreak (herri administrazioa) eta XII. sektoreak (hezkuntza) eragiten dute, adar horiek behar dituzten hornitzaileak III. sektore ekonomikoan kokatzen direlako, 14. eta 15. Input-Output adarretan (paperaren industria eta arte grafikoak eta erreprodukzioak).

- Deigarria da ere herri administrazioaren produkzio zuzena 208 miloi € inguru izanik, herri administrazioaren lerroan euskarak zeharkako eraginik ez izatea. Honen azalpena hauxe da: herri administrazioak, bere funtzionamendurako duen bitarteko eskariari lotutako produkzioa kontuan hartuta dago zeharkako eraginaren balioan, eta dagokion IO adarrean kontabilizatuta ere bai; baina herri administrazioa, sektore gisa IO tauletan, ez da sektore ekonomiko bakar baten bitarteko kontsumotan sartzen, ez da inoren "hornitzaile", (herri administrazioaren ekoizpena, oso-osorik, azken eskarira bideratzen da), eta beraz, euskararen eragin ekonomiko zuzenak ez du bere produkzioan eraginik.

Honela, euskararen zeharkako eraginean pisurik gehien hartzen duten sektoreak Informazio eta Komunikazio Jarduera (86 miloi € - %19,1) eta Merkataritza, Ostalaritza eta Garraioak (75 miloi € - %16,5) dira.

Guztira beraz, eragin zuzena eta zeharkakoa kontuan hartuta, euskararen ekoizpen balioa ia 3 mila milioi eurokoa da urtean (2.949 milioi €); hezkuntza sektoreak du orain ere pisurik gehien (1.768 milioi €, %60,0). Atzetik datoz, baina nabarmen pisu baxuagoarekin, informazio eta komunikazio jarduerak (%11), herri administrazioa (%7), Kultur, kirol eta aisialdiko zerbitzuak (%6) eta Jarduera profesionalak (%6). Euskararen zuzeneko eta zeharkako produkzio balioaren %2,7 Merkataritza, ostalaritza eta garraioak eragiten du, %2 baino gutxiago gainerako sektoreek.

Oro har, EAEko produkzio osoarekiko beraz, %2,18 dagokio euskararen zuzeneko eta zeharkako eraginari. Proportzio hau ez da berdin banatzen Input-Output adar guztietan, eta honela, badira beren produkzio balioaren pisu handia euskarari lotua daukatenak: honela, Hezkuntza adarrari dagokion produkzio guztiaren %50,4 da euskarak -zuzenean eta zeharka-eragindakoa; lku-entzunezkoen adarrean ere, produkzio osoaren %44,1 dagokio euskarazko produkzioari; Argitalpenetan, produkzio guztiaren %28,0.

Jarduera-adarraren ekoizpen baliotik euskarari dagokion pisua %11-15 artean kokatzen da ondoko adarretan: jarduera profesionalak (%15), kultur jarduerak eta jokoak (%13), Elkartegintzako jarduerak (%12) eta Publizitatea eta merkatu azterlanak (%11). Eta nabarmen apalagoa da euskararen eragina gainerako IO adarretan.



50. taula: Euskararen zuzeneko eta zeharkako eragina EAEko sektore ekonomikoetan, ekoizpen balioari jarraiki

Sektore ekonomikoa	Input-Output jardura adarrak	Ekoizpen balioa (mila €)						
		Eragin zuzena		Zeharkako eragina		GUZTIRA		
		Kop.	% horizon- tala	Kop.	% Horizon- tala	Kop.	% bertikala	EAErekiko %
I.- Nekazaritza, abeltzaintza, basogintza eta arrantza	01, 02, 03	-	0,00	449	100,00	449	0,02	0,04
II.- Erauzte industriak	04		0,00	1	100,00	1	0,00	0,00
III.- Manufaktura industriak	15. Arte grafikoak eta erreprodukzioak	1.050	7,40	13.140	92,60	14.190	0,48	2,81
	Gainerako I/O adarrak: 05etik 42ra artekoak 15 izan ezik	-	0,00	42.141	100,00	42.141	1,43	0,09
	Guztira III. Sektorea	1.050	1,86	55.281	98,14	56.331	1,91	0,12
IV.- Energia, gasa eta ur hornidura	43,44,45,46	-	0,00	37.575	100,00	37.575	1,27	0,48
V.- Eraikuntza	47	-	0,00	39.223	100,00	39.223	1,33	0,30
VI.- Merkataritza, ostalaritza eta garraioak	49. Handizkako merkataritza		0,00	7.523	100,00	7.523	0,26	0,15
	50. Txikizkako merkataritza	4.794	52,06	4.415	47,94	9.209	0,31	0,23
	58. Ostalaritza		0,00	31.243	100,00	31.243	1,06	0,54
	Gainerako I/O adarrak: 48tik 58ra artekoak, 49,50 eta 58 izan ezik	-	0,00	31.698	100,00	31.698	1,07	0,40
	Guztira VI. Sektorea	4.794	6,02	74.879	93,98	79.673	2,70	0,35
VII.- Informazio eta komunikazio jarduerak	59. Argitalpenak	85.483	87,47	12.244	12,53	97.728	3,31	27,98
	60. Ikus-entzunezkoak	145.795	86,65	22.468	13,35	168.263	5,70	44,08
	61. Telekomunikazioak		0,00	29.960	100,00	29.960	1,02	1,69
	62. Informatika	9.440	30,26	21.756	69,74	31.195	1,06	2,64
	Guztira VII. Sektorea	240.718	73,58	86.428	26,42	327.146	11,09	8,87
VIII.- Finantza zerbitzuak eta higiezin jarduerak	63,64,65 eta 66	-	0,00	47.833	100,00	47.833	1,62	0,38
IX.- Jarduera profesionalak	67. Jarduera juridikoak eta kontabilitatekoak	29.388	67,15	14.376	32,85	43.764	1,48	1,63
	68. Arkitektura eta ingeniarietako zerbitzuak		0,00	3.578	100,00	3.578	0,12	0,15
	69. Ikerketa eta garapena	7.353	97,15	215	2,85	7.568	0,26	1,45
	70. Publizitatea eta merkatu azterlanak	49.535	85,15	8.639	14,85	58.174	1,97	11,44
	71. Beste jardura profesionalak	37.438	70,52	15.654	29,48	53.092	1,80	14,96
	Guztira IX. Sektorea	123.713	74,45	42.464	25,55	166.177	5,63	2,59
X.- Alokairu jarduerak, bidai agentziak eta zerbitzu osagarriak	72,73,74 eta 75	-	0,00	38.035	100,00	38.035	1,29	1,32
XI.- Herri administrazioa	76	207.532	100,00	-	0,00	207.532	7,04	4,08
XII.- Hezkuntza	77	1.762.939	99,71	5.188	0,29	1.768.127	59,95	50,35
XIII.- Osasun eta gizarte zerbitzuak	78 eta 79	-	0,00	6.193	100,00	6.193	0,21	0,12
XIV.- Kultur, kirol eta aisialdiko zerbitzuak	80. Kultur jarduerak	98.452	93,68	6.638	6,32	105.091	3,56	12,89
	81. Kirol eta aisialdi jarduerak		0,00	3.316	100,00	3.316	0,11	0,53
	82. Elkartegintzako jarduerak	58.420	96,90	1.866	3,10	60.286	2,04	12,41
	Gainerako I/O adarrak: 83,84 eta 85	-	0,00	6.488	100,00	6.488	0,22	0,47
	Guztira XIV. Sektorea	156.872	89,55	18.308	10,45	175.180	5,94	5,31
GUZTIRA		2.497.618	84,68	451.857	15,32	2.949.475	100,00	2,18

Iturria: Eustat, 2012; Siadecok landutako datuak, 2015



4.2.2/ Balio Erantsi Gordina

Euskararen zuzeneko eta zeharkako Balio Erantsi Gordina, 2.100 milioi € da urtean. Oro har, EAEko Balio Erantsi Gordin guztiarekiko (60.875 milioi €), %3,45; ekarpen honen %88,9 zuzeneko eraginari dagokio (1.867 milioi €), eta %11,1 zeharkako eraginari (233 milioi €).

Zuzeneko eraginaren BEG

Lau euskara-sektoreen guztirako BEGren %80 Hezkuntza arautua, unibertsitatea eta bestelako hezkuntza jardueri dagokie, 1.488 milioi € (%79,7).

Hezkuntzaren ondoren, baina nabarmen beherago datoz, %6 inguruko pisuarekin, herri administrazioa (118 milioi €), eta Informazio eta Komunikazio Jarduerak (114 milioi €); eta %4 inguruko pisuarekin Kultur, kirol eta aisialdiko zerbitzuak (76 milioi €) eta Jarduera profesionalak (68 milioi €).

Baina ekoizpenaren kasuan esan bezala, Balio Erantsi Gordinari dagokionez ere, euskararen zeharkako eragina, gutxi edo gehiago, ekonomiaren sektore guztietara zabaltzen da; euskararen eragin zuzeneko eragileek beren produktu eta zerbitzuak ekoizteko, beste sektoreetan eragindako produkzioari dagokion Balio Erantsi Gordina, hain zuzen ere. Guztira, zeharka, euskarak 233 milioi €ko Balio Erantsi Gordina eragiten du.

Zeharkako eraginaren BEG

Euskararen zeharkako eraginean pisurik gehien hartzen duten sektoreak Informazio eta Komunikazio Jarduerak (43.605 mila € - %18,7) eta Merkataritza, Ostalaritza eta Garraioak (39.762 mila € - %17,1) eta Finantza zerbitzuak eta higiezin jarduerak (37.697 mila € - %16,2) dira.

Zuzeneko eta zeharkako eraginaren BEG:

Guztira, zuzeneko eta zeharkako eragina kontuan hartuta, Hezkuntza sektoreak eragiten du zatirik handiena (%71,1), eta atzetik datoz, baina nabarmen pisu gutxiagorekin Informazio eta komunikazio jarduerak (%7,5), Herri Administrazioa (%5,6), Kultur, kirol eta aisialdiko zerbitzuak (%4,1) eta Jarduera profesionalak (%4,3). Euskararen zuzeneko eta zeharkako BEGaren %2,1 Merkataritza, ostalaritza eta garraioak eragiten du, %2 baino gutxiago gainerako sektoreek.

Oro har, esan bezala, EAEko Balio Erantsi Gordin guztiarekiko %3,45 dagokio euskararen zuzeneko eta zeharkako eraginari. Proporzio hau ez da bera IO adar desberdinetan eta badira beren BEGaren pisu handia euskarazko eraginari zor diotenak: honela, Hezkuntza adarrari dagokion BEGaren %50,6 da euskarak -zuzenean eta zeharka- eragindakoa; Ikus-



entzunezkoen adarrean ere, BEG osoaren %42,4 dagokio euskarazko BEGari; eta Argitalpenetan, %26,5.

Euren Balio Erantsi Gordinaren %11-%14 artean zor diote euskarari ondorengo adarrek: Beste jarduera profesionalak (%14,3), Kultur jarduerak eta jokoa (%12,1), Elkartegintzako jarduerak (%12,0) eta Publizitatea eta merkatu azterlanak (%11,9). Eta nabarmen apalagoa da euskarak gainerako adarren Balio Erantsi Gordinean duen eragina.

51. taula: Euskararen zuzeneko eta zeharkako eragina EAEko sektore ekonomikoetan, Balio Erantsi Gordinari jarraiki

Sektore ekonomikoa	Input-Output jarduera adarrak	Balio Erantsi Gordina (mila €)						
		Eragin zuzena		Zeharkako eragina		GUZTIRA		
		Kop.	% hori- zontala	Kop.	% horizon- tala	Kop.	% bertikala	EAErekiko %
I.- Nekazaritza, abeltzaintza, basogintza eta arrantza	01, 02, 03	-	0,00	227	100,00	227	0,01	0,04
II.- Erauzte industriak	04		0,00	1	100,00	1	0,00	0,00
III.- Manufaktura industriak	15. Arte grafikoak eta erreprodukzioak	457	7,40	5.722	92,60	6.180	0,29	3,07
	Gainerako I/O adarrak: 05etik 42ra artekoak 15 izan ezik	-	0,00	14.106	100,00	14.106	0,67	0,12
	GUztira III. Sektorea	457	2,25	19.829	97,75	20.286	0,97	0,16
IV.- Energia, gasa eta ur hornidura	43,44,45,46	-	0,00	12.443	100,00	12.443	0,59	0,55
V.- Eraikuntza	47		0,00	11.623	100,00	11.623	0,55	0,27
VI.- Merkataritza, ostalaritza eta garraioak	49. Handizkako merkataritza		0,00	4.965	100,00	4.965	0,24	0,15
	50. Txikizkako merkataritza	3.224	52,06	2.969	47,94	6.193	0,29	0,22
	58. Ostalaritza		0,00	14.639	100,00	14.639	0,70	0,54
	Gainerako I/O adarrak: 48tik 58ra artekoak, 49,50 eta 58 izan ezik	-	0,00	17.188	100,00	17.188	0,82	0,49
	GUztira VI. Sektorea	3.224	7,50	39.762	92,50	42.985	2,05	0,35
VII.- Informazio eta komunikazio jarduerak	59. Argitalpenak	45.010	87,47	6.447	12,53	51.457	2,45	26,52
	60. Ikus-entzunezkoak	63.270	86,65	9.750	13,35	73.020	3,48	42,38
	61. Telekomunikazioak		0,00	15.362	100,00	15.362	0,73	1,59
	62.-Informatika	5.226	30,26	12.045	69,74	17.271	0,82	2,45
	GUztira VII. Sektorea	113.506	72,25	43.605	27,75	157.111	7,48	7,70
VIII.- Finantza zerbitzuak eta higiezin jarduerak	63,64,65 eta 66	-	0,00	37.697	100,00	37.697	1,79	0,38
IX.- Jarduera profesionalak	67. Jarduera juridikoak eta kontabilitatekoak	17.037	67,15	8.334	32,85	25.371	1,21	1,63
	68. Arkitektura eta ingeniarietako zerbitzuak		0,00	1.768	100,00	1.768	0,08	0,14
	69. Ikerketa eta garapena	5.972	97,15	175	2,85	6.146	0,29	2,01
	70. Publizitatea eta merkatu azterlanak	23.086	85,15	4.026	14,85	27.112	1,29	11,90
	71. Beste jarduera profesionalak	21.720	70,52	9.082	29,48	30.802	1,47	14,29
	GUztira IX. Sektorea	67.814	74,36	23.386	25,64	91.200	4,34	2,56
X.- Alokairu jarduerak, bidai agentziak eta zerbitzu osagarriak	72,73,74 eta 75	-	0,00	25.240	100,00	25.240	1,20	1,50
XI.- Herri administrazioa	76	117.762	100,00	-	0,00	117.762	5,61	3,85
XII.- Hezkuntza	77	1.488.332	99,71	4.380	0,29	1.492.712	71,07	50,60
XIII.- Osasun eta gizarte zerbitzuak	78 eta 79	-	0,00	4.722	100,00	4.722	0,22	0,12
XIV.- Kultur, kirol eta aisialdiko zerbitzuak	80. Kultur jarduerak	49.186	93,68	3.316	6,32	52.503	2,50	12,08
	81. Kirol eta aisialdi jarduerak		0,00	1.835	100,00	1.835	0,09	0,50
	82- Elkartegintzako jarduerak	27.063	96,90	865	3,10	27.927	1,33	12,00
	Gainerako I/O adarrak: 83,84 eta 85	-	0,00	4.069	100,00	4.069	0,19	0,36
	GUztira XIV. Sektorea	76.249	88,32	10.085	11,68	86.334	4,11	4,00
GUZTIRA		1.867.344	88,91	232.999	11,09	2.100.343	100,00	3,45

Iturria: Eustat, 2012; Siadecok landutako datuak, 2015.



4.2.3/ Enplegua

Aurreko ataletan kuantifikatutako euskara-sektoreetako zuzeneko enpleguari, zeharkakoa ere gehituta, 46.472 lanpostu sortzen ditu euskarak EAEn; beraz, EAeko enplegu osoaren (893.952 enplegu), %5,20 euskarak zuzenean eta zeharka sortutako enpleguari dagokio.

Enplegu zuzena

Euskarak sortzen duen zuzeneko enpleguaren % 84 euskarazko hezkuntza jarduerari lotua dago, 35.894 lanpostu.

Kopuru absolutuetan, eta eragin zuzeneko enpleguari dagokionez, hezkuntzaren ondoren datoz, informazio eta komunikaziorako jarduerak (1.907 enplegu), kultur, kirol eta aisialdiko zerbitzuak (1.712 enplegu), jarduera profesionalak (1.527 enplegu) eta herri administrazioa (1.511 enplegu).

Zeharkako enplegua

Baina ekoizpenaren eta BEGaren kasuan esan bezala, enpleguari dagokionez ere, euskararen zeharkako eragina, gutxi edo gehiago, ekonomiaren sektore guztietara zabaltzen da; euskararen eragin zuzeneko eragileek beren produktu eta zerbitzuak ekoizteko, beste sektoreetan eragindako produkzioarekin lotutako enplegua, hain zuzen ere. Guztira, zeharka, euskarak 3.748 enplegu eragiten ditu.

Enplegu zuzena eta zeharkakoa guztira

Guztira, enplegu zuzena eta zeharkakoa kontuan hartuta, hezkuntza sektoreak eragiten du enplegu gehien (35.982 enplegu - %77,4), eta atzetik datoz, baina nabarmen pisu gutxiagorekin Informazio eta komunikazio jarduerak (2.466 enplegu), Jarduera profesionalak (2.017 enplegu), Kultur, kirol eta aisialdiko zerbitzuak (1.952 enplegu), eta Herri Administrazioa (1.511 enplegu).

Oro har, esan bezala, EAeko enplegu guztiarekiko %5,20 dagokio euskararen zuzeneko eta zeharkako eraginari. Proporzio hau ez da bera IO adar guztietan; hezkuntzaren alorrean, enpleguaren %57 dagokio euskarari. Gainerako sektoreetan pisu nabarmen baxuagoa du euskararen enpleguak, hainbat Input-Output adarretan adierazgarria izan arren. Honela, Ikus-entzunezkoen adarrean, enpleguaren %40 dagokio euskarari, eta argitalpenen adarrean %33; Kultur jardueren adarraren enpleguaren %22, beste jarduera profesionalen adarraren kasuan %16 eta publizitatea eta merkatu azterlanen adarrean %13. Adierazgarria da beraz euskarak hainbat adarren enpleguan duen pisua.

52.taula: Euskararen zuzeneko eta zeharkako eragina EAEko sektore ekonomikoetan, enpleguari jarraiki

Sektore ekonomikoa	Input-Output jarduera adarrak	Enplegua (lanpostuak)						
		Eragin zuzena		Zeharkako eragina		GUZTIRA		
		Kop.	% horizontala	Kop.	% horizontala	Kop.	% bertikala	EAEreko %
I.- Nekazaritza, abeltzaintza, basogintza eta arrantza	01, 02, 03	0	0,00	8	100,00	8	0,02	0,06
II.- Erazte industriak			0,00	0	100,00	0	0,00	0,00
III.- Manufaktura industriak	15. Arte grafikoak eta erreproduzioak	11	7,66	133	92,34	144	0,31	3,34
	Gainerako I/O adarrak: 05etik 42ra artekoak 15 izan ezik	0	0,00	262	100,00	262	0,56	0,14
	Guztira III. Sektorea	11	2,71	395	97,29	406	0,87	0,22
IV.- Energia, gasa eta ur hornidura	43,44,45,46	0	0,00	43	100,00	43	0,09	0,53
V.- Eraikuntza			0,00	185	100,00	185	0,40	0,28
VI.- Merkataritza, ostalaritza eta garraioak	49. Handizkako merkataritza		0,00	67	100,00	67	0,14	0,15
	50. Txikizkako merkataritza	162	66,85	80	33,15	242	0,52	0,34
	58. Ostalaritza		0,00	277	100,00	277	0,60	0,56
	Gainerako I/O adarrak: 48tik 58ra artekoak, 49,50 eta 58 izan ezik	0	0,00	279	100,00	279	0,60	0,53
	Guztira VI. Sektorea	162	18,71	704	81,29	866	1,86	0,40
VII.- Informazio eta komunikazio jarduerak	59. Argitalpenak	687	89,61	80	10,39	767	1,65	32,90
	60. Ikus-entzunezkoak	1.121	84,07	212	15,93	1.333	2,87	39,99
	61. Telekomunikazioak		0,00	49	100,00	49	0,11	1,77
	62. Informatika	99	31,24	218	68,76	317	0,68	2,62
	Guztira VII. Sektorea	1.907	77,32	559	22,68	2.466	5,31	12,00
VIII.- Finantza zerbitzuak eta higiezin jarduerak	63,64,65 eta 66	0	0,00	133	100,00	133	0,29	0,53
IX.- Jarduera profesionalak	67. Jarduera juridikoak eta kontabilitatekoak	230	63,05	135	36,95	365	0,78	1,56
	68. Arkitektura eta ingeniartzako zerbitzuak		0,00	28	100,00	28	0,06	0,16
	69. Ikerketa eta garapena	135	98,06	3	1,94	138	0,30	2,03
	70. Publizitatea eta merkatu azterlanak	563	86,60	87	13,40	650	1,40	12,79
	71. Beste jarduera profesionalak	599	71,59	238	28,41	837	1,80	15,55
	Guztira IX. Sektorea	1.527	75,70	490	24,30	2.017	4,34	3,50
X.- Alokairu jarduerak, bidai agentziak eta zerbitzu osagarriak	72,73,74 eta 75	0	0,00	838	100,00	838	1,80	1,65
XI.- Herri administrazioa	76	1.511	100,00	0	0,00	1.511	3,25	2,69
XII.- Hezkuntza	77	35.894	99,75	88	0,25	35.982	77,43	57,43
XIII.- Osasun eta gizarte zerbitzuak	78 eta 79	0	0,00	65	100,00	65	0,14	0,10
XIV.- Kultur, kirol eta aisialdiko zerbitzuak	80. Kultur jarduerak	1.163	95,84	50	4,16	1.213	2,61	21,88
	81. Kirol eta aisialdi jarduerak		0,00	35	100,00	35	0,08	0,53
	82. Elkartegintzako jarduerak	549	95,52	26	4,48	575	1,24	8,60
	Gainerako I/O adarrak: 83,84 eta 85	0	0,00	129	100,00	129	0,28	0,29
	Guztira XIV. Sektorea	1.712	87,70	240	12,30	1.952	4,20	3,06
GUZTIRA		42.724	91,93	3.748	8,07	46.472	100,00	5,20

Iturria: Eustat, 2012; Siadecok landutako datuak, 2015.



4.3/ Eragin induzitua

4.3.1/ Prozedura metodologikoa:

Eragin induzitua, euskarak zuzenean eta zeharka eragiten duen jarduera ekonomikotik sortutako errentari esker eragindako kontsumo pribatutik eratorritakoa izango litzateke; euskararen zuzeneko eta zeharkako eraginaren EAEko ekonomiarekiko efektu biderkatzailea kalkulatu behar da honenbestez.

Eragin induzituaren zenbatekoa estimatzerakoan honako prozedura jarraitu da:

- IO jarduera-adar bakoitzerako estimatutako zuzeneko eta zeharkako ekoizpen baliotik abiatuta eta IO adar bakoitzeko soldaten ordainketa/ekoizpen balioa koefizientea aplikatuta, zuzeneko eta zeharkako enpleguari dagokion soldaten zenbatekoa kalkulatu da, gizarte kotizazioak aparte utzita.
- Soldatapekoek guztira jasotako errenta gordinari, Pertsona Fisikoen Errentaren Gaineko Zergaren batez besteko tasa efektiboa eta langilearen gaineko gizarte segurantzako kotizazioa kenduta (% 4,70), familiek aurrezkirako eta kontsumorako erabilgarri duten zenbatekoa kalkulatu da. PFEZ batez besteko tasa efektiboa, zergadunek jasotako errentaren arabera eta bakoitzaren egoera pertsonalaren arabera kenkariak ere kontuan hartuta ogasunari egindako ordainketen arabera kalkulaturakoa da. Batez besteko hori, % 16,67koa Espainiar Estatuan (Iturria: Espainiako Gobernuak; Zerga Administrazioen Memoria, 2012).
- Errenta garbi edo erabilgarritik zatirik handiena kontsumorako erabiltzen da eta zati txiki bat aurrezkirako. Errenta erabilgarritik aurrezkirako erabilitakoa kenduta, kontsumora destinatutako zenbatekoa kalkulatu da. Espainiako Bankuaren 2013ko Buletin Ekonomikoaren arabera, Espainian familien aurrezki tasa %8,2koa zen 2012aren amaieran. Honenbestez, errenta erabilgarriren % 91,8 izan da familien etxeko kontsumoa estimatzeko erabilitako ehunekoa.
- IO taula simetrikoko datuetatik abiatuta eta adar bakoitzeko ekoizpen baliotik EAEn egindako familiako azken kontsumora zenbat destinatzen den kontuan hartuta, aurrez kalkulaturako familien etxeko kontsumoaren guztirakoa, taula simetrikoko IO adarren arabera banatu da.
- IO adar bakoitzean familien azken kontsumora bideratutako ekoizpen balioa, oinarrizko prezioetan kalkulatu dago; aldiz, familiek kontsumora destinatutako zenbatekoarekin produktuen gaineko zergak ere ordaindu behar dira. Horrenbestez, familiek azken kontsumorako erabilitakotik, produktuen gaineko zergak kendu ondoren geratzen den zenbatekoa izan da IO adarren arabera banatu dena. Produktuen gaineko zergak kalkulatzeko, I-O adar bakoitzak ekoiztutako produktuaren arabera BEZ tasak aplikatu dira (%4, %10 edo %21).



- Euskararen zuzeneko eta zeharkako eraginaren errentetatik eratorritako kontsumoa IO adar bakoitzean zenbatekoa den jakinda eta adar bakoitzari dagozkion Leontieff koefizienteak aplikatuta (BEG/ekoizpen balioarekiko, enplegua/ekoizpen balioarekiko), eragin induzituaren guztirako datuak eskuratu dira (ekoizpen balioa, BEG eta enplegua).

4.3.2/ Eragin induzitua

53. taula: Euskararen zuzeneko eta zeharkako eraginetik eratorritako errentak, familiek azken eskarian egindako kontsumoa eta eskari horrek EAEko ekonomian duen eragin biderkatzailea edo eragin induzitua (ekoizpen balioa, Balio Erantsi Gordina eta enplegua)

Eragin mota	Kontzeptua	Balioa
Zuzeneko eta zeharkako eragina guztira	Ekoizpen balioa	2.949.475 mila €
	Balio Erantsi Gordina	2.100.343 mila €
	Enplegua	46.472
Zuzeneko eta zeharkako enpleguaren errentak eta kontsumoa	Soldatapekoen ordainketak – Soldata gordina	1.342.362 mila €
	Soldata garbia	1.055.499 mila €
	Kontsumora bideratutako gastua	968.948 mila €
Eragin induzitua	Ekoizpen balioa	1.152.994 mila €
	Balio Erantsi Gordina	650.750 mila €
	Enplegua	9.670

Iturria: Siadecok landutako datuak, 2015



4.4/ Euskararen eragin ekonomiko osoa

4.4.1/ Ekoizpen balioa

Euskarak guztira (zuzenean, zeharka eta modu induzituan) eragindako ekoizpen balioa 4.102 milioi €koa da, EAeko ekoizpen balio guztiarekiko %3,03 (135.277 miloi €).


Ekoizpen balio honen %72 zuzeneko eta zeharkako ekoizpen balioari dagokio (lehen ikusitakoak), eta %28 eragin induzitua izango litzateke, 1.153.994 mila €.

Induzitutako ekoizpenaren zutabeari ekarpen handiena egiten dioten adar/sektoreak honakoak dira: Finantza Zerbitzuak eta higiezinak (268.960 mila € - %23,3), Ostalaritza (145.664 mila € - %12,6), Txikizkako merkataritza (112.256 mila € - %9,7) eta Manufaktura industriak (115.630 mila € - %10,0).

Halere, orain arte ikusitakoa berretsiz, Hezkuntza sektoreak egiten dio ekarpenik handiena euskarak guztira (zuzenean, zeharka eta modu induzituan) eragindako ekoizpen balioari (1.793.946 mila €, %43,7); jarraian, baina nabarmen beherago datoz Merkataritza, ostalaritza eta garraioak sektorea (470.434 mila € - %11,5), Informazio eta komunikazio jarduerak sektorea (368.991 - %9,0) eta Finantza zerbitzuak eta higiezinak sektorea (316.793 mila € - %7,7).

Euskararen ekoizpen balioak, adar edo sektore baten guztirako ekoizpen balioan duen pisuari erreparatuta, aipatu Hezkuntza sektorean euskarak duen pisua (non ekoizpen balioaren %51,1 euskarak eragindakoa den); Ikus-entzunezkoen adarrean %44,5eko pisua du euskarak eragindako ekoizpen balioak, sektorearen ekoizpen balio guztiarekiko; %29,2koa argitalpenen adarrean; eta %12-16 artekoa beste lau adarretan: Beste jarduera profesionalak, Kultur jarduerak, Elkartegintzako jarduerak eta Publizitatea eta Merkatu azterlanak.

7. Grafikoa. Euskararen zuzeneko eragina, zeharkako eragin eta eragin induzitua EAEko sektore ekonomikoetan, **ekoizpen balioari jarraiki** (mila €)



Iturria: Siadecok landutako datuak, 2015.



54. taula: Euskarak zuzenean, zeharka eta modu induzituan eragindako ekoizpena (mila eurotan), eta IO adarraren ekoizpenarekiko duen pisua (%)

Sektore ekonomikoa	Input-Output jardura adarrak	Ekoizpen balioa (mila €)						
		Zuzena eta zeharkakoa		Induzitua		GUZTIRA		
		Kop.	% hori-zontala	Kop.	% hori-zontala	Kop.	% bertikala	EAErekiko %
I.- Nekazaritza, abeltzaintza, basogintza eta arrantza	01, 02, 03	449	4,64	9.231	95,36	9.680	0,24	0,93
II.- Erauzte industriak	04	1	0,33	370	99,67	372	0,01	0,18
III.- Manufaktura industriak	15. Arte grafikoak eta erreproduzioak	14.190	83,89	2.726	16,11	16.916	0,41	3,35
	Gainerako I/O adarrak: 05etik 42ra artekoak 15 izan ezik	42.141	27,18	112.905	72,82	155.045	3,78	0,33
	Guztira III. Sektorea	56.331	32,76	115.630	67,24	171.961	4,19	0,36
IV.- Energia, gasa eta ur hornidura	43,44,45,46	37.575	38,11	61.016	61,89	98.591	2,40	1,25
V.- Eraikuntza	47	39.223	47,04	44.162	52,96	83.385	2,03	0,63
VI.- Merkataritza, ostalaritza eta garraioak	49. Handizkako merkataritza	7.523	13,72	47.306	86,28	54.829	1,34	1,09
	50. Txikizkako merkataritza	9.209	7,58	112.256	92,42	121.465	2,96	3,01
	58. Ostalaritza	31.243	17,66	145.664	82,34	176.907	4,31	3,03
	Gainerako I/O adarrak: 48tik 58ra artekoak, 49,50 eta 58 izan ezik	31.698	27,04	85.535	72,96	117.233	2,86	1,49
	Guztira VI. Sektorea	79.673	16,94	390.761	83,06	470.434	11,47	2,07
VII.- Informazio eta komunikazio jarduerak	59. Argitalpenak	97.728	95,75	4.335	4,25	102.063	2,49	29,22
	60. Ikus-entzunezkoak	168.263	99,17	1.414	0,83	169.677	4,14	44,45
	61. Telekomunikazioak	29.960	50,39	29.494	49,61	59.454	1,45	3,35
	62. Informatika	31.195	82,54	6.601	17,46	37.796	0,92	3,20
	Guztira VII. Sektorea	327.146	88,66	41.845	11,34	368.991	8,99	10,00
VIII.- Finantza zerbitzuak eta higiezin jarduerak	63,64,65 eta 66	47.833	15,10	268.960	84,90	316.793	7,72	2,52
IX.- Jarduera profesionalak	67. Jarduera juridikoak eta kontabilitatekoak	43.764	75,16	14.467	24,84	58.231	1,42	2,17
	68. Arkitektura eta ingeniarietako zerbitzuak	3.578	39,72	5.430	60,28	9.009	0,22	0,38
	69. Ikerketa eta garapena	7.568	100,00	-	0,00	7.568	0,18	1,45
	70. Publizitatea eta merkatu azterlanak	58.174	90,95	5.786	9,05	63.960	1,56	12,58
	71. Beste jarduera profesionalak	53.092	90,62	5.497	9,38	58.589	1,43	16,51
	Guztira IX. Sektorea	166.177	84,20	31.180	15,80	197.357	4,81	3,07
X.- Alokairu jarduerak, bidai agentziak eta zerbitzu osagarriak	72,73,74 eta 75	38.035	47,74	41.628	52,26	79.663	1,94	2,77
XI.- Herri administrazioa	76	207.532	100,00	-	0,00	207.532	5,06	4,08
XII.- Hezkuntza	77	1.768.127	98,56	25.819	1,44	1.793.946	43,73	51,09
XIII.- Osasun eta gizarte zerbitzuak	78 eta 79	6.193	12,54	43.177	87,46	49.371	1,20	0,92
XIV.- Kultur, kirol eta aisialdiko zerbitzuak	80. Kultur jarduerak	105.091	83,29	21.085	16,71	126.176	3,08	15,47
	81. Kirol eta aisialdi jarduerak	3.316	23,24	10.949	76,76	14.264	0,35	2,27
	82. Elkartegintzako jarduerak	60.286	86,06	9.762	13,94	70.048	1,71	14,42
	Gainerako I/O adarrak: 83,84 eta 85	6.488	14,78	37.419	85,22	43.907	1,07	3,20
	Guztira XIV. Sektorea	175.180	68,86	79.215	31,14	254.395	6,20	7,70
	GUZTIRA		2.949.475	71,90	1.152.994	28,10	4.102.469	100,00

Iturria: Eustat, 2012; Siadecok landutako datuak, 2015.



4.4.2/ Balio Erantsi Gordina

Euskarak guztira (zuzenean, zeharka eta modu induzituan) eragindako Balio Erantsi Gordina 2.751.093 mila €-koa da, EAEko BEG guztiarekiko %4,52 (60.875.938 mila €).


Guztirako BEGaren %76,4 zuzeneko eta zeharkako ekoizpen balioari dagokio (lehen ikusitakoak), eta %23,6 da induzitutako eraginari dagokiona, 650.750 mila €.

Induzitutako BEGaren zutabeari ekarpen handiena egiten dioten adar/ektoreak honakoak dira: Finantza Zerbitzuak eta higiezinaren jarduerak (206.672 mila € - %31,8), Txikizkako merkataritza (75.489 mila € - %11,6) eta Ostalaritza (68.249 mila € - %10,5).

Halere, behin eta berriz adierazten ari garenez, Hezkuntza sektoreak egiten dio ekarpenik handiena (1.514.510 mila €, %55,1) euskarak guztira (zuzenean, zeharka eta modu induzituan) eragindako BEGari; jarraian, baina nabarmen beherago datoz Merkataritza, ostalaritza eta garraioak sektorea (257.879 mila € - %9,4), Finantza zerbitzuak eta higiezinaren jarduerak sektorea (244.370 mila € - %8,9) eta Informazio eta komunikazio jarduerak sektorea (178.785 mila € - %6,5).

Euskararen BEGak, adar edo sektore baten guztirako Balio Erantsi Gordinean duen pisuari erreparatuta, aipatu Hezkuntza sektorean euskarak duen pisua (non BEGaren %51,3 euskarak eragindakoa den); Ikus-entzunezkoen adarrean %42,7ko pisua du euskarak eragindako BEGak, sektorearen BEG guztiarekiko; %27,7koa argitalpenen adarrean; eta %13-15 artekoa beste lau adarretan: Beste jarduera profesionalak, Kultur jarduerak, Elkartegintzako jarduerak eta Publizitatea eta Merkatu azterlanak.

8. Grafikoa. Euskararen zuzeneko eragina, zeharkako eragin eta eragin indutitua
EAEko sektore ekonomikoetan, **Balio Erantsi Gordinari** jarraiki (mila €)



Iturria: Siadecok landutako datuak, 2015.



55. taula: Euskarak zuzenean, zeharka eta modu induzituan eragindako Balio Erantsi Gordina (mila eurotan), eta IO adarraren BEGarekiko duen pisua (%)

Sektore ekonomikoa	Input-Output jarduera adarrak	Balio Erantsi Gordina (mila €)						
		Zuzena eta zeharkakoa		Induzitua		GUZTIRA		
		Kop.	% hori-zontala	Kop.	% hori-zontala	Kop.	% bertikala	EA Erekiko %
I.- Nekazaritza, abeltzaintza, basogintza eta arrantza	01, 02, 03	227	4,75	4.549	95,25	4.776	0,17	0,92
II.- Erauzte industriak	04	1	0,33	154	99,67	154	0,01	0,24
III.- Manufaktura industriak	15. Arte grafikoak eta erreprodukzioak	6.180	83,89	1.187	16,11	7.367	0,27	3,66
	Gainerako I/O adarrak: 05etik 42ra artekoak 15 izan ezik	14.106	31,88	30.144	68,12	44.250	1,61	0,36
	Guztira III. Sektorea	20.286	39,30	31.331	60,70	51.617	1,88	0,42
IV.- Energia, gasa eta ur hornidura	43,44,45,46	12.443	38,78	19.641	61,22	32.084	1,17	1,41
V.- Eraikuntza	47	11.623	47,04	13.086	52,96	24.709	0,90	0,58
VI.- Merkataritza, ostalaritza eta garraioak	49. Handizkako merkataritza	4.965	13,72	31.226	86,28	36.191	1,32	1,10
	50. Txikizkako merkataritza	6.193	7,58	75.489	92,42	81.681	2,97	2,96
	58. Ostalaritza	14.639	17,66	68.249	82,34	82.888	3,01	3,06
	Gainerako I/O adarrak: 48tik 58ra artekoak, 49,50 eta 58 izan ezik	17.188	30,09	39.930	69,91	57.119	2,08	1,63
	Guztira VI. Sektorea	42.985	16,67	214.894	83,33	257.879	9,37	2,10
VII.- Informazio eta komunikazio jarduerak	59. Argitalpenak	51.457	95,75	2.283	4,25	53.739	1,95	27,70
	60. Ikus-entzunezkoak	73.020	99,17	614	0,83	73.634	2,68	42,74
	61. Telekomunikazioak	15.362	50,39	15.124	49,61	30.486	1,11	3,15
	62. Informatika	17.271	82,54	3.655	17,46	20.926	0,76	2,97
	Guztira VII. Sektorea	157.111	87,88	21.675	12,12	178.785	6,50	8,76
VIII.- Finantza zerbitzuak eta higiezin jarduerak	63,64,65 eta 66	37.697	15,43	206.672	84,57	244.370	8,88	2,49
IX.- Jarduera profesionalak	67. Jarduera juridikoak eta kontabilitatekoak	25.371	75,16	8.387	24,84	33.758	1,23	2,17
	68. Arkitektura eta ingeniariartzako zerbitzuak	1.768	39,72	2.683	60,28	4.452	0,16	0,36
	69. Ikerketa eta garapena	6.146	100,00	-	0,00	6.146	0,22	2,01
	70. Publizitatea eta merkatu azterlanak	27.112	90,95	2.697	9,05	29.809	1,08	13,09
	71. Beste jarduera profesionalak	30.802	90,62	3.189	9,38	33.991	1,24	15,77
	Guztira IX. Sektorea	91.200	84,32	16.956	15,68	108.156	3,93	3,04
X.- Alokairu jarduerak, bidai agentziak eta zerbitzu osagarriak	72,73,74 eta 75	25.240	58,24	18.100	41,76	43.339	1,58	2,57
XI.- Herri administrazioa	76	117.762	100,00	-	0,00	117.762	4,28	3,85
XII.- Hezkuntza	77	1.492.712	98,56	21.797	1,44	1.514.510	55,05	51,34
XIII.- Osasun eta gizarte zerbitzuak	78 eta 79	4.722	13,27	30.859	86,73	35.582	1,29	0,93
XIV.- Kultur, kirol eta aisialdiko zerbitzuak	80. Kultur jarduerak	52.503	83,29	10.534	16,71	63.037	2,29	14,50
	81. Kirol eta aisialdi jarduerak	1.835	23,24	6.060	76,76	7.896	0,29	2,13
	82. Elkartegintzako jarduerak	27.927	86,06	4.522	13,94	32.449	1,18	13,95
	Gainerako I/O adarrak: 83,84 eta 85	4.069	11,97	29.920	88,03	33.989	1,24	3,03
	Guztira XIV. Sektorea	86.334	62,85	51.036	37,15	137.370	4,99	6,36
GUZTIRA		2.100.343	76,35	650.750	23,65	2.751.093	100,00	4,52

Iturria: Eustat, 2012; Siadecok landutako datuak, 2015



4.4.3/ Enplegua

Euskarak guztira (zuzenean, zeharka eta modu induzituan) 56.142 enplegu eragiten ditu, EAEko guztirako enpleguaren %6,28 (893.952 lanpostu).

Horietatik 46.472 enplegu (%82,8) zuzeneko eta zeharkako enpleguari dagozkio (jada aztertutakoa), eta 9.670 enplegu dira induzitutako eraginari dagozkionak (%17,2).


Induzitutako enpleguaren zutabeari ekarpen handiena egiten dioten adar/sektoreak honakoak dira: Txikizkako merkataritza (2.043 enplegu- %21,1), Kultur, kirol eta aisialdiko zerbitzuak (1.686 enplegu - %17,4) eta Ostalaritza (1.294 enplegu - %13,4).

Halere, behin eta berriz adierazten ari garen moduan, guztira, Hezkuntza sektorean sortzen da euskararekin lotutako enplegu gehien (36.422 enplegu - %64,9); jarraian, baina nabarmen beherago datoz, 1.000 enplegutik gora sortuz, ondorengo adarrak: Txikizkako merkataritza (2.285 enplegu), Ostalaritza (1.571 enplegu), Herri Administrazioa (1.511 enplegu), Kultur jarduerak-jokoa (1.374 enplegu), Alokairu jarduerak (1.360 enplegu), Ikus-entzumenezkoak (1.347 enplegu), eta bestelako kirol, kultur eta aisialdiko zerbitzuak (1.404 enplegu).

Euskararen enpleguak, adar edo sektore baten guztirako enpleguan duen pisuari erreparatuta, aipatu Hezkuntza sektorean euskarak duen pisua (non enpleguaren %64,9 euskarak eragindakoa den); Ikus-entzunezkoen adarrean %40,4ko pisua du euskarak eragindako enpleguak, sektorearen enplegu guztiarekiko; %34,1koa argitalpenen adarrean; %24,8koa kultur jarduerak-jokoa adarrean; %17,1koa Beste Jarduera Profesionalen adarrean; %13,9 Publizitatea eta Merkatu azterlanak adarrean eta %10,6 Elkartegintzako jarduerak adarrean.



9. Grafikoa. Euskararen zuzeneko eragina, zeharkako eragin eta eragin induzitua
EAEko sektore ekonomikoetan, **enpleguari jarraiki** (pertsona kopurua)



Iturria: Siadecok landutako datuak, 2015.

56. taula: Euskarak zuzenean, zeharka eta modu induzituan eragindako enplegua (lanpostuak), eta IO adarraren enpleguarekiko duen pisua (%)

Sektore ekonomikoa	Input-Output jardura adarrak	Enplegua						
		Zuzena eta zeharkakoa		Induzitua		GUZTIRA		
		Kop.	% hori-zontala	Kop.	% hori-zontala	Kop.	% bertikala	EAErekiko %
I.- Nekazaritza, abeltzaintza, basogintza eta arrantza	01, 02, 03	8	4,80	169	95,20	177	0,32	1,31
II.- Erauzte industriak	04	0	0,33	1	99,67	1	0,00	0,20
III.- . Manufaktura industriak	15. Arte grafikoak eta erreprodukzioak	144	83,92	28	16,08	171	0,30	3,98
	Gainerako I/O adarrak: 05etik 42ra artekoak 15 izan ezik	262	32,47	545	67,53	807	1,44	0,44
	Guztira III. Sektorea	406	41,47	573	58,53	978	1,74	0,53
IV.- Energia, gasa eta ur hornidura	43,44,45,46	43	35,24	80	64,76	123	0,22	1,51
V.- Eraikuntza	47	185	47,04	208	52,96	393	0,70	0,60
VI.- Merkataritza, ostalaritza eta garraioak	49. Handizkako merkataritza	67	13,72	419	86,28	485	0,86	1,12
	50. Txikizkako merkataritza	242	10,61	2.043	89,39	2.285	4,07	3,18
	58. Ostalaritza	277	17,66	1.294	82,34	1.571	2,80	3,15
	Gainerako I/O adarrak: 48tik 58ra artekoak, 49,50 eta 58 izan ezik	279	28,90	687	71,10	967	1,72	1,84
	Guztira VI. Sektorea	866	16,31	4.443	83,69	5.308	9,46	2,44
VII.- Informazio eta komunikazio jarduerak	59. Argitalpenak	767	96,45	28	3,55	795	1,42	34,11
	60. Ikus-entzunezkoak	1.333	99,01	13	0,99	1.347	2,40	40,40
	61. Telekomunikazioak	49	50,39	49	49,61	98	0,17	3,51
	62. Informatika	317	82,74	66	17,26	383	0,68	3,16
	Guztira VII. Sektorea	2.466	94,04	156	5,96	2.622	4,67	12,76
VIII.- Finantza zerbitzuak eta higiezin jarduerak	63,64,65 eta 66	133	20,47	516	79,53	648	1,15	2,59
IX.- Jarduera profesionalak	67. Jarduera juridikoak eta kontabilitatekoak	365	72,90	136	27,10	500	0,89	2,14
	68. Arkitektura eta ingeniarietako zerbitzuak	28	39,72	42	60,28	70	0,13	0,41
	69. Ikerketa eta garapena	138	100,00	-	0,00	138	0,25	2,03
	70. Publizitatea eta merkatu azterlanak	650	91,76	58	8,24	708	1,26	13,94
	71. Beste jarduera profesionalak	837	90,93	83	9,07	920	1,64	17,10
	Guztira IX. Sektorea	2.017	86,32	320	13,68	2.337	4,16	4,06
X.- Alokairu jarduerak, bidai agentziak eta zerbitzu osagarriak	72,73,74 eta 75	838	61,59	523	38,41	1.360	2,42	2,68
XI.- Herri administrazioa	76	1.511	100,00	-	0,00	1.511	2,69	2,69
XII.- Hezkuntza	77	35.982	98,79	439	1,21	36.422	64,87	58,13
XIII.- Osasun eta gizarte zerbitzuak	78 eta 79	65	10,40	558	89,60	623	1,11	0,93
XIV.- Kultur, kirol eta aisialdiko zerbitzuak	80. Kultur jarduerak	1.213	88,33	160	11,67	1.374	2,45	24,77
	81. Kirol eta aisialdi jarduerak	35	23,24	115	76,76	150	0,27	2,29
	82. Elkartegintzako jarduerak	575	81,03	135	18,97	709	1,26	10,61
	Gainerako I/O adarrak: 83,84 eta 85	129	9,18	1.275	90,82	1.404	2,50	3,12
	Guztira XIV. Sektorea	1.952	53,66	1.686	46,34	3.638	6,48	5,69
GUZTIRA		46.472	82,78	9.670	17,22	56.142	100,00	6,28

Iturria: Eustat, 2012; Siadecok landutako datuak, 2015.



5.

EUSKARAREN EKARPENA EUSKAL EKONOMIAREN



5.1/ Euskararen BPG kalkulatzeko prozedura

5.1.1/ BPGren erabilgarritasunaz

Barne Produktu Gordina (BPG), herrialde baten aberastasuna eta ekonomiaren bilakaera neurtzeko gehien erabiltzen den magnitude ekonomikoa da; herrialde baten urteko barne jarduera ekonomikoa osoa zenbatekoa izan den adierazten du. Euskal Autonomia Erkidegoko BPGren kalkulua Eustatek egiten du, urtero zein hiruhilero; urte arteko alderaketak eginda, BPGren igoerak ekonomiaren bilakaera positiboa izan dela adierazten du, jaitsierak berriz ekonomia atzeraldian sartu dela. BPG erabiltzen da baita ere herrialde arteko alderaketak egiteko eta zorra, defizita edo I+G gastua bezalako adierazle ekonomikoak erlatiboki neurtzeko.

lkerketa honen helburua, euskarak euskal ekonomiari egiten dion ekarpena neurtzea izanik, BPGk badu beste erabilgarritasun garrantzitsu bat ere, gizarte eta jarduera-sektoreen adierazle ekonomikoak BPGrekin alderatuz, ekonomia osoarekiko duten garrantzia neurtzeko erreferentzia baita.

Eustaten datuak erabiliz, EAERI dagozkion BPGrekiko kalkulatuak zenbait adibide dira ondorengoak:

- I+G+b gastua: BPGren % 2,1 (2012)
- Turismo gastua: BPGren % 5,8 (2013)
- Hezkuntza gastua: BPGren % 5,5 (2011)
- Osasun gastua: BPGren % 8,8 (2012)

5.1.2/ Euskararen BPG kalkulatzeko erabilitako prozedura

Balio Erantsi Gordinari produktuen gaineko zerga garbiak erantsi behar zaizkio, alegia, Balio Erantsiaren Zerga edo BEZa gehitu eta diru-laguntzak kendu. Euskarari loturiko produktu eta zerbitzuen BEZagatik ogasun publikoak dituen diru-sarrerez eta jarduera-ekonomiko horietarako herri-administrazioek emandako diru-laguntzez ari gara honenbestez.



Euskararen sektoreek sortutako BEZa

Eragin zuzena, zeharkakoa eta induzituaren Balio Erantsi Gordina kalkulatzekoan Input-Output jarduera-adar bakoitzerako lortutako balioetatik abiatuta, eta jarduera-adar bakoitzeko zerbitzu edo produktuari aplikatu beharreko BEZ tasaren arabera (%4, %10 edo %21), Input-Output adar bakoitzean euskarak sortutako BEZa kalkulatu da. Kalkulu horien arabera euskararen sektoreek urtean ia 157 milioi euroko BEZ sortzen dutela estimatu da, zehazki 156.933 mila €.

Euskararen sustapenerako eta euskarazko kulturaren sustapenerako EAEko herri-administrazioek emandako diru-laguntzak

Aurreratu bezala, euskarak eragindako jardueren zerga garbien zenbatekoa jakiteko, kalkulaturako BEZ horri, diru-laguntzak kendu egin behar zaizkio; EAEko herri-administrazioek euskararen arlorako eta kulturaren sustapenerako emandako diru-laguntzak hain zuzen ere.

Euskararen sustapenerako baliabide eta diru-laguntzen azterlaneko datuak erabiliz, EAEko herri-administrazioek euskararen sustapenerako urtean guztira 77 milioi euro ematen dituzte (IV. eta VII. kapitulu ekonomikoen batura, 77.004.829 €). Informazio iturria: Eusko Jaurlaritza-Hizkuntza Politika; Euskara sustatzeko baliabide eta diru-laguntzen estatistika, 2012. Kultura arlokoetan berriz, EAEko herri-administrazio guztien kulturarako diru-laguntzak kendu dira (IV. eta VII. kapitulu ekonomikoetatik bideratutako ordainketak), baina ez osorik, ikerketa honetan kultur sektore bakoitzerako estimatutako euskara-koefizienteen arabera baizik; kultur sektore bakoitzaren euskara enplegua kalkulatzeko erabilitako koefiziente bera aplikatu da kultur alorreko diru-laguntzetatik zein zati kendu erabakitzeko. EAEko herri-administrazioek kulturarako ipinitako diru-laguntzen kopuruak, Eusko Jaurlaritzako Kulturaren Euskal Behatokiak bi urtez behin egiten duen estatistikatik lortu dira (2012ko aurrekontu likidatuei dagozkienak. Azterlan honi begira eta prezioen gaineko zerga garbiak kalkulatzera iritsi ahal izateko, kulturarako emandako diru-laguntzei dagokienean 30.388 mila euro izango lirakeela kendu beharrekoak estimatu da.

Produktuen gaineko zerga gabiak

Guztira, euskara arlorako diru-laguntzak eta kulturarako estimatutakoa gehituta, 107 milioi euroko kopurua kendu zaio euskara-jarduerak sortutako BEZari (157 milioi euro) eta 50 milioi euro inguru aurreikusitako diru-laguntzei dagokienean 30.388 mila euro izango lirakeela kendu beharrekoak estimatu da.



Euskararen BPG

Euskarak EAEko ekonomian duen eragin osoaren (zuzena, zeharkakoa eta induzituaren) Balio Erantsi Gordinari, 2.751 miloi eurori, produktuen gaineko zerga garbiak erantsita, 49 milioi euro, euskaren Barne Produktu Gordina 2.800 miloi euro izatera iristen da.

5.2/ Euskararen pisua euskal ekonomian

Denbora tarte batean herrialde batek ekoizitako produktu eta zerbitzu guztien balioa ematen duenez Barne Produktu Gordinak, EAEko Barne Produktu Gordin osoarekiko euskararenak hartzen duen pisua jakinez zehaztuko dugu euskarak euskal ekonomiari egiten dion ekarpena.

Euskal ekonomia osoaren urteko Barne Produktu Gordina 66 eta 68 mila miloi euro artean ibili da azken bost urteotan. Azterlan honetan kalkulatu diren euskararen aldagai ekonomikoetarako nagusiki Eustaten 2012ko datuak erabili direnez, EAEko BPG osorako erabilitako erreferentzia, 2012. urtekoa izan da.

Euskadiren 2012ko BPG, 66.775.970 mila euro izan zen; euskarari dagokiona 2.800.634 mila euro izanik, euskarak euskal ekonomiari egiten dion ekarpena Barne Produktu Gordinaren %4,19 dela esan dezakegu.

Behin, BPGrekiko pisua adierazten duen datu erlatiboak jakinda, baditugu euskarak euskal ekonomian duen dimentsio ekonomikoa eta eragin ekonomikoaren azken emaitzak:

- **Enplegua:** Euskal ekonomiako enplegu osoaren %6,28 euskara-sektoreek sortua da; EAEko enplegu osoa 893.952 da eta euskararena, enplegu zuzena, zeharkakoa eta induzitua ere kontuan hartuta, 56.142. Kopuru horretatik ia 43 mila lanpostu, euskararen jarduerak zuzenean sortutakoak dira, 4 mila eskas zeharkako eraginari dagozkionak eta beste ia 10 mila eragin induzituarenak.
- **Balio Erantsi Gordina:** EAEko ekonomiaren Balio Erantsi Gordinaren %4,5 euskararekin lotura duten jarduera-ekonomikoei lotua dago; ia 61 mila miloi eurokoa da (60.875.938 mila €) EAEko BEG guztira eta euskara-sektoreena berriz, 2.751 miloi euro (2.751.093 mila €).
- **Barne Produktu Gordina:** EAEko Barne Produktu Gordinaren %4,19 euskararekin zuzenean ez bada zeharka loturaren bat dute sektore ekonomikoei dagokie. 66.775.970 mila euro EAEren BPG guztira (2012 urtea) eta euskarari dagokiona 2.800.634 mila euro.



Aurreko aldagai makroekonomikoak ikusita, ondoriozta daiteke euskarak zuzenean ez bada zeharka sortzen duen ekonomiaren datuak esanguratsuak direla eta euskararen balioa termino ekonomikoetan ere handia dela. Administrazioari lotuak dauden enplegu eta baliabideez aparte, euskararen inguruan lan egiten duten sektore-ekonomikoei enplegua eta balio erantsia sortzen dute.

Eustatek eskainitako datuen arabera eta beste sektoreen garrantzia ekonomikoa euskararenarekin alderatu nahian, EAEn guztira egiten den I+G+b gastuaren gaintik (BPGren %2,12) eta turismo sektorearen zertxobait azpitik (BPGren %5,8) kokatzen da euskara (%4,19).

10. Grafikoa: Euskararen eragin ekonomikoaren azken emaitzak





57. taula: Euskararen balio ekonomikoa eta EAEko ekonomian duen eraginaren guztirako magnitudeak

		Euskararen datuak	EAEko datuak	EAErekiko %
Zuzeneko eragina	Ekoizpen balioa	2.497.618 (mila €)	135.277.209 (mila €)	1,85
	Balio Erantsi Gordina	1.867.344 (mila €)	60.875.938 (mila €)	3,07
	Enplegua	42.724	893.952	4,78
Zeharkako eragina	Ekoizpen balioa	451.857 (mila €)	135.277.209 (mila €)	0,33
	Balio Erantsi Gordina	232.999 (mila €)	60.875.938 (mila €)	0,38
	Enplegua	3.748	893.952	0,42
Eragin induzitua	Ekoizpen balioa	1.152.994 (mila €)	135.277.209 (mila €)	0,85
	Balio Erantsi Gordina	650.750 (mila €)	60.875.938 (mila €)	1,07
	Enplegua	9.670	893.952	1,08
Eragina GUZTIRA	Ekoizpen balioa	4.102.469 (mila €)	135.277.209 (mila €)	3,03
	Balio Erantsi Gordina (oinarrizko prezioetan)	2.751.093 (mila €)	60.875.938 (mila €)	4,52
	Enplegua	56.142	893.952	6,28
Produktuen gaineko zerga garbiak	Balio Erantsiaren Gaineko Zerga (BEZ)	156.933 (mila €)	-	-
	Diru-laguntzak	107.392 (mila €)	-	-
	Guztira	49.541 (mila €)	5.900.032 (mila €)	0,84
Euskararen Barne Produktu Gordina		2.800.634 (mila €)	66.775.970 (mila €)	4,19

Iturria: Eustat, 2012; Siadecok landutako datuak, 2015